


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea**

**Fisiologia Saila**

**MASAJEAREN, UR HOTZEKO MURGILKETAREN ETA  
T.E.C.A.R. TERAPIAREN ERAGINA KORRIKALARI  
POPULARREN ERREKUPERAZIO PROZESUAN**

**Doktorego-tesia**

Iratxe Duñabeitia Usategui

**Zuzendariak**

Francisco Javier Gil Goikouria dokt.

Iraia Bidaurrezaga López de Letona dokt.

2018



*"Give the first step with faith, you do not have to see the whole staircase, just gives the first step".*

*"Eman zure lehen pausoa fedearekin, ez duzu eskailera osoa ikusi beharrik, lehenengo urratsa besterik ez duzu eman behar".*

**Martin Luther King**



## Esker onak

*Momentu honetan lan hau egiten lagundu nauzuen guztioi eskerrak eman nahi nizkizueke eta ez nuke inor ahazterik nahi.*

*Lehenengo, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Fisiologia Sailean onartu eta Tesia honen irakurketa posible izateko eman didaten laguntzagatik eskerrak eman nahi nizkieke Saileko zuzendariak izan diren Luis Casis eta Jon Irazusta doktoreei. Eskerrik asko Jon Irazusta ikerketa honetan parte hartzeko aukera emateagatik eta unibertsitateko ibilbidean laguntzeagatik.*

*Jarraitzeko, eskerrik asko tesi honen zuzendariari: Javier Gil Goikouria eta Iraia Bidaurrezaga López de Letona doktoreei. Lan hau aurrera ateratzea posible izan da hasieratik nigan ezarri duzuen konfiantzagatik eta zuengatik jasotako laguntza eta zuzendaritza apartari esker. Oso erraza izan da zuekin lan egitea, pertsona paregabeak zare eta ez dago zuek baino zuzendari hoberik. Javi, zu bezalako pertsonarik ez dago eta zure ondoan biderik latzena errazagoa da. Iraia, nire lankide eta lagun maitea, aurrez-aurre egon gara hasiera-hasieratik eta beti egon zara irakasteko prest, zu zara nire mentorea.*

*Ez ditut nire lankideak ahaztu nahi, Jon Torres, Ana Rodríguez, Igotz Delgado, Bego Sanz, Nerea Subiran, Enrique Echevarria eta Gorka Larrinaga doktoreak. Bidai honetan biderik egokiena zein den erabakitzeko aholkurik preziatuenak eman dizkidazue. Ez ditut Arantza Pérez Dobaran, laborategiko teknikaria, eta Carlos Cenicero ahaztu nahi, haiek izan baitira ikerketarako beharrezko den materiala ordenean mantentzen eta ondo erabiltzen lagundu didatenak.*

*Jarraitzeko Susana Gili eskerrak eman nahi nizkioke, ia ezagutu barik nigan izan duzun konfiantza ordainezina baita. Ez hori bakarrik, eskerrik asko zure ikuspuntu positiboa irakasteagatik "Ahal danean dana eta ezin danean ahal dana".*

*Ez nuke Jesús Seco ahaztu nahi. Gizon miresgarria zara eta gure artean distantzia egon arren, badakigu ez gaudela bakarrik.*

*Eskerrik asko bihotz-bihotzez Izaro Esaini. Edozein momentutan edozein gauzatan laguntzeko prest egon zarela, eskerrik asko. Zu bai lagun ona.*

*Era batean edo bestean Tesia egiten lagundu didazuen guztioi, eskerrik asko. Zer moduz doan, zer moduz nagoen... galdetu didazuen lankide eta lagun guztioi, eskerrik asko.*

*Ikerketa honetan protagonistak izan diren korrikalari guztiei eskerrak eman nahi nizkieke, beti erraztasunak jartzeagatik eta zuen baldintzarik gabeko parte hartzeagatik. Zuen laguntza gabe Tesi hau garatzea ezinezkoa izango litzateke.*

*Azkenik eskerrak eman nahi nizkieke unibertsitatetik kanpo lagundu didatenei. Hasteko nire gurasoei, Joseani eta Mariviri, zuek izan baitzarete nire bizitza osoan bidean lagundu nauzuenak eta hasieratik Tesia egitera animatu nauzuenak. Nire neba Ibairi, beti bromatan eta barreak egiteko prest egoteagatik. Nire senar Unairi, zure hitzak eta zure besoak beti egon baitira ni babesteko prest. Zure bihotza nire aingura da. Bukatzeko, Pauleri, gure txikitxoari, lan honetako azken pausuak nirekin egiteagatik. Bihotz batek hasi eta birek bukatu dugulako lan hau.*

*Eskerrik asko.*

*"The mind that opens up to a new idea never returns to its original size".*

*"Ideia berri bati irekitzen den gogo ez da inoiz bere jatorrizko tamainara itzuliko".*

*Albert Einstein*





# Aurkibidea





## AURKIBIDEA

1	LABURDURAK .....	17
2	SARRERA.....	23
2.1	Agente fisikoak.....	24
2.1.1	Masoterapia .....	26
2.1.2	Hidroterapia .....	33
2.1.3	Elektroterapia.....	38
2.2	Lasterketaren parametro desberdinak .....	47
2.2.1	Parametro biomekanikoak.....	48
2.2.2	Parametro fisiologikoak .....	54
2.2.3	Beste parametro fisiologikoak .....	58
2.2.4	Esfortzuaren pertzepzioa .....	63
3	HELBURUAK.....	67
4	MATERIAL ETA METODOAK .....	71
4.1	Etika batzordea .....	71
4.2	Lagina .....	71
4.3	Inklusio eta baztertze irizpideak .....	71
4.4	Materiala .....	73
4.4.1	Laborategiko materiala .....	73
4.4.2	Antropometria egiteko materiala .....	73
4.4.3	Malgutasuna neurtzeko materiala .....	73
4.4.4	Treadmill testa egiteko materiala .....	73
4.4.5	Laktatoa neurtzeko materiala .....	74
4.4.6	Esfortzu pertzepzioa neurtzeko materiala .....	74
4.4.7	Masajea egiteko materiala.....	74
4.4.8	Ur hotzeko murgilketa egiteko materiala .....	75

4.4.9	T.E.C.A.R. terapia egiteko materiala.....	75
4.4.10	Material informatikoa .....	76
4.5	Metodoa.....	76
4.5.1	Ikerkuntza protokoloaren laburpena .....	76
4.5.2	Galdeketa .....	81
4.5.3	Miaketa fisikoa .....	81
4.5.4	Malgutasuna.....	86
4.5.5	Treadmill testaren protokoloa .....	87
4.5.6	Parametro biomekanikoak.....	87
4.5.7	Parametro fisiologikoak.....	90
4.5.8	Esfortzuaren pertzepzioa .....	91
4.5.9	Interbentzioak .....	92
4.6	Estatistika .....	96
5	EMAITZAK.....	99
5.1	Masaje taldea vs. kontrol taldea .....	99
5.1.1	Parametro biomekanikoak.....	99
5.1.2	Parametro fisiologikoak.....	99
5.1.3	Laktatoa eta esfortzu pertzepzioaren balorazioak.....	100
5.1.4	Malgutasuna.....	100
5.2	Ur hotzeko murgilketa taldea vs. kontrol taldea.....	105
5.2.1	Parametro biomekanikoak.....	105
5.2.2	Parametro fisiologikoak.....	105
5.2.3	Laktatoa eta esfortzu pertzepzioaren balorazioak.....	105
5.2.4	Malgutasuna.....	105
5.3	T.E.C.A.R. terapia taldea vs. kontrol taldea.....	110
5.3.1	Parametro biomekanikoak.....	110
5.3.2	Parametro fisiologikoak.....	110

---

5.3.3	Laktatoa eta esfortzu pertzepzioaren balorazioak.....	110
5.3.4	Malgutasuna.....	110
5.4	Masaje taldearen parametro desberdinen arteko korrelazioa.....	115
5.4.1	Masaje taldearen parametro biomekanikoen eta beste parametroen arteko korrelazioa.....	115
5.4.2	Masaje taldearen parametro fisiologikoen eta beste parametroen arteko korrelazioa.....	121
5.4.3	Masaje taldearen laktatoaren eta esfortzu pertzepzioaren balorazioen eta beste parametroen arteko korrelazioa .....	124
5.4.4	Masaje taldearen malgutasunaren eta beste parametroen arteko korrelazioa.....	127
5.5	Ur hotzeko murgilketa taldearen parametro desberdinen arteko korrelazioa .....	129
5.5.1	Ur hotzeko murgilketa taldearen parametro biomekanikoen eta beste parametroen arteko korrelazioa .....	129
5.5.2	Ur hotzeko murgilketa taldearen parametro fisiologikoen eta beste parametroen arteko korrelazioa .....	134
5.5.3	Ur hotzeko murgilketa taldearen laktatoaren eta esfortzu pertzepzioaren balorazioen eta beste parametroen arteko korrelazioa .....	137
5.5.4	Ur hotzeko murgilketa taldearen malgutasunaren eta beste parametroen arteko korrelazioa.....	140
5.6	T.E.C.A.R. terapia taldearen parametro desberdinen arteko korrelazioa .....	142
5.6.1	T.E.C.A.R. terapia taldearen parametro biomekanikoen eta beste parametroen arteko korrelazioa .....	142
5.6.2	T.E.C.A.R. terapia taldearen parametro fisiologikoen eta beste parametroen arteko korrelazioa .....	147
5.6.3	T.E.C.A.R. terapia taldearen laktatoaren eta esfortzu pertzepzioaren balorazioen eta beste parametroen arteko korrelazioa .....	150
5.6.4	T.E.C.A.R. terapia taldearen malgutasunaren eta beste parametroen arteko korrelazioa.....	153
6	EZTABAIDA .....	157

6.1	Masajea .....	157
6.1.1	Parametro biomekanikoak .....	158
6.1.2	Parametro fisiologikoak.....	159
6.1.3	Laktatoa eta esfortzu pertzepzioaren balorazioak.....	159
6.1.4	Malgutasuna.....	161
6.2	Ur hotzeko murgilketa.....	161
6.3	T.E.C.A.R. terapia.....	164
6.4	Eztabaidaren laburpena .....	166
6.5	Ikerketaren mugak eta etorkizunerako proposamenak.....	167
7	ONDORIOAK .....	171
8	BIBLIOGRAFIA .....	175
9	ERANSKINAK .....	213

# Laburdurak







## 1 LABURDURAK

ADSC	Zelula ama gantz eratorria (ingeleratik <i>Adipose-Derived Stem Cells</i> )
ACSM	<i>American College of Sports Medicine</i>
AHA	<i>American Heart Association</i>
ATP	<i>Adenosin Triphosphate</i>
B	Besoko perimetro zuzendua
B <sub>A</sub>	Bolumen Arrunta
BB	Batezbestekoa
BM	Bihotz-Maiztasuna
CK	<i>Creatine Kinase</i>
CO <sub>2</sub>	Karbono dioxidoa
DE	Desbideratze Estandarra
D <sub>B</sub>	Arnasa botatzeko denbora
D <sub>H</sub>	Arnasa hartzeko denbora
DOMS	<i>Delayed Onset Muscular Soreness</i>
EA	Ez Adierazgarria
ERK 1/2	<i>Extracellular signal-Regulated Kinases 1 and 2</i>
F	Belauneko diametroa
FAK	Kinasa itsaspen fokalak (ingeleratik <i>Focal Adhesion Kinase</i> )
GMI	Gorputz Masa Indizea
H	Altuera
HIF-1	<i>Hypoxia Inducible Factor 1</i>
H <sub>2</sub> O	Ura
HSP27	Bero kolpe 27 proteinaren fosforilazioa (ingeleratik <i>Hot Shock Protein 27</i> )
IL-6	Interleukina-6 (ingeleratik <i>Interleucina 6</i> )
IP	Indize Ponderala

ISAK	<i>International Society for the Advancement of Kinanthropometry</i>
LED	<i>Light Emiting Diodes</i>
LFT	Lata Fasziaren Tentsorea
MAPK 1/2	<i>Mitogen-Activated Protein Kinases 1 and 2</i>
MLL	<i>Massage-Like compressive Loading</i>
MLSS	Laktatoaren atalasea (ingeleratik <i>Maximal Lactate Steady-State</i> )
O <sub>2</sub>	Oxigenoa
OBLA	<i>Onset of Blood Lactate Accumulation</i>
OEM	Osasunaren Erakune Mundiala
OPLA	<i>Onset of Plasma Lactate Accumulation</i>
P	Zangoko perimetro zuzendua
PCNA	Antigen nuklearraren zelulen ugalketa (ingeleratik <i>Proliferating Cell Nuclear Antigen</i> )
PGC-1 $\alpha$	<i>Peroxisome proliferator-activated receptor Gamma Coactivator 1 <math>\alpha</math></i>
RE	Lasterketa ekonomia (ingeleratik <i>Running Economy</i> )
RER	Arnas truke ratioa (ingeleratik <i>Respiratory Exchange Ratio</i> )
ROM	<i>Range of Motion</i>
RR	Arnas maiztasuna (ingeleratik <i>Respiratory Rate</i> )
RPE	Esfortzuaren pertzepzio maila (ingeleratik <i>Rating of Perceived Exertion</i> )
SPO <sub>2</sub>	Oxigeno asetasuna (ingeleratik <i>Spot Oxygen Saturation</i> )
SPSS	<i>Statistical Package for Social Sciences Statistics</i>
T.E.C.A.R.	<i>Transfert Electrical Capacitive and Resistive</i>
TEM	<i>Technical Error of Measurement</i>
TNF- $\alpha$	Tumore nekrosi faktorea- $\alpha$ (ingeleratik <i>Tumor Necrosis Factor</i> )
U	Ukondoko diametroa
UHM	Ur Hotzeko Murgilketa
VCO <sub>2</sub>	Karbono dioxidoaren produkzioa

$V_E$	Aireztapen bolumena
$V_E/VO_2$	Aireztatutako oxigeno baliokidea
$V_E/VCO_2$	Aireztatutako karbono dioxidoaren baliokidea
$VO_2$	Oxigeno kontsumo absolutua
$VO_2/kg$	Oxigeno kontsumo erlatiboa
$VO_2 \text{ max}$	Oxigeno kontsumo maximoa
$Q_c$	Gastu kardiakoa



# Sarrera





## 2 SARRERA

Lasterketa, jendeak egiten duen jarduera fisiko ezagunenetakoa da (Van Middelkoop, Kolkman, Van Ochten, Bierma-Zeinstra eta Koes, 2008). Broer eta Zernicke-ren (1979) arabera, umeek ematen dituzten lehen pausuak korrika egiten dituzte ibilketa baino errazagoa delako. Gainera, lasterketa ez da azkar ibiltzearen berdina, izan ere, lasterketan gertatzen den giharren ekintzaren eskaera handiagoa da martxan gertatzen denarekin konparatuz. Bestalde, ibilaldian bi oinek aldi berean lurra ukitzen duten bitartean, lasterketan ez dute inoiz batera lurra ukitzen (Ferro, 2001; Viel, 2002). Halaber, lasterketan, oinak lurra ukitzen duenean, kolpearen intentsitatea handitu egiten da desplazamendu abiaduraren arabera, hots, gorputzaren pisuaren % 100-etik % 200-ra handitu daiteke. Oro har, 1500 metro egiteko korrikalariaren orpoak 1150-1180 aldiz ukitzen du lurra, ukitze denbora oso laburrarekin (0.2 s), baina intentsitatea ez da gutxitzen. Era berean, askotan, beheko bi gorputz-adarrek ez dute intentsitate berdinean lurra ukitzen, hots, beheko gorputz-adar bat kolpe-leungailua den bitartean bestea propulsailea izango da. Gainera, zapatila mota edota korrika egiten den zoru mota ere orpoak jaso behar duen inpaktuaren intentsitatean eragina dute (Viel, 2002).

Azken urteetan, korrika egiten duen jende kopuruaren gorakada gertatu da. Besteak beste, bizimodu osasungarriagoa egin nahi denean, pisua kontrolatu nahi denean edota egoera fisikoa hobetu nahi denean, maiz hautatzen den jarduera fisikoa korrika egitea da, kostu gutxikoa eta egiteko erraza baita (Taunton eta lank., 2002). Are gehiago, korrika egiteak arrisku kardiobaskularreko patologientzat onurak dituela ikusi da (Williams, 1997). Alabaina, korrika egitearen ondorioz gertatzen diren lesioak ohikoak izaten dira. Horrela, hasi berriak diren korrikalariak, korrikalari popularrek baino aukera gehiago dituzte lesionatzeko (Videbæk, Bueno, Nielsen eta Rasmussen, 2015). Bederen, korrikalari popularrek eliteko korrikalariak baino lasterketa gehiago egiten dituzte. Izan ere, korrikalari popular batzuk batezbesteko bi lasterketa egiten dituzte hilero eta, beste batzuk, asteburu guztietan lasterketak egiten dituzte, horietatik gutxi batzuk asteburu berdinean lasterketa bat baino gehiago egiten dituztelarik (Vílchez Conesa, 2010). Horrela, lesioak izateko arriskua handitzen da.

Lesioak ekiditzeko eta disfuntzioak edota desgaitasunak berritzeko, fisioterapiak, besteak beste, agente fisikoak erabiltzen ditu (Cameron, 2013). Agente fisiko hauek prebentzio moduan ere erabiltzen dira eta, askotan, berreskuratze metodo gisa. Horrela, kirol arloan asko erabili izan dira agente fisikoak entrenamenduen edo txapelketen ostean (Adamczyk, Krasowska, Boguszewski eta Reaburn, 2016; Nunes eta lank., 2016).

Gainkarga dagoenean intentsitate altuko entrenamendu errepikakorren edota txapelketen ostean, batez ere mina eta nekea dira agertzen diren sintomarik adierazgarrienak (Nunes eta lank., 2016). Nekea, giharrek indarra edo potentzia sortzeko duten gaitasunaren gutxipenean oinarritzen da eta errendimenduan eragina du, hots, errendimendu txikiagoa izatea eragiten du (Komi, 2000). Besteak beste, nekeak funtzio neuromuskularra, indarra sortzeko gaitasuna (Oksa eta lank., 2012) eta oreka (Boyas eta lank., 2011) kaltetzen ditu. Horrela, neke horrek aldaketa fisiologikoak eta biomekanikoak eragin ditzake kirolariengan (Giandolini eta lank., 2016; Maclaren, Gibson, Parry-Billings eta Edwards, 1989).

## 2.1 Agente fisikoak

Fisioterapian helburu terapeutikoak lortzeko erabiltzen diren tresnei agente fisikoak deritzaie. *Agente* hitza "egin" esan nahi du eta, aldiz, *fisikoa* "naturatik datorrena" esan nahi du, alegia, naturatik datorren baliabidea da (Gallego Izquierdo, 2007).

Horrela, agente fisikoak naturan aurkitzen diren baliabideak izan daitezke: naturalak edo artifizialak (gizakiak sortzen dituenak). Bestalde, agente fisikoek sortu ditzazketen eraginak lehen mailakoak (termikoak, mekanikoak, kimikoak eta elektromagnetikoak) edo bigarren mailakoak (lehen mailako efektuen ondorioz sortutako efektuak) izan daitezke (Cabello eta Gallut, 2012).

Prehistorian gizakiak naturatik lortutako baliabideak erabiltzen zituen sendatzeko. Halaber, esku terapiaren eta agente fisikoen erabileraren lehenengo erreferentziak Antzinako Egipton aurkitzen dira, non hotza hanturaren hasierako aldiari erabiltzen zen eta beroa geroko aldiari, gaur egun erabiltzen den modu berean. Hain zuzen ere, masajeari buruz hitz egiten duen lanik zaharrena Txinakoa da, alegia, 3.000 K.a. urtekoa (Nei Ching) (Córdova, García Garcés eta Seco Calvo, 2012).

Korrante elektrikoari buruz ezagutzen den lehen fenomeno elektrikoa Tales de Miletoarena da (K.a. 600. urtean). Hark anbar harriak bata bestarekin igurtziz gero, objektuak erakartzeko gaitasuna zutela ikusi zuen (Cordero, 2008). Aurretik ere, arrain torpedoaren bitartez deskarga elektrikoak erabiltzen ziren artralgiatan (min articularra). Geroago, Grezia Klasikoan (K.a. VI. eta V. mendeetan), Medikuntza Zientifiko Modernoa sortu zen. Garai horretan, Hipokratesek agente fisikoen zazpi tratatuak idatzi zituen eta horrek, K.a. I. mendean Medikuntza Erromatarrean agente fisikoen erabilera nagusitzea ekarri zuen, masajeak erritual bihurtuz. Era berean, hidroterapia oso garrantzitsua bihurtu zen eta 600 urtetan zehar denetarako konponbide moduan erabiltzen zen. Garaiko beste pertsonai garrantzitsuenetariko bat Galeno



---

izan zen (K.o. II. mendean). Agente fisikoak (bainuak, masajeak eta ariketa fisikoa) egoera psiko-emozionala orekatzeko erabili zituen. Galenok, Antzina Klasikoaren Medikuntza maila gorena lortu zuen eta hamabost mendetan zehar indarrean mantendu ziren bere lanak. Ondoren, Erdi Aroan, agente fisikoen erabilera mugatu zen arimaren gurtzea landu behar baitzen. Aldiz, Pizkundean agente fisikoen erabilera berreskuratu zen. Honekin batera, inprenta sortu zen eta honek, jakituriaren hedatzea ekarri zuen (Córdoba eta lank., 2012; Fernández eta Castro, 2002; Gallego Izquierdo, 2007).

XVI. mendean, William Gilber, Ingalaterrako erreginaren medikua zena, elektrizitatea eta magnetismoaren desberdintasunak ezarri zituen. Bi menderen ostean, Luigi Galvanik (1737-1798) elektro estimulazio muskularraren eta neuromuskularraren oinarriak ezarri zituen eta korronte honi bere izena jarri zion. 1831. urtean, Michael Faradayk indukzio elektromagnetikoaren fenomenoak aurkitu zuen eta praktika terapeutikoan erabiltzen hasi zen. Duchenne de Boulognek gorputzeko "puntu motoreak" zehaztu zituen, hau da, uzkurdurak non ziren eragingarriagoak zehaztu zituen eta paralizatutako giharrak kitzikatu zitezkeela ikusi zuen. Horrela, elektrodiagnostikoaren hasiera ezarri zuen (Cordero, 2008).

Frekuentzia altua 1891. urtean sortu zen, D'Arsonval-ek maiztasun altuko korronteak lortu zituenean. D'Arsonval-en arabera sistema neuromuskularra ez zen korronte hauen bidez kitzikatzen. Izan ere, korrontea gainazalean eragina zuela pentsatu zuen, hots, organismoa zeharkatzen ez zuela. Gaur egun, aldiz, frekuentzia altuko korronteak ehun biologikoak zeharkatzeko gaitasuna dutela ezagutzen da eta D'Arsonval korronteak *korronte birsortzaile funtzional* edo *korronte birsortzaile zelular* moduan ezagutzen dira (Martín, 2004; Morillo, Portero eta Vega, 1998).

XIX. mendean, hidroterapiaren errenazimendua gertatu zen eta Vincenz Priessnitz-ek eraginkorra zen sistema terapeutikoa eratu zuen. Era berean, Sebastian Kneipp, tuberkulosia sendatzeko hidroterapia metodoa erabili zuen. Azken honek, ez zuen inoiz ur hotza erabiltzen gaixoaren gorputza aurretik bero ez baldin bazegoen (gorputza igurtzien, ur beroaren edo ariketa fisikoaren bitartez berotzen zuen). 19 liburu idatzi zituen eta aipagarriena 14 hizkuntzetara itzulia izan den *Mi cura por el agua* izan zen. Hain zuzen ere, Priessnitz eta Kneippk hidroterapiaren aitatzat jotzen dira. Ondoren, Schedel-ek hidroterapiaren argibideak idatzi zituen. Momentu hori arte, hidroterapiak ez zuen izaera zientifikorik, baina XIX. eta XX. mendeetan, Wilhelm Winternitz-ek eta Louis Fleury-k zientzia bilakatu zuten ur hotzaren efektu fisiologikoak aztertu baitzituzten (Fernández eta Castro, 2002; Gallego Izquierdo, 2007).

XIX. mendean, Pehr Henrik Ling-ek (1776-1839) “Suediar masajea” ezagutzera eman zuen. Suediar masajea, grekoek, erromatarrek, arabiarrek eta egiptiarrek deskribatutako mugimenduetan oinarritzen da. Ling-en dizipuluek bere ezagutzak Europatik eta Estatu Batuetatik zabaldu zituzten (Córdova eta lank., 2012).

Era berean, XX. mendearen hasierako hainbat pertsonai garrantzitsu aipatu behar dira; adibidez, Charles Leroy Lowman-ek “Hidroterapia metodoa” garatu zuen; Leroy Hubbard-ek metalezko andel-ontzi bat sortu zuen fisioterapeutek kanpotik pazientearen gorputzeko adar guztiak ondo mugitu ahal izateko; McMillan-ek haurren gaixotasun neurologikoak uretan tratatu ahal izateko “Halliwick metodoa” sortu zuen. Masajeari dagokionez, 1920. urtean James Mennell-ek, Londreseko “*Special Military Surgery Hospital*”-eko mediku ofizialak, gatazketan jasandako zauriak sendatzeko masajearen erabilerari buruzko testu bat idatzi zuen. Oro har, Sir Robert Jones, “*Special Military Surgery Hospital*”-eko zuzendaria zena, masajearen erabilera “errekuperatzaile funtzionala” bezala deskribatu zuen. Horrela, XX. mendean zehar hainbat masaje mota garatu ziren (Gallego Izquierdo, 2007).

Elektroterapiari dagokionez, Whitney-k, 1910. urtean diatermiaren bidez uhin laburra sortu zuen eta 1928. urtean hipertermia sortu zuen. Urte horretan ere, Esau-k eta Schliephake-k, radioterapia sortu zuten (Morillo eta lank., 1998). Ondoren, Langevin-ek, lehenengo ultrasoinua sortu zuen eta urte batzuk beranduago, 1936. urtean, Dolhmann-ek medikuntzan erabiltzeko ultrasoinu aparatua sortu zuen. Horrela, XX. mendean elektroterapia garatzen eta zabaltzen hasi zen (Cordero, 2008).

### 2.1.1 Masoterapia

Masajea gorputzeko ehunen manipulazio mekanikoa da. Bertan, presioak eta igurtzi erritmikoak erabiltzen dira osasuna eta ongizatea lortzeko (Cafarelli eta Flint, 1992). Masajearen erabilerak anitzak dira; ariketa fisikoa egin baino lehenagoko prestaketan edo beroketan, errekupeazioan (ariketa fisikoaren ostean), prebentzio moduan eta lesioen errekupeazioan erabiltzen da (Moraska, 2005).

Mendebaldeko herrietan “Suediar masajea” masajerik ohikoena eta ezagunena da eta, gaur egun, “masaje terapeutikoa” edo “Europako masaje tradizionala” deritzo. Oinarritzko bost mugimenduk osatzen dute “Suediar masajea” (1. Taula) (Cafarelli eta Flint, 1992; Córdova eta lank., 2012; Poppendieck eta lank., 2016; Vazquez, 2000; Weerapong eta Kolt, 2005).

Edozein masaje egiterakoan hurrengo irizpide orokorrak kontutan hartzea gomendatzen da (Biriukov, 2003; Córdova eta lank., 2012; Vazquez, 2000):

- Erritmoa: Erritmoa erregularra eta uniformea izan behar da.
- Abiadura: Masajea abiadura motelean hasi behar da eta lortu nahi den helburuaren arabera erritmo hori mantendu (erlaxatzeko) edo handitu (kitzikatzeko) daiteke.
- Intentsitatea: Inoiz ez da mingarria (min deserosoa) izan behar eta ezin da mugimendu bortitzekin hasi.
- Presioa: Hasteko presioa gihar superfizialetatik gihar sakonetara garatu behar da eta bukatzeko alderantziz.
- Denbora: Landu behar den azaleraren arabera, pazientearen sentsibilitatearen arabera eta lesioaren arabera masajearen denbora aldatu daiteke.
- Mugimenduen norabidea: Zentripetua.
- Ingurugiroa: Atsegina, eroso, garbia eta tenperatura egokia izan behar da.
- Subjektua: Posizio egokian kokatu behar da eta eroso sentitu behar da.
- Terapeuta: Ikasketa prestakuntza izan behar du eta mugimenduetan esperientzia izan behar du.

## 1. Taula. "Suediar masajea"-ren oinarritzko mugimenduak.

Mugimenduaren izena	Mugimenduaren deskribapena	Erabilera	Iradokitako onura klinikoak
<u>Effleurage</u>	Eskuak azalaren gainean irristatu mugimendu leun baten bidez.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Saioaren hasieran.</li> <li>- Mugimendu zehatz baten ostean (atsedenerako).</li> <li>- Saioa bukatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nerbio sistema parasinpatikoa pizteko eta erlaxazioa eragiteko.</li> <li>- Zainen odol itzulera hobetzeko.</li> </ul>
<u>Petrissage</u>	Ehunak altxatu, bihurritu, estutu, presioak egin eta errodatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Effleurage ostean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Giharren ehun sakonak edo azala eta larruazalpeko ehunak mugitzeko.</li> <li>- Odol zirkulazio lokala pizteko.</li> <li>- Zainen odol itzulera laguntzeko.</li> </ul>
<u>Frikzioa</u>	Atzamarren mamiekin presio sakonak egin.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Helburu zehatz batekin egiten denean. Adibidez, giharren espasmoak gutxitzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Giharren espasmoak eta atxikidura zaharrak askatzeko.</li> </ul>
<u>Tapotement</u>	Kolpe azkar eta garbiak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputzeko atal batekin bukatzen denean.</li> <li>- Txapelketa baten aurretik edo txapelketan zehar.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ehunak estimulatzeko indar mekaniko zuzen baten bitartez edo ekintza erreflexu baten bitartez.</li> </ul>
<u>Bibrazioak</u>	Oszilazioak edo astindu erritmikoak, leunak eta azkarrak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Teknika bortitz baten ondoren egiten da.</li> <li>- Mugimenduak lotzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gihar erlaxazioa.</li> <li>- Zirkulazio aparatua piztu.</li> </ul>

### **Masajearen efektuak**

Masajearen mekanismoak eta efektu fisiologikoak, biomekanikoak eta psikologikoak literaturan eztabaidatu izan dira (2. Taula) (Weerapong eta Kolt, 2005). Masajeak giharren tentsioa arindu, giharretako mina gutxitu, hantura murriztu eta espasmoak gutxitu ditzake. Halaber, flexibilitatea eta mugikortasuna hobetu ditzake, odol-fluxua handitu eta laktatoa eta CK (ingeleratik *Creatine Kinase*) gutxitu (Best, Hunter, Wilcox eta Haq, 2008; Weerapong eta Kolt, 2005). Hori dela eta, masajearen erabilpena kirolarien artean aintzakotzat hartzen hasi da, batez ere, ariketa fisikoak giharretan sortzen duen minean efektu positiboak sortzen baititu (Andersen eta lank., 2013; Best eta lank., 2008; Delextrat, Calleja-González, Hippocrate eta Clarke, 2013; Kargarfard eta lank., 2016). Masajea txapelketa baten ostean, intentsitate altuko entrenamenduen ostean edota atsedean egunetan burutu daiteke (Poppendieck eta lank., 2016). Ohikoena gehien lan egiten duten giharretan (kirol motaren arabera) aplikatzen da (Biriukov, 2003; Vazquez, 2000).

Masajearen efektuak aztertu izan dira bai erresistentziazko eta baita abiadurazko ariketa fisikoaren ostean baina, bereziki, erresistentziazkoaren ostean (Poppendieck eta lank., 2016). Aldiz, ez da oso argi geratzen zein den indarraren eta saltoaren hobekuntzan duen eragina (Poppendieck eta lank., 2016; Torres, Ribeiro, Duarte eta Cabri, 2012).

Egin berri den ikerketa batean, masajeak zitokinen ekoizpena handitzen duela ikusi da, masajeak efektu immunologikak dituela egiaztatuz. Hau da, masajeak parametro immunologikoak modulatu ditzake immunoglobulina A-ren errekupeazioa sustatuz eta intentsitate altuko ariketa fisikoak sortutako pro-hantura bitartekariak gutxituz (Tejero-Fernández, Membrilla-Mesa, Galiano-Castillo eta Arroyo-Morales, 2015).

Ikerketa batean, untxi talde bati ariketa eszentrikoa egin ostean masajea era kuantifikatuan eta errepikakorrean (MLL, ingeleratik *Massage-Like compressive Loading*) aplikatu zitzairen lau egunetan zehar. Masajea jaso zuten untxiek jaso ez zutenek baino hantura txikiagoa izan zutela ikusi zen, hau da, edema eta zelula zuri (neutrofilo eta makrofago) gutxiago izan zituzten. Era berean, giharren zurruntasun pasiboan ere modulatzeko gaitasuna zutela ikusi zen, biskoelastizitatean aldaketak eraginez (Haas, Best, Wang, Butterfield eta Zhao, 2012; Haas, Butterfield, Zhao eta lank., 2013; Haas, Butterfield, Abshire eta lank., 2013).

Entrenatu gabeko subjektuekin egindako beste ikerketa batean, parte-hartzaileei bizikletan ariketa fisiko neketsua egiteko eskatu zitzairen. Ondoren, 10 minutuko masajea eman zitzairen koadrizeps batean bakarrik, beste koadrizepa kontrola izan zelarik. Masajearen ostean biopsia egin zitzairen bi koadrizepsetan (koadrizepsaren gihar lateralean) 10 eta 150 minutura. Masajea

jaso zuten subjektuen giharrean zitokina tumore nekrosi faktorea- $\alpha$  (TNF- $\alpha$ , ingeleratik *Tumor Necrosis Factor*), interleukina-6 (IL-6, ingeleratik *Interleucina 6*) eta bero kolpe 27 proteinaren fosforilazioa (HSP27, ingeleratik *Hot Shock Protein 27*) gutxiago izan zuten, horrela, estres zelularra gutxituz. Gainera, biogenesi mitokondrial gertatzeko seinalea handitu zen (*PGC-1 $\alpha$* , ingeleratik *Peroxisome proliferator-activated receptor Gamma Coactivator 1  $\alpha$* ) eta kinasa itsaspen fokalak (FAK, ingeleratik *Focal Adhesion Kinase*) mekanotrasdukzio seinalea aktibatu zuten (Crane eta lank., 2012; Hemmings, Smith, Graydon eta Dyson, 2000).

Halaber, masajeak efektu psikologiko positiboak sortu ditzake, kirolariari konfiantza emanaz eta jarrera positiboa sustatuz (Dawson, Dawson eta Tiidus, 2004; Delextrat eta lank., 2013; Farr, Nottle, Nosaka eta Sacco, 2002; Hemmings, 2000; Hemmings, 2001; Hilbert, Sforzo eta Swensen, 2003; Mancinelli eta lank., 2006; Ogai, Yamane, Matsumoto eta Kosaka, 2008; Weinberg, Jackson eta Kolodny, 1988). Are gehiago, ikerketa desberdinek ikusi dute masajeak antsietatea (Bauer eta lank., 2010; Beider eta Moyer, 2007; Chang, Wang eta Chen, 2002; Moyer, Rounds eta Hannum, 2004; Sherman eta lank., 2010), depresioa (Ahles eta lank., 1999; Brattberg, 1999; Ernst, 2009; Moyer eta lank., 2004), mina (Cheng eta Huang, 2014; Jane eta lank., 2011; Moyer eta lank., 2004; Perlman eta lank., 2012) eta estresa gutxitzen dituztela (Noto, Kitajima, Kudo, Okudera eta Hirota, 2010), eta bizi-kalitatea hobetzen duela (Keir, 2011; Wändell, Carlsson, Gåfväls, Andersson eta Törnkvist, 2012; Widerström-Noga eta Turk, 2003).

## 2. Taula. Masajearen efektuak.

<b>Masajearen efektuak</b>			
<u>Efektu biomekanikoak</u>	<u>Efektu fisiologikoak</u>	<u>Efektu neurologikoak</u>	<u>Efektu psikologikoak</u>
Presio mekanikoak ehunetan.	Ehunetan edo organoetan aldaketak.	Estimulazio erreflexua.	Adimenaren eta gorputzaren arteko harremana.
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ehunen atxikidurak ↓.</li> <li>- Giharraren elastikotasuna ↑.</li> <li>- Mugimendu kantitatea ↑.</li> <li>- Zurruntasun pasiboa ↓.</li> <li>- Zurruntasun aktiboa ↓.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Giharren odol-fluxua ↑.</li> <li>- Azalaren odol zirkulazioa ↑.</li> <li>- Sistema parasinpatikoaren aktibitatea ↑.</li> <li>- Erlaxazio hormona ↑.</li> <li>- Estres hormona ↓.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Neuromuskular kitzikakortasuna ↑.</li> <li>- Mina ↓.</li> <li>- Gihar tentsioa edo espasmoak ↓.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erlaxazioa ↑.</li> <li>- Antzietatea ↓.</li> </ul>

**Masajearen kontraindikazioak**

Hala ere, orokorrean, masajeak hainbat kontraindikazio (absolutuak eta erlatiboak) izan ditzake (3. Taula) (Córdova eta lank., 2012; Vazquez, 2000):

**3. Taula.** Masajearen kontraindikazio absolutuak eta erlatiboak.

Kontraindikazio absolutuak	Kontraindikazio erlatiboak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Finkatu gabeko hausturak.</li> <li>- Gaixotasun traumatiko larriak.</li> <li>- Zuntz apurketa eta tendoiien lesio larriak.</li> <li>- Erredurak.</li> <li>- Bursitisa.</li> <li>- Miositis osifikantea.</li> <li>- Agerraldi erreumatiko larriak.</li> <li>- Zauriak eta azaleko asaldurak.</li> <li>- Infekzio akutua: osteomielitisa, artritis septikoa...</li> <li>- Infekzio biralak.</li> <li>- Onddo infekzioak.</li> <li>- Tronbosia, flebitisa, linfangitis eta zain handiak.</li> <li>- Tumoreak.</li> <li>- Sukarra.</li> <li>- Hemorragia asaldurak eta kapilar hauskorak.</li> <li>- Kardiopatia ez-kompentsatuak.</li> <li>- Edozein gaixotasun fase akutuan.</li> <li>- Kaltzifikazioak.</li> <li>- Beste batzuk: kilimak izatea, masajea jasotzen nahi ez izatea edo masajearen zehar tentsioan egongo diren pazienteetan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haurdunaldia.</li> <li>- Gaixotasun erreumatikoak fase akutuan.</li> <li>- Hipertentsioa desorekatua.</li> <li>- Hipotentsioa.</li> <li>- Takikardiak.</li> <li>- Kolikoak.</li> <li>- Kontusio arinak.</li> <li>- Masajea jasotzean azalean erreakzioak.</li> <li>- Gune hiper edo hipoestesikoak.</li> <li>- Hemofilia.</li> <li>- Masaje abdominala diarrea, iztondoko etenak edo koliko akutua daudenean.</li> <li>- Gehiegizko mina dela eta masajea jasan ezin denean.</li> <li>- Azaleko beste gaixotasunak.</li> <li>- Luxazioak.</li> </ul>



### 2.1.2 Hidroterapia

Hidroterapia hitza grekotik dator; *hydor* "ura" esan nahi du eta *therapeia* "terapia", hots, uraren bidez egiten den terapiari egiten dio erreferentzia. Berez, ura gizakiarentzat bizitzaren oinarritzko eta beharrezko elementua da, bai bere egituragatik eta baita bere funtzioagatik ere (Fuentes eta Santos, 2002).

Ura, hidrogeno molekula batez eta bi oxigeno molekulez osatuta dago ( $H_2O$ ) eta bere ohiko egoera likidoa da. Konposatu anormala da, berez, kimikoki gas bat izan beharko litzatekeelako, pozoitsua eta hidrogeno sulfuroaren antzeko ezaugarriekin. Ur molekulak, hidrogenoaren loturekin elkartzen dira kristalezko sareak osatuz eta, horregatik, disolbatzailerik onenetarikoa da, osagai ionikoak hidratatu egiten baititu. 760 mm Hg-ko presio atmosferikoan itsas mailan uraren izotz puntua  $0^{\circ}C$ -tan gertatzen da eta irakite puntua  $100^{\circ}C$ -tan (Nftguez, 2002).

Urak energia mekanikoaren zein termikoaren bitartez efektu terapeutikoak dituela ikusi da. Hortaz, uraren printzipioak hurrengoak dira (Cordero, 2008; Fuentes eta Santos, 2002; Mawhinney eta lank., 2013):

- **Printzipio mekanikoak:** Faktore hidrostatisakoak, hidrodinamikoak eta hidrozinetikoak daude.
    - Faktore hidrostatisakoa: Printzipioaren oinarria flotazioa da, alegia, bultzada edo Arkimedes-en printzipioa. Printzipio honen arabera, urak uretan sartuta dagoen edozein gorputzari goranzko indar bertikala eragiten dio grabitate zentroan eraginez. Bultzadazko indar hau gorputzaren gainetik dagoen uraren pisuaren indarraren balio berekoa da. Horrela, gorputza uretan murgiltzean antzematen den sententzia, gorputzaren pisua txikiagoa dela da eta, ondorioz, gorputza uretan errazago mugitu daiteke. Presio hidrostatisakoa likidoaren dentsitatearekin eta murgiltze sakontasunarekin proportzionalki zuzena da.
- Gorputzaren eta bultzadaren arteko diferentziari itxurazko pisua deritzo, eta arnasketaren (arnasbotatze behartuan gorputza urperatu egiten da eta inspirazio maximoan flotatu egiten du), sexuaren, adinaren, gaitasun bitalaren eta gorputz dentsitatearen arabera aldatzen da. Adibidez, uraren maila subjektu baten trokanterretaraino heltzen denean, gorputzak % 66-ko itxurazko pisua izango du.

Pascal-en legearen arabera, uraren presio hidrostatisakoak konpresio faktorea sortzen du, hau da, likidoaren edozein puntutan transmititutako presioa

likidoaren puntu guztietara transmitituko da. Presio hau, gorputzaren pisu zehatzaren eta uraren mailaren altuera absolutuaren menpe dago. Alde batetik, gorputza bertikal jarrita dagoenean barrunbe torazikoaren perimetroaren gutxitzea eragiten du (1 cm-tik 3.5 cm-ra) eta, bestetik, barrunbe abdominalarena (2.5 cm-tik 6.5 cm-ra). Horrela, oxigeno kontsumoaren gutxitzearen ondorioz, aldaketa metabolikoak eragiten ditu eta, honek guztiak, gihar erlaxazioa eta tonua gutxitzea bultzatzen ditu.

- Faktore hidrodinamikoa: Uretan murgilduta dagoen gorputz bat, uretan mugitzeko oztopatzen edo laguntzen dioten faktoreak dira.
  - Faktore hidrozinetikoak: Urak sortutako presioen erabileraren araberako faktoreak dira.
- **Printzipio termikoak**: Aplikazioak hotzak edo beroak izan daitezke, baina ikerketa honetan ur hotzaren aplikazioetan jarriko dugu arreta.
- Hotzaren erabileraren eragina:
    - Gorputzeko temperatura normaletik gero eta gehiago alden du (34-36°C batzuentzat eta beste batzuentzat 31-33°C), orduan eta estimulu termikoa gero eta handiagoa da (termogenesi prozesua edo beroa sortzeko prozesua). Gorputz-adarrak temperatura aldaketei egokitzeko gaitasun gutxiago dute.
    - Gero eta azalera handiago batean aplikatu, orduan eta efektu termiko handiagoa du.
    - Subjektuaren ezaugarriak eta sentsibilitate termikoak ere eragina dute.
    - Uraren temperatura, gorputzeko temperatura normaletik behera aldentzen denean, hurrengoa gertatzen da:
      - ✓ Temperaturaren jaitsiera ehunen basokonstriktzioa sortzen du eta batzuetan dardara termikoak sortu ditzake. Argalak diren pertsonen denbora gutxiago behar dute efektuak nabaritzeko eta efektua nabarmenagoa da. Gehiegizko denborak orbain prozesua atzeratu egiten du eta kontraindikaturatuta dago gaitz baskularrak dituzten subjektuetan.
      - ✓ Analgesia eta gihar erlaxazioa sortzen du. Nerbio-bukaera askeen kitzikakortasuna gutxitu, min atalasea handitu eta gihar espasmoak gutxitu egiten ditu. Dardara termikoak kontrakoak eragiten du.

✓ Zirkulazio sistema eta nerbio sistema indartzen ditu.

- **Faktore kimikoak:** Ur minero-medizinalak edo kimikoren bat atxikita daramaten urak dira.

### **Ur hotzeko murgilketa (UHM)**

Hidroterapiaren barnean hainbat modalitate daude, besteak beste, ur hotzeko murgilketa (UHM) aplikazioak (Cordero, 2008; Fernández eta Castro, 2002; Fuentes eta Santos, 2002). UHM  $\leq 15^{\circ}\text{C}$ -ko ur hotzean murgiltzean oinarritzen da (Bleakley eta Davison, 2010; Junior eta lank., 2011; Wilcock, Cronin eta Hing, 2006). Orokorrean, beheko gorputz-adarrak ur hotzean murgiltzen dira (Machado eta lank., 2016), baina hainbat ikerketetan gorputz osoko murgilketak ere burutu dira (burua eta lepoa izan ezik). Ikerketa hauetan uraren tenperaturak  $-10^{\circ}\text{C}$ ,  $-60^{\circ}\text{C}$  edota  $-110^{\circ}\text{C}$ -koak dira (Costello, Culligan, Selfe eta Donnelly, 2012; Hausswirth eta lank., 2011).

Azken urteetan, UHM terapia ariketa fisikoa egin ostean sortzen den hantura eta giharren mina gutxitzeko eta errekupeazio denbora murrizteko erabili da (Broatch, Petersen eta Bishop, 2014; Leeder, Gissane, van Someren, Gregson eta Howatson, 2012; Machado eta lank., 2016; Pournot eta lank., 2011; Roberts eta lank., 2015; Wilcock eta lank., 2006). Horrela, UHM terapiak sortzen dituen efektuak zeintzuk diren ezagutzeko hainbat egoera desberdinetan ikertu izan da; intentsitate altuko entrenamendu interbalikoen ostean (Brophy-Williams, Landers eta Wallman, 2011; Stanley, Buchheit eta Peake, 2012), korrika test-maximalen ostean (Bailey eta lank., 2007), aldapa beheko korrika egin ostean (Crystal, Townson, Cook eta LaRoche, 2013), futbol-partiden ostean (Ascensao, Leite, Rebelo, Magalhães eta Magalhães, 2011; Elias, Wyckelsma, Varley, McKenna eta Aughey, 2013), futbol entrenamenduen ostean (Elias eta lank., 2012), saskibaloi-partiden ostean (Delextrat eta lank., 2013), jauzi desberdinak burutu ostean (Goodall eta Howatson, 2008; Howatson, Goodall eta Van Someren, 2009; Jakemanm, Macrae eta Eston, 2009), uzkuradura eszentrikoak burutu ostean (Eston eta Peters, 1999; Kuligowski, Lephart, Giannantonio eta Blanc, 1998), bizikleta test-maximal baten ostean (Bastos eta lank., 2012) edota bizikletan ibiltzea eta korrika egitea konbinatzen zituen protokolo baten ostean (Peiffer, Abbiss, Nosaka, Peake eta Laursen, 2009).

### **Ur hotzeko murgilketaren efektuak**

UHM aplikazioak presio hidrostatiakoak odol-fluxua espazio intrazelularretik espazio interstizialera eta intrabaskularrera mugitzea errazten du. Ondorioz, metabolitoen

kanporatzea arintzen da (Montgomery eta lank., 2008; Wilcock eta lank., 2006). Ariketa fisikoak, zelulen iragazkortasuna handitzen du eta espazio intrazelularrean CK areagotzen du, biak, nekea edota giharren minaren adierazgarri direlarik. Horrela, ikusi da UHM-k gutxitu dezakeela ariketa fisikoaren ondorioz handitzen den odoleko CK kantitatea (Eston eta Peters, 1999; Leeder eta lank., 2012).

Adibidez, Ihsan eta lankideen (2013) ikerketan, korrikalari talde batek 30 minututan zehar zinta batean korrika egin zuten (abiadura maximoaren % 70-ra) eta, ondoren, 15 segundoko 10 serie burutu zituzten abiadura maximoan. Korrika proba bukatu eta jarraian, 15 minutuko 10°C-ko UHM aplikazioa jaso zuten hanka batean; beste hanka kontrola izan zen. Horrela, UHM aplikazioa jaso zuten hankan kirolarien perfusio mikrobaskularra eta giharretako ekintza metabolikoa gutxitu zen (Ihsan, Watson, Lipski eta Abbiss, 2013). Informazio hau garrantzitsua izan daiteke oxigenoaren (O<sub>2</sub>) eskuragarritasunak giharretako unitate motorea erregulatzen baitu (Moritani, Sherman, Shibata, Matsumoto eta Shinohara, 1992) eta, horrek, kirol errendimenduan eragina izan dezakeelako.

Uraren temperatura baxua denean, bihotz-maiztasuna gutxitu egiten da; era berean, bihotzaren erantzuna gutxitzen denez eta noradrenalina kontzentrazioa handitzen denez, sistema sinpatikoa pizten da. Gainera, arterien odol-presioa eta gorputz-adarren erresistentzia baskularra handitzen da. Horrela, odola gorputz-adarretara bideratzen da gorputzak temperatura mantendu dezan (Knight eta Londeree, 1980; Sik Park, Kyu Choi eta Saeng Park, 1999; Šrámek, Šimečková, Janský, Šavlíková eta Vybíral, 2000; Tikuisis, Jacobs, Moroz, Vallerand eta Martineau, 2000; Wilcock eta lank., 2006). Literaturan ikusi da, gihar tenperaturaren gutxipenak eta presio hidrostatiakoak edemaren, minaren eta metabolitoen pilaketa gutxitu dezakeela (Bleakley eta Davison, 2010; Wilcock eta lank., 2006). Bederen, gihar tenperaturaren gutxipenak azaleko errezeptoreak estimulatuko ditu, zuntz sinpatiko adrenergikoak kitzikatuko ditu, arteriola eta zainen konstrikzioa eragingo du eta, horrek, hantura prozesua gutxituko du (Sellwood, Brukner, Williams, Nicol eta Hinman, 2007; Wilcock eta lank., 2006).

Bestalde, UHM terapiak sortzen duen azetilkolina produkzioaren murrizketa dela eta, nerbio-kinaden abiaduraren eroapena eta giharren espasmoak gutxitu ditzake, neuronen transmisioa gutxituz (Algaflly eta George, 2007; Wilcock eta lank., 2006). Era berean, ikerketa desberdinek iradokitzen dute terapia honek, Ca<sup>2+</sup>-aren eta Na<sup>2+</sup>-aren arteko hartu-emanean eragina izan dezakeela (Algaflly eta George, 2007). Horrela, akzio-erreakzio potentziala (Reid, Babes eta Pluteanu, 2002), uzkurketa abiadura eta indarra egiteko gaitasuna (Herrera, Sandoval, Camargo eta Salvini, 2010) moteldu daitezke eta min pertzepzioa eta nekea gutxitu ere bai

(Halson eta lank., 2008; Stanley eta lank., 2012). Hala ere, kontutan hartu behar da giharraren temperatura gradu bateko beherakada bakoitzeko, % 4-6-ko uzkuertzeko indar dinamikoa galtzen da (Costello eta lank., 2012).

Temperaturari dagokionez, zenbait autoreek min sentazioa 15°C-tan hasten dela ikusi dute (Algafly eta George, 2007; Low, Reed eta Pope, 1994). Hain zuzen ere, Mawhinney eta lankideen (2013) ikerketan, lagina hiru taldetan banatu zen; kontrol taldea, 10 minutuko 8°C-ko ur murgilketa jaso zuen taldea eta 10 minutuko 22°C-ko ur murgilketa jaso zuen taldea. 10 minutuko 8°C-ko ur murgilketa jaso zuten parte-hartzaileen giharren temperaturaren murrizketa handiagoa izan arren, odol-fluxuaren murrizketa antzekoa izan zen bai 8°C-tan eta baita 22°C-tan ere.

### **Ur hotzeko murgilketaren iraupena eta temperatura**

Machado eta lankideek (2016), UHM-ren sailkapena egin zuten temperatura eta murgilketa denboraren arabera:

- Temperaturari dagokionez: 5-10°C-ko temperaturara burutzen diren ur murgilketak “oso hotzak” dira eta 11-15°C-ko temperaturan burutzen direnak “neurrizkoak” dira.
- Murgilketa denborari dagokionez: 5-10 minutuko murgilketak “murgilketa laburrak” dira, 11-15 minutukoak “neurrizko murgilketak” eta 15-20 minutukoak “murgilketa luzeak” dira.

Oro har, ur hotzeko murgilketei buruzko azken errebisio sistematikoen eta meta-analisen arabera, min muskularra arintzeko emaitzarik onenak 11-15°C-ko temperaturan eta 11-15 minutuko murgilketetan ikusi izan dira (Machado eta lank., 2016).

### **Ur hotzeko murgilketaren kontraindikazioak**

Uraren temperaturaren arabera, ur hotzetan murgildutako denboraren eta murgilketa motaren arabera, odol-fluxua, ekintza metabolikoa eta nerbioen abiaduraren eroapena aldatzen da (Machado et al., 2016). Hori dela eta, murgiltzen den gorputzeko atalaren arabera eta atal hau noraino murgiltzen den arabera ur hotzean murgiltzea arriskutsua izan daiteke (Machado eta lank., 2016; Wilcock eta lank., 2006). Bestek beste, UHM-k hiperaireztapena sortu dezake eta, honek, arterien karbono dioxidaren (CO<sub>2</sub>) murrizketa eragin odolaren azidosia sortuz eta konortea galduz. Horrenbestez, hurrengo segida sortu dezake: takikardiak, gorputzeko adarren basokonstriktzioa, konbultsioak, bentrikularen ektopia eta bihotz-maiztasunaren gelditzea

(Wilcock eta lank., 2006). Horregatik, UHM-k hainbat kontraindikazio ditu (4. Taula) (Cordero, 2008; Wilcock eta lank., 2006):

**4. Taula.** Ur hotzeko murgilketaren kontraindikazioak.

Ur hotzeko murgilketaren kontraindikazioak
- Gaixotasun kroniko desorekatuak.
- Gutxiegitasun kardiakoa.
- Biriketako gutxiegitasuna.
- Gaizki kontrolatutako hipertentsio arteriala.
- Zainetako gutxiegitasun larria.
- Gaixotasun erreumatikoak.
- Kolitisak.
- Zistitisak.
- Beherakoa.
- Iskemia.
- Raynaud sindromea.
- Larruazaleko anestesia edo hipoestesia.
- Krioglobulinemia.
- Larruazaleko lesioak (infekzioak edo beste gaixotasun kronikoak).
- Hotza jasateko ezintasuna.

### 2.1.3 Elektroterapia

Elektroterapia hitza grekotik dator; *élektron* “elektrizitatea” esan nahi du eta *therapeia* “terapia”, hots, korrante elektrikoaren bidez ematen den terapiari egiten dio erreferentzia.

Erabiltzen den frekuentziaren arabera elektroterapia hurrengo taulan (5. Taula) zehazten den moduan sailkatzen da (Cordero, 2008; Martín, 2004):

**5. Taula.** Elektroterapiaren sailkapena frekuentziaren arabera.

<b>Elektroterapiaren sailkapena frekuentziaren arabera</b>	<b>Frekuentzia (Hz)</b>
<u>Frekuentzia baxua</u>	0 Hz-1000 Hz.
<u>Tarteko frekuentzia</u>	1.000 Hz-500.000 Hz. Erabiltzen direnak: 2.000 Hz-10.000 Hz.
<u>Frekuentzia altua edo eremu elektromagnetikoak</u>	>500.000 Hz-etatik ultramore B eta C artean.


**Frekuentzia altua**

Frekuentzia altuko korronteak bi taldetan banatu daitezke: ionizanteak (materia biziaren kontra talka egiten dutenean oinarrizko kimika aldatzen dute, horrela elementuen ionizazioan eraginez) eta ez ionizanteak. Aldi berean, ez ionizanteak bi taldetan banatzen dira: erradiofrekuentzia eta argi espektroa (6. Taula) (Martín, 2004).

**6. Taula.** Frekuentzia altuko elektroterapiaren sailkapena.

<b>Frekuentzia altua</b>		<b>Izena</b>			
<u>Ez ionizanteak</u>	<u>Erradiofrekuentzia</u>	D'Arsonval	Diatermia	Uhin laburra	Mikrouhinak
	<u>Argi espektroa</u>	Infragorriak	Argi ikusgarria	Ultramoreak A (UV-A)	
<u>Ionizanteak</u>	<u>Ultramore B- tik C-ra</u>	X izpiak	Alfa	Beta	Gamma

“Diatermia” hitza Nagelschmidt-ek 1907. urtean proposatu zuen; *dia* “zeharkatu” esan nahi du eta *thermia* “beroa” (Cordero, 2008; Gallego Izquierdo, 2007; Romano, Zani eta Tassan, 2009). Diatermia sakontasuneko termoterapiari edo maiztasun altuari egiten dio erreferentzia. Horrela, korronte elektromagnetikoak (indukziozko korronteak) beroa sortzen dute sakontasunetik larruazalera, hau da, egiturek korronteei erresistentzia jartzen diete eta, horren ondorioz, bero endogenoa sortzen da (7. Taula) (Cordero, 2008; Martín, 2004). Horrela, frekuentzia baxuagoak (0.8 MHz), frekuentzia altuak (2450 MHz) baino sakonagoko ehunetara heltzen dira (1. Irudia) (Belenky, Margulis, Elman, Bar-Yosef eta Paun, 2012).



**1. Irudia.** Frekuentziaren arabera lortzen den sakontasuna ehunetan.

Belenky, I., Margulis, A., Elman, M., Bar-Yosef, U. eta Paun, S. D. (2012). *Exploring channeling optimized radiofrequency energy: A review of radiofrequency history and applications in esthetic fields* [Irudia]. Berreskuratuta: <https://link.springer.com/content/pdf/10.1007%2Fs12325-012-0004-1.pdf>

**7. Taula.** Elektroterapia frekuentzia altuko korronteen izenak eta frekuentzia.

Frekuentzia altuko korronteen izenak	Frekuentzia (MHz)
D'Arsonval	0.5 MHz- 1 MHz
Diatermia	10 MHz inguruan
Uhin laburra	27 MHz
Uhin ultra laburra	434 MHz
Mikrouhinak	900 MHz
Mikrouhinak	2450 MHz (Radarterapia)

Subjektu bati diatermia aplikatzen zaionean beroa nabaritu dezake. Hautematen den bero kantitatea zenbatekoa den adierazteko, Delpizzok eta Joynerk sailkapen bat proposatu zuten (8. Taula) (Morillo eta lank., 1998). Era berean, Rodriguez Martín irakasleak beste sailkapen zabalago bat egin zuen (9. Taula) (Cordero, 2008).



**8. Taula.** Delpizzo-k eta Joyner-k proposatutako sailkapena pazienteak nabaritu dezakeen bero sentrazioa adierazteko.

Dosia		Pazienteak nabaritu dezakeen bero sentrazioa
I	Baxua	Ez dago sentrazio termikorik.
II	Neurritzkoa	Pazienteak bero gutxi nabaritzen du (sentsazio termikoa).
III	Altua	Beroa hautematen du, eroso eta jasangarria.

**9. Taula.** Rodriguez Martín-ek proposatutako sailkapena pazienteak nabaritu dezakeen bero sentrazioa adierazteko.

Mota	Beroa	Pazienteak nabaritu dezakeen bero sentrazioa
I	Ia ez	Pazienteak ez du berorik nabaritzen (atermikoa).
II	Oso gutxi	Pazienteak bero gutxi nabaritzen du (erantzun termikoa).
III	Neurritzkoa	Pazienteak beroa nabaritzen du eta eroso da.
IV	Asko	Pazienteak bero intentsitate altua nabaritzen du baina ez du erretzen.
V	Erre	Erretzen duela adierazten du pazienteak.

### **Frekuentzia altuko korronteak sortzen dituen efektuak**

Erradiofrekuentzia azalaren zimurrak, azalaren elastizitatea, gorputzaren forma eta zelulitisa tratatzeko oso ezaguna den terapia da. Izan ere, ikusi da odol-fluxua handitzen duela eta, gainera, azalean eta larruazalean sortzen duen beroak kolagenoa osatzen du neokolagenoa eratuz (Araújo, Soares, Silva eta Moreira, 2015; Belenky eta lank., 2012; Montesi, Calvieri, Balzani eta Gold, 2007; Sadick eta Makino, 2004). Ikerketa askok eremu magnetikoak sortu ditzakeen onurak deskribatu dituzte. Efektu termikoek kolagenoaren kontrakzioa eta kolageno zuntzen sintesia sortzen dute (Abraham eta lank., 2004; Alster eta Tanzi, 2004; Harth eta Lischinsky, 2011), eta efektu atermikoek mintz zelularren hartzailetan edo kanaletan aldaketa biologikoak sortzen ditu. Goodman eta lankideen (2002) arabera, eremu magnetikoak entzimen ekintzetan, geneen transkripzio espezifikoan eta mRNA-aren adierazpenaren emendapenean eragiten du. Tokalov eta Sergey-k (2004) eremu magnetikoak talka termikoa

eragiten duela adierazi zuten eta Alvarez-en (2008) arabera, mukopolisakaridoen eta zuntz elastikoen sintesian efektuak sortzen dituela esan zuten.

Diatermiak edo hipertermiak erantzun zitotoxikoa indartzen du eta neurrizko hipertermiak (42°C) tumore gaiztoetan odol-fluxua handitzen du, ondorioz, tumoreen oxigenazioa handituz. Horrela, kimioterapian eta radioterapian laguntzaile moduan lan egiten du, erantzun zitotoxikoa handituz eta tratamendu horien eragina handituz (Van der Zee, 2002; Wust eta lank., 2002). Era berean, hipertermiak mintz zelularrean, hartzaileetan eta zitoeskeletoan eragiten du; nukleoaren matrizean proteinen desnaturalizazioa eragiten du eta horren konponketa inhibitu egiten du, hots, DNA-aren katearen apurketa eta kromosoma-aberrazioa eragiten ditu. Horrela, radioterapiaren efektu zitotoxikoa eta onkostatikoa indartzen ditu (Zeng eta lank., 2002).

### **T.E.C.A.R. terapia**

Gaur egun, energia transferentzia kapazitiboa eta erresistiboa erabiltzen duen sistemari T.E.C.A.R. terapia deritza (ingeleratik *Transfert Electrical Capacitive and Resistive*) (Hawamdeh, 2014). Terapia elektro-termikoa da eta era ez inbasibo baten bidez ehunen metabolismoaren prozesu fisiologiko naturalak sustatzen ditu (Hawamdeh, 2014; Hernández-Bule, Paino, Trillo eta Ubeda, 2014). Frekuentzia altuko korrante alternoa da, alegia, 0.3 MHz-en eta 1.5 MHz-en artean lan egiten du (Ronzio, Froes-Meyer, De Medeiros eta Gurjão, 2009). Beraz, sortzen den beroa endogenoa da, hots, korrante alternoaren mugimenduak gorputzaren ehunen barnean beroa sortzea eragingo du. Ikerketa asko ez egon arren, azken urteetan errehabilitazio fisikoan eta kirol medikuntzan asko erabili da elektroterapia mota hau (Ganzit, Stefanini eta Stesina, 2000; Hawamdeh, 2014; Mondardini eta lank., 1999).

T.E.C.A.R. terapiak emaitza onak lortu ditu arnas patologietan (Martínez eta Bordás, 1992) eta patologia baskularretan (Calpe, García, Hernández, Gaspar eta Rotellar, 1998). Halaber, giharren, hezurren, lotailuen eta tendoiaren lesioak tratatzeko errehabilitazio fisikoan eta kirol medikuntzan erabiltzen da ehunen birsortzea lortzen baitu (Cordero, 2008; Ganzit, 2000; Mondardini eta lank., 1999). Hain zuzen ere, ikerketa klinikoek lesioen errehabilitazioa azkartzen duela ikusi dute, kaltetutako ehunen azalera eta hantura murriztuz, analgesia sortuz eta giharren funtzioa errehabilitatuz (Takahashi eta lank., 1999; Takahashi eta lank., 2000).

T.E.C.A.R. terapiak zaldien lotuneen eta azal lesioetan erantzun positiboa duela ikusi da (Romano eta lank., 2009) eta, era berean, gizakien Akiles tendinopatietan ere eragin positiboa duela (Wiegerinck, Kerkhoffs, Van Sterkenburg, Sierevelt eta Van Dijk, 2013). Halaber, teknika

honi esker lunbarretako minean eta bizi kalitatean (Osti, Pari, Salvatori eta Massari, 2015) eta zerbiko-brakialgian (Takahashi eta lank., 2000) ere hobekuntzak ikusi izan dira.

### **T.E.C.A.R. terapiaren efektuak**

Giza organismoa bigarren mailako eroalea da, hots, ur kantitate handiz osatuta dago eta bertan ioi asko daude disolbatuta. Hala ere, ehunek duten ur kantitatearen arabera haien eroaletasuna aldakorra da. Hori dela eta, giza gorputza ez da eroale egokia. Korrante elektrikoa igarotzen denean ehunek erresistentzia jartzen diote eta horrek ehunen tenperatura igotzen du era endogeno batean. Horrela, barneko tenperatura handitzea lortzen da (Hernández-Bule, Trillo, Cid, Leal eta Úbeda, 2007).

Hernández-Bule eta lankideek (2014), T.E.C.A.R. terapiak (448 KHz-tara) MAPK-ERK 1/2 (ingeleratik *Mitogen-Activated Protein Kinases- Extracellular signal-Regulated Kinases 1 and 2*) bidezidorraren erregulazio positiboren bitartez zelula ama mesenkimalen erdibitzea eragiten duela ikusi zuten. Gainera, lesioa dagoen lekuetan zelula ama gantz eratorriaren (ADSC, ingeleratik *Adipose-Derived Stem Cells*) ugalketa sustatu dezakela ikusi zuten, ehunen birsortzea sortuz. Izan ere, zelulen multipotentzia arriskuan jartzen ez duenez, zelula adipogenetikoetan, kondrogenetikoetan edo osteogenetikoetan bereizi daitezke. Hau guztia kontutan hartuta, T.E.C.A.R. terapiak ehunen lesioetan, lesio baskularretan edota tratamendu kimikoak jasotzeko arazoak dituztenentzat lagungarria izan daiteke. Oro har, zelula ama mesenkimalek hantura prozesuaren kontrolean parte hartzen dutenez (hanturaren aurkako interleukinaren bitartez) (Maxson, Lopez, Yoo, Danilkovitch-Miagkova eta Leroux, 2012) eta hauen ugalketa handitu dezakeenez, hantura murrizteko erabilgarria izan daiteke (Hernández-Bule eta lank., 2014).

T.E.C.A.R. terapiak efektu energetikoa eta biologiko termikoak eta atermikoak sortzen ditu (10. Taula):

- Efektu energetikoa: ADP ATP-an bihurtzen da.
- Efektu atermikoa: Kontaktuzko hipertemiak magnetohidrodinamika lege fisikoa aktibatzen du; edozein fluxu eremu elektromagnetikoengatik menderatuta dagoenean horren abiaduraren jariaortasuna azkartzen du eta odolaren oxigenazioa handitzen du, efektu diuretikoak aktibatuz eta drainatze naturala sortuz.

- Efektu termikoa: Basodilatazioa sortzen du, hau da, odol arterialak oxigenoa erakartzen du, erreparazio sustantziak, kortisol eta endorfinak elektrodoak dauden lekuetara bideratuz eta toxinak kanporatuz.

**10. Taula.** T.E.C.A.R. terapiaren efektu biologiko atermikoak eta termikoak.

Efektu atermikoa	Efektu termikoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bioestimulazioak energia transformazio endozelularrak handitzen ditu.</li> <li>- O<sub>2</sub> kontsumoa handitu egiten da ekintza zelularretik.</li> <li>- Mintz zelularren polarizazioa hobetzen da.</li> <li>- Ugalketa zelularra hobetzen da.</li> <li>- Proteinen kateak apurtzen ditu.</li> <li>- Analgesia efektua sortzen du.</li> <li>- Edema birxurgatu egiten du.</li> <li>- Zauriak azkarrago orbaintzen dira.</li> <li>- Hematomak azkarrago birxurgatzen dira.</li> <li>- Zirkulazio periferikoaren estimulazio handitzen da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bioestimulazioak energia transformazio endozelularrak handitzen ditu.</li> <li>- Mikrohipertemia sortzen da kapilarra eta prekapilarra O<sub>2</sub>-aren beharragatik.</li> <li>- Mintzaren iragazkortasuna handitu egiten da errezeptore zehatzen degranulazioa dela eta.</li> <li>- Elektrodo aktiboaren azpian dauden egituren tenperatura handitzen da.</li> <li>- Ugaritasun hematikoa gertatzen da.</li> <li>- Basodilatazioa eragiten du.</li> <li>- Drainatze linfatikoa handitzen da.</li> </ul>

T.E.C.A.R. terapian karga elektrikoaren erakarpenean eta errefusapenean mugimenduak sortzen dira eta ehunen barnean gertatzen diren ioien mugimendua mintz zelularren potentzial elektrikoa berrezarri egiten du. Halaber, estimulazio zelular bizia sortzen du gorputzaren konponketa prozesu naturala sortuz. Bestalde, ehunen basodilatazioak odol-fluxuaren handitzea, min sentazioa eta giharren tentsioa gutxitzea, toxinak kanporatzea eta edema drainatzea lortzen du (11. Taula).

**11. Taula. T.E.C.A.R. terapiaren efektu fisiologikoak.**


<b>Efektu fisiologikoak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mintz zelularren potentziala orekatu.</li> <li>- Fluxu intrazelularra eta extrazelularra orekatu.</li> <li>- Potentzial elektrolitikoak orekatu.</li> <li>- Kapilarren eta mintz plasmaticoaren iragazkortasuna orekatu.</li> <li>- Tanpoi sistemak orekatu.</li> <li>- Sistema sinpatikoa eta parasinpatikoa orekatu.</li> <li>- Toxinak kanporatzen eta immunostimulatuzaileen aktibazioa laguntzen du mekanismo erreflexuaren bitartez.</li> <li>- Hartu-eman intrazelularrak erregulatu.</li> <li>- Ehunen konpontzea azkartu.</li> <li>- Ehunen oxigenazioa, erradikal askeak erakartzen dituelako.</li> </ul>

**T.E.C.A.R. terapia energia hornidura motak eta erabiltzeko protokoloa**

Energia hornidura bi daude, alegia, transferentzia energetikoa kapazitiboa (sistema kapazitiboa) eta transferentzia energetikoa erresistiboa (sistema erresistiboa) (Hawamdeh, 2014).

- **Sistema kapazitiboa:** Bi elektrodo mota daude eta biak jarri behar dira; elektrodo pasiboa eta elektrodo aktiboa. Elektrodo pasiboa altzairu herdoilgaitzez egindako plaka bat da. Aldiz, bi elektrodo aktibo mota daude: elektrodo kapazitiboa eta plaka automatikoa, biak altzairu herdoilgaitzez eginda daude eta isolatzaile (poliamida) batez estalita daude. Plaka automatikoa azalaren gainean jartzen da eta banda elastiko batekin eusten da mugitu ez dadin (sistema kapazitiboa automatikoa). Aldiz, elektrodo kapazitiboa eskuarekin mugitzen da.

Transferentzia energetiko kapazitiboan erreakzio nagusia elektrodo aktiboaren azpian gertatzen da. Alde batetik, elektrodo kapazitiboak gehiegizko beroketa sortzen du poliamida isolatzaileagatik. Beste alde batetik, plaka aktiboak likidoen mugimendua sortzen du eta sistema linfatikoa eta baskularra aktibatzen ditu. Horrela, larruazalean eta erresistentzia gutxiko egituretan (ur kantitate altua duten ehunetan, giharretan adibidez) baskularizazioa gertatzen da (2. Irudia).



## 2. Irudia. T.E.C.A.R. terapiaren sistema kapazitiboa eta erresistiboa.

Berreskuratuta: <https://capenergy.com/es/productos/la-tecnologia/fisiologia?v=04c19fa1e772>

- **Sistema erresistiboa:** Bi elektrodo mota daude eta biak jarri behar dira; elektrodo pasiboa eta elektrodo aktiboa. Elektrodo pasiboa (plaka bat da) eta elektrodo aktiboa altzairu herdoilgaitzez eginda daude.

Transferentzia energetiko erresistiboan erreakziorik nagusiena erresistentzia gehien sortzen den egituretan gertatuko da (elektrodo erresistiboa eta plaka pasiboaren artean), hau da, hezurretan, lotuneetan, lotailuetan edo fibrosia dagoen egituretan. Hezurak eta lotuneak dentsitate altua dute eta ur kantitate gutxikoak dira, beraz, erresistentzia gehien jarriko duten egiturak dira (2.Irudia).

T.E.C.A.R. terapia jasotzen duen subjektuak beroa igarri dezake eta bero sentazio hori hainbat faktoreen menpe egon daiteke; besteak beste, erabiltzen den maiztasunaren arabera, potentziaren arabera, elektrodoaren tamainaren eta motaren arabera, elektrodoa kokatzen den tokiaren arabera eta elektrodoa mugitzen den abiaduraren arabera.

T.E.C.A.R. terapia erabiltzen denean hurrengo irizpideak jarraitzea gomendatzen da:

- Tratamenduak orokorrean transferentzia energetiko kapazitiboarekin hasi behar dira (5-10 minutu), transferentzia energetiko erresistiboarekin jarraitu (15-20 minutu) eta transferentzia energetiko kapazitiboarekin bukatu (5-10 minutu).
- Erabiltzen den potentzia patologiarren fasearen arabera izango da, hots, patologia akutuetan potentzia baxua erabiliko da eta patologia kronikoetan, hipertermia sortu dadin, potentzia altua erabiliko da.

- Elektrodoen kokapena: Landu nahi den azaleraren arabera elektrodoen tamaina eta kokapena kontutan hartu behar da. Elektrodoak era koplanarrean jartzen badira erreakzioak superfizialagoak dira eta, gero eta urrunago jarriz gero, temperatura igotzeko potentzia gehiago behar izango da.
- Maiztasuna gero eta altuagoa denean, barneratzea txikiagoa izango da eta gainazaleko xurgapena handiagoa.
- Elektrodoak gero eta astiroago mugitzen badira temperatura gehiago igoko da.

### **T.E.C.A.R. terapiaren kontraindikazioak**

T.E.C.A.R terapiak hainbat kontraindikazio ditu (12. Taula):

**12. Taula.** T.E.C.A.R. terapiaren kontraindikazioak.

<b>T.E.C.A.R. terapiaren kontraindikazioak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haurdun egotea.</li> <li>- Taupada-markagailuak.</li> <li>- Protesi metalikoak eremu magnetikoaren barruan.</li> <li>- Arteriopatia desorekatuak.</li> <li>- Neoplasia gaiztoak.</li> <li>- Infekzio aktiboak.</li> <li>- Sentsibilitate arazoak izatea.</li> </ul>

## **2.2 Lasterketaren parametro desberdinak**

Korrikalarien eraginkortasuna neurtu nahi denean, haien erantzun objektibo metabolikoak (sistema kardiobaskularra eta arnas sistema) eta biomekanikoak aztertzen dira (Santos-Concejero eta lank., 2013b; Santos-Concejero eta lank., 2014b; Wilmore eta Costill, 2007). Bestalde, kirolarien esfortzuaren pertzepzioa (subjektiboa) aztertzea ere gomendagarria izan daiteke (Borg, 1970), kirolariek hautematen dutena eta neurketa objektiboen emaitzak amankomunean jartzeko.

## 2.2.1 Parametro biomekanikoak

### **Martxaren zikloa**

Martxaren ziklo bat oin berdinarekin bi kontaktuek osatzen dute, alegia, oin batek lurrarekin kontaktua egiten duenetik, oin berdinarak lurra berriz ukitzen duen arte luzatzen da (Dillman, 1975).

Oinkada bakoitzaren aldagai zinematikoak bi fasetan banatzen dira, kontaktu fasea (3. Irudia) eta hegaldi fasea, % 60-a eta % 40-a, hurrenez hurren (Inman, Ralston eta Todd, 1981; Lara, Angulo eta Llanos, 1996; Novacheck, 1998; Slocum eta James, 1968; Tsujino, 1966; Viel, 2002):

- **Kontaktu fasea (% 60):**




### **3. Irudia.** Martxaren zikloaren kontaktu fasea.

Viel, E. (2002). *La marcha humana, la carrera y el salto: Biomecánica, exploraciones, normas y alteraciones* [Argazkia].

1. Lurreratze fasea: Oinaren edozein parte, orokorrean orpoa (oinaren erdiko partea edo aurreko partea ere izan daiteke), lurra ukitzen duenetik (orpo kolpea), oin osoa lurra ukitzen duen arte (oina bermatzea).

Hasierako kontaktuan, lurretik datorren erreakzio indar bektorearen kontaktu puntua orkatilaren atzetik pasatzen da (kalkaneoaren inguruan) eta gora igotzen da atzetik aurrera, alegia, belauna zeharkatzen du eta aldakaren aurretik pasatzen da (4. Irudia).





#### 4. Irudia. Lurreratze fasearen hasiera.

Viel, E. (2002). *La marcha humana, la carrera y el salto: Biomecánica, exploraciones, normas y alteraciones* [Argazkia].

Hasierako kontaktuan orkatila (giltzadura tibioastragalinoa) posizio neutroan edo neurrizko flexioan dago. Era berean, belauna neurrizko flexioan eta aldaka flexioan daude.

Orkatilak flexionatzeko joera du eta, hori konpentsatu nahian, gihar pretibialak uzkuritu egiten dira (aurreko tibiala, behatzen hedatzaileak eta behatz lodiaren hedatzailea). Halaber, uzkurdura eszentriko honek oinaren puntaren jaisiera geldiarazten du energia xurgatuz. Belaunean, flexoreen (semitendinoso, semimenbranoso eta biceps femoralak) eta hedatzaileen (koadrizepa eta sartorioa) arteko oreka gertatzen da lurraren kontrako kolpea xurgatzeko. Lurretik sortutako erreakzio indarra aldakaren flexioa sortzen du eta gluteo nagusiak eta iskiotibialak hori konpentsatzen dute.

2. Bermatze fasea: Oin osoa lurra ukitzen duenetik (oina bermatzea) orpoa aireratu arte (orpoa aireratu).

Hasierako bermatzea egiten denean, lurretik datorren erreakzio indar bektorea orkatilaren erditik, belaunaren atzetik eta aldakaren aurretik pasatzen da (5. Irudia).



### 5. Irudia. Bermatze fasearen hasiera.

Viel, E. (2002). *La marcha humana, la carrera y el salto: Biomecánica, exploraciones, normas y alteraciones* [Argazkia].

Belaunaren gehiegizko flexioa saihesteko eta kolpea xurgatzeko koadrizepsaren barneko eta kanpoko giharren, eta zuzen femoralaren uzkurketa eszentrikoa gertatzen da (belauna pixkat flexionatuago). Aurreko zuzenaren uzkurketa ez da hain nabaria, aldakan gertatzen den estentsioa mugatuko baitluke. Bestalde, pelbisa gora egiten du karga egiten den hankan aldaka addukzioa egiten duen bitartean. Ondoren, bermatze fasean zehar addutore luzearen eta nagusiaren ekintza elektromiografikoa gutxitzen doa. Gluteo nagusiak eta iskiotibialak uzkurketa maximoa dute eta hemendik aurrera gutxitzen joango da aldakaren estentsioa era pasiboan gertatzen baita bermatze fasean. Bestalde, gluteo ertainak uzkurketa eszentrikoa eginez pelbisa egonkortzen du baskula kontralaterala saihestuz. Lata fasziaren tentsioak (LFT) eta lotailu ehunek belaunaren baroa kontrolatzen dute.

Orkatilak ebetsio mugimendura joko du alboko peroneo luzearen eraginez. Mugimendu honen bidez, kolpea xurgatuko da eta bermatze azalera egokituko da (arku plantarra gutxituko da). Horrela, tibiai eta belaunak gorputzeko ardatz zentralera biratuko dira eta belaunean gertatutako flexioak pelbisa aurrera eramatea eragina du.

Oina guztiz bermatuta dagoenean, lurretik datorren erreakzio indar bektorea orkatilaren aurretik, belaunaren erditik eta aldakaren atzetik pasatzen da (6. Irudia).



### 6. Irudia. Oin osoa lurrean bermatzen denean.

Viel, E. (2002). *La marcha humana, la carrera y el salto: Biomecánica, exploraciones, normas y alteraciones* [Argazkia].


Trizeps suralak egiten duen uzkurketa eszentrikoak, alde batetik, tibiai aurreratzea laguntzen du eta, horrek, orkatila era pasiboan flexio-dorsalera eramatea eragiten du. Gastroknemioak belaunean eragin handiagoa dute eta soleoak, aldiz, giltzadura tibioastragalinoa, belauna eta aldaka egonkortzen ditu (estentsioan).

Bikiak eszentrikoki uzkurtzen dira tibiaren aurreratzea gelditzeko eta aurreko zuzenaren neurrizko uzkurketa ematen da. Gluteo nagusiak eta iskiotibialak aldaka estentsioan mantentzen dute.

Momentu honetan, adduktoreak funtziorik handiena egiten dute (pelbisa altuerarik nagusia hartzen du) eta abduktoreak (gluteo ertaina eta txikia, piramidala eta LFT) hori saihesten dute. Horrela, LFT belaunaren eta aldakaren mugimenduak kontrolatzen ditu. Atzeko tibialak eta peroneoak gehiegizko pronosupinazioa eta arku plantarren amiltzea saihesten dituzte. Horrela, oinaren aurreko partea finkatuko da eta fulkro gisa, zentro-presioak metatarsianoen buruen aurretik eta medialetik pasatuko dira.

3. Propulsió fasea: Orpoa aireratzeko denetik (orpoa aireratu) Hallux-a aireratu arte (oina aireratzea).

Lurretik datorren erreakzio indar bektorea orkatilaren aurreko partetik pasatzen da (metatarsianoetatik), belaunaren aurretik eta aldakaren erditik (7. Irudia).




**7. Irudia.** Propulsio fasearen hasiera. Viel, E. (2002).

Viel, E. (2002). *La marcha humana, la carrera y el salto: Biomecánica, exploraciones, normas y alteraciones* [Argazkia].

Trizeps suralaren uzkurketa kontzentrikoari esker orpoa aireratzten da eta gorputz-masa aurrera doa oinaren aurreko partean pibotea eginez. Izan ere, atzeko tibialak, peroneoek eta behatzen flexore luzeak ere parte hartzen dute sinergista gisa. Halaber, trizeps suralaren uzkurketak belauna desblokeatzea eragiten du. Aldakaren flexoreek (iliopsoasa eta aurreko zuzena) pausoa ematea eragiten dute. Aurreko zuzenak lotune distalean eszentrikoki belauna egonkortzen du eta kontzentrikoki lotune proximalean aldakaren flexioa handitzen du. Horrela, aldakaren flexioak hanka aurrera eramatea eragiten du eta belaunaren flexioa inertziaren laguntzagatik automatikoki gertatuko da. Energia belaunetik aldakara transferitu egiten da.

Orpoa lurretik altxatzerakoan, femurra barne errotazio erlatibo batean dago eta kanpo errotazio erlatibora eramateko adduktoreak lan egiten dute, beheko gorputz-adarra egonkortzeko eta izterra aurrera eramateko. Halaber, aldaka estentsioan dagoenez flexiora eramateko uzkurtuko dira iliopsoasarekin eta aurreko zuzenarekin batera.

Presiorik handiena bigarren metatarsianoan dago (oinzola plantarra eta oinaren gihar intrintsekoak) eta azken kontaktua behatz lodiaren mamiarekin egiten da. Horrela, lurretik datorren erreakzio indar bektorea belaunaren flexioa laguntzen du eta izterra bizkortu egiten denean hanka inertziari esker altxatzen da (8. Irudia).



### 8. Irudia. Propulsio fasearen bukaera.

Viel, E. (2002). *La marcha humana, la carrera y el salto: Biomecánica, exploraciones, normas y alteraciones* [Argazkia].

- **Hegaldi fasea (% 40):** Hallux-a aireratzen denetik (oina aireratzea), oinaren edozein parte, orokorrean orpoa (oinaren erdiko partea edo aurreko partea ere izan daiteke), lurra ukitzen duen arte (orpo kolpea).

Oina aireratzen denean, aurreko tibialak eta lehenengo behatzaren hedatzaileak uzkurtzen dira oinaren flexio-dortsala egiteko. Halaber, iliopsoasak, adduktore ertainak, sartorioak eta barneko zuzenak aldakaren flexioa eragiten dute, hankaren aurreratzea eraginez. Era berean, aurreko zuzenak aldaka eta belauna flexionatuko ditu eta ondoren belaunaren flexioa geldituko du.

Oina lurrera bideratzean iskiotibialak, koadrizepsaren barneko eta kanpoko giharrak eta aurreko zuzena uzkurtzen dira hankaren aurreratzea gelditzeko eta lurraren kontrako kolpea leuntzeko. Horrela, koadrizepsak belaunaren estentsioa eragiten du eta aurreko tibialak orkatila posizio neutroan egotea eragiten du, oina lurrean kontaktu egitean posizio egokian egin ahal izateko.

Neke muskularrak giza lokomozioan (ibilketan eta korrika egiterakoan) aldaketak eragiten ditu biomekanika aldatuz. Nekea egoera patologikoetan agertu daiteke (patologia muskularrean edo neurologikoan) edo eguneroko ariketa fisikoa egiten denean (Zakaria, El Badaoui, Lamraoui eta Khalil, 2016). Izan ere, enborreko giharren nekeak enborraren flexioa eta inklinazioa sortzen ditu eta, horrek, korrika egiterakoan aldaketa biomekanikoak sortzen ditu (Hart, Kerrigan, Fritz eta Ingersoll, 2009). Bestalde, hainbat faktore biomekanikok eragina dute korrika errendimenduan eta, are gehiago, lasterketa ekonomiarekin erlazionatuta daudela

ikusi da (Williams, 2007). Adibidez, kontaktu fase handiagoa  $VO_2$  handiagoarekin korrelazionatzen dela ikusi da (Nummela, Keränen eta Mikkelsen, 2007; Saunders eta lank., 2004). Era berean, oszilazio bertikal txikiagoak (Williams eta Cavanagh, 1987), pausoaren luzera handiagoak, aldaketa txikiagoak abiaduran kontaktu fasean eta indar gutxiago zoru kontaktu indar erreazioan lasterketa ekonomiarekin erlazionatu izan dira (Anderson, 1996). Antzera, kontaktu denbora handiagoak eta dezelerazio handiagoak kostu energetiko metabolikoa handiagoa eskatzen dute (Nummela eta lank., 2007).

Santos-Concejero eta lankideen (2013b) ikerketaren arabera, hegaldi denbora eta oinkada luzera, eta angelua eta propulzio subfasearen iraupena lasterketa ekonomiarekin negatiboki korrelazionatuta daude. Aldiz, kontaktu denbora eta oinkada maiztasuna lasterketa ekonomiarekin positiboki korrelazionatuta daude. Horrenbestez, korrikalarietan hegaldi denbora luzeagoak, oinkada luzera eta angelu handiagoak eta maiztasun eta kontaktu denbora txikiagoak energia erabilera eraginkorragoa eragiten dutela ikusi da (Santos-Concejero eta lank., 2014a; Santos-Concejero eta lank., 2013b).

### 2.2.2 Parametro fisiologikoak

#### **Pultsuaren oximetria**

Pultsuaren oximetria oxigeno asetasunaren ( $SpO_2$ , ingeleratik *Spot Oxygen Saturation*) bitartez neurtzen da, hau da, odolean dagoen oxigenoaren presio partziala da. Teknika honek arteriaren odol-fluxuak eta bihotzaren taupaden pultsuak sortzen dituen seinale pultsatilaren aldaketak aztertzen ditu (Jensen, Onyskiw eta Prasad, 1998; Mendelson, 1992; Severinghaus, 1993). Horrela, atsedean egoeran oxigeno asetasuna odolean ia % 100 da (Montero, 2012).

Pultsioximetroa “clip-on” edo itsasgarria izan daitekeen zunda bat da, berrerabilgarria edo botatzekoa izan daitekeena, eta hatz batean, belarri gingilean, sudurrean edo seinale baskular egokia dagoen edozein lekutan jarri daiteke. Orokorrean, atzamarrean eta belarrian jartzen da baina atzamarretako sondak belarrietakoak baino hobekak direla egiaztatu da (Jensen eta lank., 1998).

#### **Bihotz-maiztasuna**

Bihotz-Maiztasuna (BM) denbora unitate bateko bihotzaren taupaden kopurua da, hots, bihotzaren barrunbeak betetzeko eta husteko ziklo oso bat egiteko behar den denbora unitateko (taupaden kopurua minutuko). Ekintza bat burutzen denean, gorputzak duen odol

eskaera asetzeko bihotzak egin behar duen esfortzuaren intentsitateari egiten dio erreferentzia (Wilmore eta Costill, 2007).

Ariketa fisikoa egiten denean, bihotzaren bentrakuluak indar gehiago garatu behar dute odolaren kontra, hau da, propietate sistolikoak areagotzen dira. Bestalde, BM areagotzean bentrakuluak betetzeko eta husteko denbora gutxiago du eta, horregatik, aurikulen funtzioa erabakigarria da. Orokorrean, kirolarien bihotzak tamaina handituz eta indar gehiago eginez egokitzen dira esfortzuaren eskaerei aurre egiteko (Montero, 2012).

Entrenamenduak sortutako egokitzapenak BM-aren aldaketen bitartez baloratu daitezke, ariketa fisikoa erregularra burutzen duten pertsonak egiten ez dutenek baino BM baxuagoa baitute adin berdina kontutan hartuz (Pérez eta Fernández, 1998). Halaber, entrenamenduak BM basala baxuagoa izateko joera izatea laguntzen du (Strauzenberg, 1981).

### **Arnas parametroak**

Oxigeno kontsumo absolutua ( $VO_2$ ) organismoak denbora unitateko erabiltzen duen oxigeno ( $O_2$ ) kantitatea da eta metabolismo aerobikoaren adierazlea izan daiteke. Izan ere, Hill-ek (1927) esfortzuaren intentsitatea eta  $VO_2$ -ren arteko korrelazio lineala dela ikusi zuen.  $VO_2$ -a sistema kardiobaskularrak giharretara  $O_2$ -a garraiatzeko duen gaitasunaren eta giharrek odoletik  $O_2$ -a erazteko gaitasunaren menpe dago (McArdle, Katch eta Katch, 1991).

$VO_2$ -a era absolutuan adierazi daiteke ( $ml\ O_2 \cdot min^{-1}$ ) edo gorputz masa kontutan hartuta ( $ml\ O_2 \cdot kg \cdot min^{-1}$ ). Azken honi, oxigeno kontsumo erlatiboa ( $VO_2/kg$ ) deritzo. Ariketa fisikoa egitean  $VO_2$  handituz doa oreka puntu batera heldu arte. Oreka puntu honetara intentsitate submaximoan bi minutu igarotzean heltzen da (Peronnet eta Thibault, 1989; Wilmore eta Costill, 2007). Oreka puntu hori lortu arte, organismoak sistema anaerobiokotik datorren energiaren baliatzen da,  $O_2$  zorrak sortuz.

Atseden egoeran,  $VO_2$  absolutua  $300\ ml\ O_2 \cdot min^{-1}$ -koa da eta esfortzuaren intentsitatea handitzen denean  $VO_2$  proportzionalki handitzen da, hots, 10-15 aldiz handitu daiteke atseden egoerarekin konparatuz. Horrela, pertsona gazte entrenatu baten  $VO_2$  absolutua esfortzu maximoan  $4500\ ml\ O_2 \cdot min^{-1}$ -koa izan daiteke (Calderón, 2012).

Beste aldagai bat gastu kardiakoa da eta Fick-en printzipioaren bidez neurtzen da hurrengo ekuazioaren bitartez (Fick, 1870):

$$VO_2 (ml\ O_2 \cdot min^{-1}) = Qc (ml\ odolean \cdot min^{-1}) \times (Ba\ O_2 - Bz\ O_2) (ml\ O_2 \cdot ml\ odolean^{-1})$$

Qc gastu kardiako maximoa da; bihotz-maiztasuna (taupadak·min<sup>-1</sup>) bider eiekzio sistolikoaren bolumena (ml odol·taupadak<sup>-1</sup>) eta (Ba O<sub>2</sub>-Bz O<sub>2</sub>) arterien eta zainen odolean dagoen O<sub>2</sub> diferentzia da.

Pertsona batek ariketa fisikoa egiten duenean giharren behar metabolikoa handitzen du, hots, VO<sub>2</sub> lokala eta totala handitzen da giharrek gorputz pisuaren portzentai altu bat okupatzen dutelako. Horrela, VO<sub>2</sub>-ren handitzea ematen da bentilazioa osoa, gastu kardiakoa eta arterien eta zainen odolean dagoen O<sub>2</sub> kantitatearen arteko diferentziaren handitzeagatik (Calderón, 2012).

Oxigeno kontsumo maximoa (VO<sub>2</sub> max) denbora zehatz batean gure organismoak xurgatu, garraiatu eta kontsumitu dezakeen oxigeno kopuru maximoa da, hau da, gure organismoak odolera garraiatu eta metabolizatu dezakeen oxigeno kopuru maximoa. Pertsona baten ahalmen aerobikoa kalkulatzeko metodo zehatzena da. VO<sub>2</sub> maximoa bihotz-maiztasunarekin erlazionatuta dago; gero eta VO<sub>2</sub> max handiagoa izan, ahalmen kardiobaskularra orduan eta handiagoa izango da. Intentsitatea handitzen joan ahala bihotz-maiztasuna handitzen da eta, era berean, giharrek oxigeno eta nutriente gehiago eskatzen dituzte. Gorputzak oxigenoa behar duenez arnasketa azkartu egiten da oxigeno falta horri aurre egiteko, baina gorputzak muga bat du eta muga hori VO<sub>2</sub> maximoa da, alegia, erabiltzeko gai den oxigeno kantitate maximoa (Wilmore eta Costill, 2007).

Beste arnas parametro batzuk ere badaude: Bolumen Arruntaren (B<sub>A</sub>) eta arnas maiztasunaren (RR, ingeleratik *Respiratory Rate*; arnasketa kopurua·min<sup>-1</sup>) arteko erlazioa aireztapen bolumena (V<sub>E</sub>) da. V<sub>E</sub>-ren kontrola arnasa hartzen den kantitatea (arnasa hartzeko fluxua) eta arnasa botatzen den kantitatea (arnasa botatzeko fluxua) da. V<sub>E</sub> hurrengo eran adierazten da (Wilmore eta Costill, 2007):

$$V_E = B_A \times RR = B_A \times 1/RR = B_A \times 1/D_H + D_B$$

Arnas maiztasuna (RR) arnaste denbora osoaren elkarrekikoa da eta hau, era berean, arnasa hartzeko denboraren (D<sub>H</sub>) eta arnasa botatzeko denboraren (D<sub>B</sub>) arteko batuketa da. Horrela, B<sub>A</sub>-n, D<sub>H</sub>-n edo D<sub>B</sub>-n gertatzen den edozein aldaketa B<sub>A</sub>-n eragina izango du. Ariketa fisikoa % 50-aren intentsitatean (gutxi-gorabehera) egiten denean, V<sub>E</sub>, B<sub>A</sub> eta RR asko handitzen dira. Ondoren, B<sub>A</sub> egonkortzen da eta RR era neurrigabean handitzen da, ondorioz, V<sub>E</sub> eta intentsitatearen arteko proportzio lineala galtzen da. Horrela, bi fase deskribatzen dira: azkarra eta motela. Lehenengoan, fase azkarrean, V<sub>E</sub> asko handitu egiten da denborarekiko eta horregatik fase azkarra deritzo. Intentsitate altuko ariketa fisikoa hasi baino lehen ematen da eta bi helburu ditu; organismoak aire nahikoa izatea honen beharrak ezagutu baino lehen eta



aparatu lokomotorea eta oxigenoa ematen duen sistemaren arteko lotura egitea. Bigarreanean, fase motelean,  $V_E$ -ren handitzea denborarekiko txikiagoa da eta horregatik fase motela deritzo. Sistema lokomotoreak gorputzaren beharrak ezagutzen ditu eta  $V_E$  era egoki batean doitzen da. Errekuperazio prozesuan ere bi faseak ematen dira. Ariketa fisikoaren intentsitatea egonkorra denean, fase motela ariketa fisikoa bukatu arte luzatzen da; baina ariketa fisikoaren intentsitatea era progresibo batean handitzen denean, ergoespirometria maximoak diren probetan gertatzen den moduan,  $V_E$  era proportzional batean handitu egiten da proportzionaltasun hori galtzen duen intentsitatea lortu arte. Intentsitatea gero eta handiago denean,  $B_A$  gutxitu egiten da  $D_H$  eta  $D_B$  gutxitu egiten direlako. Hala ere,  $D_H/D_B$ -ren arteko erlazioa atsedean egoera 0.4/0.55 artekoa da esfortzu maximoan. Beraz,  $D_H$  eta  $D_B$ -ren gutxipena ez da berdina (Montero, 2012).

Aireztapen bolumenaren ( $V_E$ ) eta ehunak kontsumitutako  $O_2$ -aren arteko proportzioak ( $VO_2$ ) oxigenoaren ekonomia adierazten du. Oro har, oxigeno aireztapen baliokidea deitzen zaio ( $V_E/VO_2$ ). Orokorrean, arnastutako aire kantitatea litrotan zati kontsumitutako oxigenoa litrotan adierazten da. Atsedean egoeran, 23-28 L kontsumitutako oxigeno litro bakoitzeko izan daiteke eta intentsitate baxua duten ariketak egitean ez da asko aldatzen. Baina esfortzuaren intentsitatea handitzen denean (maximora hurbiltzean) 30 L aire izan daiteke kontsumitutako oxigeno litro bakoitzeko (Wilmore eta Costill, 2007).

Ariketa fisikoaren intentsitatea handitzen denean eta maximora hurbiltzen denean, momentu batean aireztapena modu neurrigabean handitzen da oxigeno kontsumoarekin konparatuz. Puntu honi jasan daitekeen aireztapen tentsio maximoa deritzo. Honek, karbono dioxidoaren produkzioaren ( $VCO_2$ ) handitzea islatzen du. Horrela, handitu egingo da karbono dioxidoaren produkzioa eta oxigeno kontsumoaren arteko proportzioa, alegia, arnas truke ratioa (RER, ingeleratik *Respiratory Exchange Ratio*;  $VCO_2/VO_2$ ). Karbono dioxidoaren produkzio handiagoa den heinean RER-a ere handituko da. Orokorrean, atsedean egoeran RER-a 0.78-0.80-koa da. Ostera, ariketa fisikoa egiten denean giharrak karbohidratoak behar dituztenez energia sortzeko, RER kantitatea handitu egingo da. Beraz, ariketa fisikoaren intentsitatea handitzean, karbohidrato beharrak ere handitzen dira RER-aren balorea 1-era hurbilduz. Honek, odolean zenbateko glukosa eta gihar glukogeno dagoen islatzen du. Era berean, giharrak sortzen dutena baino  $CO_2$  gehiago ailegatzen zaio odolari. Neke puntura heltzean laktatoa odolean pilatzen da eta azidifikazio hori saihesteko, organismoak  $CO_2$  gehiago sortzen du. Ondorioz, gehiegizko  $CO_2$ -a biriketetan sartzen da espirazioan gorputzetik kanporatzeko, hots, kanporatzen den  $CO_2$  kantitatea handitzen da eta RER balorea 1-era heltzen da. Horrela,

kontsumo energetikoaren baliozpena egin daiteke. Metodo honi kalorimetria ez-zuzena deritzo, ekoiztutako beroa ez baita era zuzenean neurtzen (Wilmore eta Costill, 2007).

Karbono dioxidoaren bat-bateko handitzeak metabolismoak bide anaerobikoa erabiltzen duela islatzen du eta, hori dela eta, atalase anaerobikoa izena jarri zioten (Wasserman eta McIlroy, 1964). Atalase anaerobikoa identifikatzeko aireztatutako oxigeno baliokidea ( $V_E/VO_2$ ) eta aireztatutako karbono dioxidoaren baliokidea ( $V_E/VCO_2$ ) kontutan hartu behar dira.  $V_E/VCO_2$  aireztatutako airea kantitatearen eta karbono dioxidoaren produkzioaren arteko proportzioa da. Horrela, atalase anaerobikoa  $V_E/VO_2$ -ren handitze sistematikoa eta  $V_E/VCO_2$  ez handitzean ematen denean gertatzen da (Davis, 1985). Gorputzak duen oxigeno beharra asetzeko eta  $CO_2$  kanporatzeko bentilazioa handitzen da. Horrela,  $V_E/VO_2$  gero eta txikiagoa izan, orduan eta  $O_2$ -ren bolumena kontsumitzeko aire gutxiago aireztatu behar da, ondorioz, hemostasia eraginkorra ematen da (Wilmore eta Costill, 2007). Adibidez, entrenamendu maila eta  $V_E/VO_2$ -ren arteko erlazioa proportzionala dela ikusi da, hots,  $O_2$ -ren erauzketa optimoarekin lotuta egon daitekeena (Art eta Lekeux, 1993; Fringer eta Stull, 1974; Myers eta lank., 2002).

### 2.2.3 Beste parametro fisiologikoak

#### **Lasterketa ekonomia**


Abiadura zehatz batean erabiltzen den oxigeno kontsumo erlatiboari ( $VO_2/kg$ ) lasterketa ekonomia (RE, ingeleratik *Running Economy*) deritzo (Daniels, 1985; Douglas eta Krahenbuhl, 1980; Saunders, Pyne, Telford eta Hawley, 2004). Lasterketa ekonomiak lasterketa abiadura jarraian eta submaximoan behar den energiaren beharra islatzen du. Horrela, RE ona duten korrikalariak, RE eskasagoa dutenek baino oxigeno gutxiago behar dute abiadura berdina mantentzeko (Thomas, Fernhall eta Granat, 1999). Are eta gehiago,  $VO_2$  maximoa antzekoa duten entrenatutako korrikalarietan % 30-eko desberdintasuna egon daiteke RE-n (Daniels, 1985). Halaber, RE erabilgarria izan daiteke lasterketaren errendimendua iragartzeko (Anderson, 1996; Daniels, 1985; Douglas eta Krahenbuhl, 1980; Morgan, Martin eta Krahenbuhl, 1989), batez ere,  $VO_2$  maximoa antzekoa duten korrikalarietan (Costill, Thomason eta Roberts, 1973; Douglas eta Krahenbuhl, 1980; Morgan, Baldini, Martin eta Kohrt, 1989).

Zaila da definitzea zer den lasterketa ekonomia ona, erdipurdikoa edo txarra. Izan ere, literaturan RE aztertzen duten ikerketak protokolo oso desberdinak erabiltzen dituzte. 13. taulan zehazten dira maila desberdinetako korrikalarien lasterketa ekonomia eta  $VO_2$  erlatibo-maximoa (Barnes eta Kilding, 2015).

Gainera, kontutan hartu behar da RE neurketa multifaktoriala dela, hots, hainbat faktorek eragina dute lasterketa ekonomian, besteak beste, funtzio metabolikoek, parametro biomekanikoek, ezaugarri neuromuskularrek eta arnas eta bihotz aparatuek (9. Irudia) (Anderson, 1996; Bonacci, Chapman, Blanch eta Vicenzino, 2009; Daniels, 1985; Saunders eta lank., 2004).

13. Taula. Lasterketa ekonomiaren eta VO<sub>2</sub> erlatibo-maximoaren balore adierazgarriak korrikalarien mailaren arabera.

Korrikalarien korrika mailaren sailkapena	Abiadura (km·ordu <sup>-1</sup> )	Gizonen batezbestekoa		Emakumezkoen batezbestekoa	
		Lasterketa ekonomia (ml O <sub>2</sub> ·kg·min <sup>-1</sup> )	VO <sub>2</sub> erlatibo-maximoa (ml O <sub>2</sub> ·kg·min <sup>-1</sup> )	Lasterketa ekonomia (ml O <sub>2</sub> ·kg·min <sup>-1</sup> )	VO <sub>2</sub> erlatibo-maximoa (ml O <sub>2</sub> ·kg·min <sup>-1</sup> )
<u>Gutxi</u>	12	42.2 (40.4-45.3)		43.2 (38.5-48.1)	
	14	47.4 (46.0-49.5)		47.3 (40.1-51.9)	
<u>Neurrizko</u>	12	40.7 (37.4-48.1)	62.2 (56.6-69.1)	41.9 (28.9-41.7)	55.8 (50.5-59.4)
	14	46.8 (42.0-55.5)		47.9 (41.3-53.5)	
	16	51.4 (51.6-62.3)		52.9 (45.7-61.0)	
<u>Asko</u>	12	Ez dago	70.8 (65.3-80.2)	41.3 (33.3-50.2)	61.7 (56.2-72.3)
	14	45.0 (32.4-56.5)		48.3 (39.0-56.7)	
	16	50.6 (40.5-66.8)		54.5 (46.2-61.9)	
	18	58.1 (48.0-72.0)		58.6 (54.4-67.1)	
	20	66.5 (65.7-71.6)		Ez dago	
<u>Elite</u>	14	39.9 (36.1-44.5)	75.4 (68.2-84.1)	41.9 (38.7-46.9)	66.2 (61.1-74.2)
	16	47.9 (43.2-53.4)		48.9 (45.1-55.8)	
	18	55.9 (50.5-62.3)		56.1 (51.8-63.8)	
	20	63.91 (57.5-71.2)		Ez dago	




9. Irudia. Lasterketa ekonomian eragina duten faktoreak.

## **Laktatoa**

Azido laktikoa (laktatoa, ionizatzen denean),  $\text{H}_3\text{C-CH(OH)-COOH}$  formula duen azido karboxilikoa da ( $\text{C}_3\text{H}_6\text{O}_3$ ). Hainbat prozesu biokimiko eta fisiologikotan agertzen da eta bi isomero optiko ditu: destrogiora (D-laktikoa) eta lebogiara (L-laktikoa), azken hau garrantzi biologikoa duena (Dawson, Elliott, Elliott eta Jones, 1969).

Oxigenorik ez dagoenean, zelulak energia lortzeko karbohidratoen katabolizazioa egiten du eta glukosa oxidatzen du (glukolisia) (ATP, ingeleratik *Adenosin Triphosphate*). Glukolisian sortutako azido pirubikoa ez da Krebs zikloan sartzen eta, horren ordez, zitoplasma zelularrean laktato deshidrogenasa entzimak (LDH) azido pirubikoa laktatoa bihurtzen du zelularen hialoplasman. Pirubatoa laktatoa bihurtzen du nikotinamida adenina dinukleotidoaren (NADH)  $\text{H}^+$  bat onartuz. Horrela, redox zelularra berrezarri egiten da eta glukolisia ez da blokeatzen  $\text{NAD}^+$ -rik ez dagoelako.



Azido laktikoak  $\text{H}^+$  askatzen duenean, sortzen den konposatua  $\text{Na}^+$ -arekin eta  $\text{K}^+$ -arekin elkartzen da gatza sortzeko. Anaerobikoa den glukolisia azido laktikoa sortzen du, baina oso azkar disoziatu egiten denez gatza sortzen da, hots, laktatoa. Horregatik, azido laktikoa eta laktatoa askotan era berean erabiltzen dira. Atsedendian, laktatoaren maila odolean  $1\text{-}2 \text{ mmol}\cdot\text{l}^{-1}$ -koa da, baina ariketa fisikoarekin  $25 \text{ mmol}\cdot\text{l}^{-1}$ -era heldu daiteke. Ariketa handia denean muskulu ehunetan oxigeno-maila nabarmen gutxitzen da, eta oxigenorik gabeko hartidura laktikoa nagusitzen da (Wilmore eta Costill, 2007).

Ariketa fisikoa egiten denean, laktatoak giharren azidosiaren erregulatzaila ez-zuzena da eta energia eraginkorra sortzeko gaitasuna du. Seinalizatzeko molekula gisa, HIF-1 (ingeleratik *Hypoxia Inducible Factor 1*), PGC-1 $\alpha$  eta beste seinale anabolikoekin parte hartzen du eta burmuinean, nahiz eta laktatoak burutzen duen lana oraindik oso ondo ulertzen ez den, norepinefrina eta burmuinaren plastizitatean funtzio garrantzitsuak burutzen ditu (Nalbandian eta Takeda, 2016).

## **Laktatorean atalasea**

Ariketa fisikoa egiten denean, laktato kantitatea handitzen da. Laktatoa egoera egonkor nagusienean mantentzen den momentuari laktatoaren atalasea deritzo (MLSS, ingeleratik *Maximal Lactate Steady-State*) (Heck eta lank., 1985). Puntu hau Mader eta lankideek (1976) proposatu zuten eta OBLA puntua izendatu zuen (ingeleratik *Onset of Blood Lactate*

*Accumulation*) (Sjödín eta Jacobs, 1981). Laktatoa egoera egonkor batean mantendu ahal den lan-karga maximoa adierazten du (Figueira, Caputo, Pelarigo eta Denadai, 2008) eta neurrizko intentsitate batetik intentsitate altuko dagokion ariketa fisikoaren trantsizio puntuari egiten dio erreferentzia (Chmura eta Nazar, 2010).

Ariketa fisikoan eta zehatzago errendimenduan,  $VO_2$  maximoa eta RE baino erabilgarriagoa izaten da laktato kontzentrazioa era adierazgarri batean handitzen deneko momentuan (OBLA, ingeleratik *Onset of Blood Lactate Accumulation*) (Fay, Londeree, LaFontaine eta Volek, 1989; Grant, Craig, Wilson eta Aitchison, 1997; Heck eta lank., 1985; Tanaka eta lank., 1984). Hori dela eta, tradizionalki entrenamenduen lan-karga zehazteko erabili den faktore garrantzitsu bat izan da (Billat, 2002).

#### 2.2.4 Esfortzuaren pertzepzioa

Eguneroko entrenamenduak, intentsitate altuko entrenamenduak, distantzia luzeko lasterketak eta txapelketak zama handia sortu dezakete korrikalarietan. Hori dela eta, korrika egin ostean errekupeazioa ezinbestekoa da (Barnett, 2006; Halson eta Jeukendrup, 2004). Korrika egitean burutzen diren uzkurdura eszentrikoek gihar egituraren aldaketak eragiten dituzte eta uzkurdura propietateetan eragina dute (Nicol, Avela eta Komi, 2006). Ondorioz, ariketa fisikoaren ondorengo egunetan aldaketa hauek min muskularrean (DOMS, ingeleratik *Delayed Onset Muscular Soreness*), pertzepzio fisiologikoan eta subjektiboan eragina dute (Cheung, Hume eta Maxwell, 2003; Jakeman, Byrne eta Eston, 2010; Sellwood eta lank., 2007). Gainera, indarra egiteko gaitasun maximoa gutxitzen da. Indar galera hau ariketak sortutako min muskularraren adierazle izan daiteke (Gauche eta lank., 2006).

Jarduera fisikoa egiten ari den pertsonaren esfortzuaren pertzepzio maila era subjektiboan neurtu nahi denean Borg eskala (RPE, ingeleratik *Rating of Perceived Exertion*) erabiltzen da (Borg, 1970). Hain zuzen ere, *American Heart Association (AHA)* eta *American Collage of Sports Medicine (ACSM)* gidak erresistentziazko ariketa egiten denean gazteen eta adinduen erantzun kardiobaskularrak monitorizazioa gomendatzen dute, hots, bihotz-maiztasuna, odol presioa eta esfortzuaren pertzepzioa neurtzea gomendatzen dute (Pollock eta lank., 2000; Williams eta lank., 2007). Horrela, esfortzua egiten ari den subjektuak 0-tik 10-era zenbaki baten bidez bere lanaren intentsitatearen pertzepzio subjektiboa adierazi dezake (Borg, 1970).





# Helburuak





### 3 HELBURUAK

Edozein kirolean arrakasta izateko entrenamenduaren eta errekupeazioaren arteko oreka egon behar da. Entrenamenduen osteko errekupeazio desegokiak kirolariengan estres fisiologiko handia, gaikarga sintomak eta nekea eragin ditzake, errendimendua gutxituz (Reilly eta Ekblom, 2005). Beraz, entrenamenduen eta txapelketen arteko errekupeazioa egokia izatea gomendatzen da, eguneroko entrenamenduak ziurtatzeko eta lesionatzeko arriskuak murrizteko. Hori dela eta, ikerketa honen helburuak hurrengoak dira:

1. Intentsitate altuko entrenamendu baten ostean korrikalari popularretan masajea aplikatzen denean, parametro biomekanikoetan, fisiologikoetan, laktatoan, esfortzu pertzepzioan (kardiobaskularra eta muskularra) eta malgutasunean eragiten dituen aldaketak ezagutzea.
2. Intentsitate altuko entrenamendu baten ostean korrikalari popularretan ur hotzeko murgilketa aplikatzen denean, parametro biomekanikoetan, fisiologikoetan, laktatoan, esfortzu pertzepzioan (kardiobaskularra eta muskularra) eta malgutasunean eragiten dituen aldaketak ezagutzea.
3. Intentsitate altuko entrenamendu baten ostean korrikalari popularretan T.E.C.A.R. terapia aplikatzen denean, parametro biomekanikoetan, fisiologikoetan, laktatoan, esfortzu pertzepzioan (kardiobaskularra eta muskularra) eta malgutasunean eragiten dituen aldaketak ezagutzea.



# Material eta metodoak





## 4 MATERIAL ETA METODOAK

### 4.1 Etika batzordea

UPV/EHU-ko Gizakiekin egindako Ikerketarako Etika Batzordeak ikerketa lan hau onartu zuen, CEISH/313/2015/IRAZUSTAASTIAZARAN (1. Eranskina).

### 4.2 Lagina

Ikerketa honetan 48 subjektuk parte hartu zuten. Subjektu guztiak korrikalari popularrak eta gizonezkoak izan ziren.

Subjektuak hiru taldetan banatu ziren, hots, talde bakoitzean 16 subjektu zeuden. Talde bakoitzak interbentzio bat jaso zuen (masajea, ur hotzeko murgilketa edo T.E.C.A.R. terapia) subjektu bakoitza bere kontrola izanik. Hiru taldeen ezaugarriak (batezbestekoak eta desbideratze estandarrak) 14. Taulan zehazten dira.

Talde bakoitzaren erdia, hau da, 8 subjektu, kontrol taldeko partaide izan ziren lehenengo astean eta interbentzio taldeko partaide bigarren astean, eta alderantziz. Taldeen eta interbentzio motaren banaketa era errandomizatuan egin zen eta interbentzioa hasi aurretik partaide guztiek informazio baimena irakurri eta sinatu zuten (2. Eranskina). Era berean, galdetegi bat bete zuten, non haien datu pertsonalei buruz, aurrekari medikoei buruz eta kirol aurrekariari buruz galdetu zitzairen (3. Eranskina).

### 4.3 Inklusio eta baztertze irizpideak

- **Inklusio irizpideak** honako hauek izan ziren:
  - Gizona izatea.
  - Distantzia erdiko korrikalaria izatea.
  - 18 eta 55 urte bitartean izatea.
  - Lesio muskuluesketikorik ez izatea.
  - Gaixotasun larririk ez izatea.
- **Baztertze irizpideak** honako hauek izan ziren:
  - Ikerkuntza protokoloa betetzeko gai ez izatea.

- Masajea, ur hotzeko murgilketa (UHM) edota T.E.C.A.R. terapia tratamenduak jasotzeko kontraindikaziorik izatea.

**14. Taula.** Interbentzio talde bakoitzaren ezaugarriak (talde bakoitza bere kontrola dela kontutan izanda).

Korrikalarien ezaugarriak	Masajea taldea	UHM taldea	T.E.C.A.R taldea
	BB ± DE	BB ± DE	BB ± DE
Adina (urteak)	36.88 ± 10.98	34.13 ± 9.21	39.00 ± 9.51
Pisua (kg)	70.71 ± 8.86	70.59 ± 5.82	74.66 ± 4.58
Altuera (cm)	173.46 ± 5.88	173.86 ± 5.66	177.64 ± 3.39
Gorputz masa indizea (%)	23.44 ± 2.17	23.35 ± 1.46	23.67 ± 1.39
Gantz %	14.16 ± 2.10	15.66 ± 2.64	16.30 ± 3.61
Hezur %	15.99 ± 1.38	15.84 ± 1.13	15.63 ± 0.83
Gihar %	45.75 ± 1.96	44.40 ± 2.59	43.98 ± 3.21
Endormofia	3.60 ± 0.83	4.31 ± 1.06	4.31 ± 1.27
Mesomorfia	7.34 ± 1.26	7.14 ± 0.87	6.53 ± 0.98
Ektomorfia	2.22 ± 0.89	2.25 ± 0.74	2.32 ± 0.69
Urteak korrika	8.31 ± 9.73	6.97 ± 6.86	15.25 ± 9.75
Km/aste korrika	43.81 ± 16.09	51.75 ± 18.82	29.38 ± 13.32
Km/egun korrika	10.89 ± 2.94	11.34 ± 3.41	9.00 ± 1.21
Orduak/aste korrika	4.97 ± 2.01	5.47 ± 1.88	3.06 ± 1.00
Min/egun korrika	72.50 ± 24.56	73.13 ± 28.28	59.69 ± 13.35
Egunak/aste korrika	3.88 ± 1.04	4.25 ± 0.77	3.25 ± 1.29

BB, batezbestekoa; DE, desbideratze estandarra.



## 4.4 Materiala

### 4.4.1 Laborategiko materiala

- Estazio meteorologiko digitala: Festina FD0071, Bartzelona, Espainia.
- Pulsioximetroa: PalmSAT® 2500 Nonin Medical, Plymouth, Minnesota, Estatu Batuak.

### 4.4.2 Antropometria egiteko materiala

- Tallimetro eramangarria: Marsden HR1, Rotherham, Erresuma Batua.
- Baskula: Omron BF400, Bartzelona, Espainia.
- Plikometroa: Holltain 610, Crymych, Erresuma Batua.
- Kalibrea: Holltain 604, Crymych, Erresuma Batua.
- Zinta antropometrikoa: Medisave SGCE251502, Weymouth, Erresuma Batua.
- Arkatz dermikoa: Artdeco, Karlsfeld, Alemania.

### 4.4.3 Malgutasuna neurtzeko materiala

- Esku-ohea: Enraf Nonius Manumed Standard 3 atalekoa, Mostoles, Madril, Espainia.
- Goniometro hedagarria: Lafayette Gollehon 01135, Lafayette, Estatu Batuak.

### 4.4.4 Treadmill testa egiteko materiala

- Korrika egiteko zinta: Hp cosmos pulsar®p, Nussdorf-Traunstein, Alemania.
- Arnesa: HP cosmos pulsar®cos 14903-03-M, Nussdorf-Traunstein, Alemania.
- Datu biomekanikoak neurtzeko sistema optikoa: Optojump-next 1.10.18.0., Microgate, Bolzano, Italia.
- Gas-analizatzailea, metabolimetroa: Geratherm® ErgostikTM REE, Geschwenda, Alemania.
- Kalibrazio xiringa: Geratherm® 10.801 (3000ml ± 15ml), Geschwenda, Alemania.
- Gasak kalibratzeko bonbona: Medical Graphics Italia S.r.l, Sistemi Diagnostici Cardiorespiratori (CO<sub>2</sub> % 4 ± % 0.02; O<sub>2</sub> % 16% 02; N<sub>2</sub> gainontzekoa), Milano, Italia.
- Arnas-maskara: Hans Rudolph V2 Mask TM, small size, Shawnee, Kansas, Estatu Batuak.
- Arnas-maskarako zinta elastikoa: Hans Rudolph 201492, Shawnee, Kansas, Estatu

Batuak.

- Arnas-maskarako tutua: Geratherm® Ergolow 10.600, Geschwenda, Alemania.
- Bihotz-Maiztasuna (BM) neurtzeko haririk gabeko transmisorea: Pulstick Geratherm®, Geschwenda, Alemania.
- Bihotz-maiztasuna neurtzeko pultsometroa: Polar RS800, Kempele, Finlandia.
- Listua eta izerdia garbitzeko produktua: Korsorex® Plus, Medical Express, Sant Fruitós de Bages, Bartzelona, Espainia.

#### 4.4.5 Laktatoa neurtzeko materiala

- Talko-hautsik gabeko latex eskularruak: BV REF. 457-204, Medical Express, Sant Fruitós de Bages, Bartzelona, Espainia.
- Zelulosazko konpresak: BV (4 x 5 cm) REF. 135-047, Medical Express, Sant Fruitós de Bages, Bartzelona, Espainia.
- Xixtak: Accu-chek® Safe T Pro Plus, Sant Cugat del Vallés, Bartzelona, Espainia.
- Laktatoa neurtzeko laktatometroa eta tira erreaktiboak: Lactate Pro 2, Arkray, Kyoto, Japonia.
- Orratz erabiliak botatzeko ontzia: Biocompact 5 L, Consenur, Arganda del Rey, Madril, Espainia.

#### 4.4.6 Esfortzu pertzepzioa neurtzeko materiala

- Borg eskala (Borg, 1982).

#### 4.4.7 Masajea egiteko materiala

- Esku-ohea: Manumed Standard 3 atal, Enraf Nonius, Mostoles, Madril, Espainia.
- Burusi termikoa: REF. 471-001 (140 x 220 cm), Medical Express, Sant Fruitós de Bages, Bartzelona, Espainia.
- Ukendua: Erraz irristatzeko Capenergy ukendua, Sant Joan Despí, Bartzelona, Espainia.
- Zilindro erdia: Enraf Nonius A500426 (28 x 15 x 11 cm), Mostoles, Madril, Espainia.
- Esku-oharako papera: REF. 831-001, Medical Express, Sant Fruitós de Bages, Bartzelona, Espainia.
- Esku-papera: M2 harila REF. 650-017, Medical Express, Sant Fruitós de Bages, Bartzelona, Espainia.

- Metronomoa: Wittner Pirámide 816K, Alemania.
- Erlojua: Festina FD0071, Bartzelona, Espainia.

#### 4.4.8 Ur hotzeko murgilketa egiteko materiala

- Ontzia: 240 Litroko hondar ontzia (721 x 582 x 1069 mm) ICOMMERS SL, Burjasot, Valentzia, Espainia.
- Termometroa: REF. 168-100, Medical Express, Sant Fruitós de Bages, Bartzelona, Espainia.
- Eskuoihala: Seafor TA04-XXL, Forumsport, Leioa, Euskal Herria, Espainia.
- Hotzgailea: Zanussi, La Moraleja, Madril, Espainia.
- Tamaina handiko izotzak egiteko ontziak: Plastikozko ur botilak eta bidoiak.
- Erlojua: Festina FD0071, Bartzelona, Espainia.

#### 4.4.9 T.E.C.A.R. terapia egiteko materiala

- T.E.C.A.R. terapia egiteko makina: Capenergy C200, Sant Joan Despí, Bartzelona, Espainia.
- Esku-ohea: Manumed Standard 3 atal, Enraf Nonius, Mostoles, Madril, Espainia.
- Burusi termikoa: REF. 471-001 (140 x 220 cm), Medical Express, Sant Fruitós de Bages, Bartzelona, Espainia.
- Ukendua: Erraz irristatzeko Capenergy ukendua, Sant Joan Despí, Bartzelona, Espainia.
- Zilindro erdia: Enraf Nonius A500426 (28 x 15 x11 cm), Mostoles, Madril, Espainia.
- Esku-oharako papera: REF. 831-001, Medical Express, Sant Fruitós de Bages, Bartzelona, Espainia.
- Esku-papera: M2 harila REF. 650-017, Medical Express, Sant Fruitós de Bages, Bartzelona, Espainia.
- Metronomoa: Wittner Pirámide 816K, Alemania.
- Erlojua: Festina FD0071, Bartzelona, Espainia.



#### 4.4.10 Material informatikoa

- Datu biomekanikoak lortzeko ordenagailua: HP® ProtectSmart, Palo Alto, Kalifornia, Estatu Batuak.
- Datu biomekanikoak lortzeko softwarea: Optojump Next, Microgate, Bolzano, Italia.
- Gasen datuak lortzeko ordenagailua eta pantaila: Dell OptiPlex 7010 eta Dell P1913Sb, Limerick, Irlanda.
- Arnas aparatuen datuak lortzeko softwarea: Blue Cherry Geratherm®, Geschwenda, Alemania.
- Ordenagailu portatila HP® Elite Book 840, Palo Alto, California, Estatu Batuak.
- IBM Statistical Package for Social Sciences Statistics (SPSS) 23.0, Armonk, North Castle, Nueva York, Estatu Batuak.
- Microsoft Excel 2007, Redmond, Washington, Estatu Batuak.
- ProQuest Refworks.

#### 4.5 Metodoa

##### 4.5.1 Ikerkuntza protokoloaren laburpena

Ikerkuntza protokoloa bi astetan banatu zen eta balorazioak 4 momentutan egin ziren (10. Irudia eta 15. Taula). Balorazio egunetan ingurunearen baldintzak antzekok izan ziren: tenperatura eta hezetasuna 22°C eta % 48-koa izan ziren, hurrenez hurren. Balorazioak 2014ko urtarrilean hasi ziren eta 2016ko uztailean bukatu ziren.

**INTERBENTZIO TALDEA****KONTROL TALDEA****10. Irudia.** Protokoloaren azalpen eskematikoa.**1 go astea**

Korrikalari guztiek lehenengo egunean atsedena hartu zuten, hau da, ezin izan zuten kirolrik egin.

Bigarren egunean korrika entrenamendua egin zuten. Horretarako, lehenik eta behin beroketa moduan 15 minutu egin zuten korrika. Berehala, abiadura aldaketak egin zituzten 5 minututan zehar (bihotz-maiztasun maximoaren % 60-% 80 artean) eta, ondoren, 500 metrotako 10 serie egin zituzten bihotz-maiztasun maximoaren % 90-era. Serieen arteko atsedena bi minutukoa izan zen. Bukatzeko, atsedean egoerara bueltatzeko 10 minutu korrika egin zuten erritmo lasaian. Korrikalarien esfortzuaren intentsitatea ahalik eta berdintsuena izateko entrenamendu saioa Borg eskalaren 9 eta 10 puntuen artean ezarri zen.

Hirugarren egunean korrikalariak Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Medikuntza eta Erizaintzako Fakultateko Fisiologiako laborategietara hurbildu ziren. Korrikalariak kamiseta, praka motzak eta normalean korrika egiteko erabiltzen zituzten zapatilak eta galtzerdiak jantzi zituzten. Aldagai antropometrikoak neurtu zitzaizkien balorazio lehenengo egunean. Modu berean, treadmill testa hasi baino lehen hurrengo neurketak burutu zitzaizkien: malgutasuna

(goniometria), bihotz-maiztasuna, pultsuaren oximetria, esfortzuaren pertzepzioa (kardiobaskularra eta muskularra) eta laktatoa.

Arnas aparatuari dagozkion datuak jasotzeko treadmill testa egin zen korrika egiteko zintan. Lehendabizi, bihotz-maiztasuna neurtzeko, pultsometroaren sentsorea jarri zitzaien plexu solarrean zinta elastiko baten bidez. Ondoren, treadmill testa egiteko arnesa jarri zitzaien babes-sistema moduan eta arnas-maskara eta tutua arnas parametroen analisirako. Makina kalibratu ondoren eta korrikalariak prest zeudenean, treadmill testa burutu zuten. Arnas aparatuari dagozkion datuak jasotzen ziren bitartean sistema optikoaren bidez pausoaren datu biomekanikoak jaso ziren. Treadmill testa egiteko korrikalariekin hurrengo protokoloa erabili zen (% 1-ko aldaparekin):

- 6 minutu  $10 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran korrika egin zuten, berotzeko erabili zirenak.
- Minutuko bateko atsedena hartu zuten eta minutu horretan esfortzu pertzepzioren balorazioak (kardiobaskularra eta muskularra) egin zituzten eta laktatoa neurtu zitzaien.
- 6 minutu  $12 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran korrika egin zuten.
- Minutuko bateko atsedena hartu zuten eta minutu horretan esfortzu pertzepzioren balorazioak (kardiobaskularra eta muskularra) egin zituzten eta laktatoa neurtu zitzaien.
- 6 minutu  $14 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran korrika egin zuten.
- Minutuko bateko atsedena hartu zuten eta minutu horretan esfortzu pertzepzioren (kardiobaskularra eta muskularra) balorazioak egin zituzten eta laktatoa neurtu zitzaien.
- 6 minutu  $16 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran korrika egin zuten.
- Minutuko bateko atsedena hartu zuten eta minutu horretan esfortzu pertzepzioaren (kardiobaskularra eta muskularra) balorazioak egin zituzten eta laktatoa neurtu zitzaien.
- 2 minutu  $5 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran ibili zuten.
- Laktatoa neurtu zitzaien.

Proba bukatzean, kontrol taldeko partaideek 30 minutu pasatu zituzten eserita aulki batean. Aldiz, interbentzio taldeko korrikalariak tratamendua jaso zuten (masajea, ur hotzeko

murgilketa edo T.E.C.A.R. terapia tratamenduak). Tratamendu guztiak 10 urteko esperientzia duen fisioterapeuta batek egin zituen.

Laugarren egunean korrikariek atsedena hartu zuten, hots, ezin izan zuten kirolik egin.

Bosgarren egunean, balorazio bigarren eguna, alegia, treadmill testa errepikatu zen baina ondoren ez zen interbentziorik burutu.

## **2. astea**

Aste honetan, aurreko astean kontrol taldean egon ziren subjektuek interbentzioa jaso zuten eta, alderantziz, interbentzio taldekoek ez zuten tratamendurik jaso, kontrol taldeko partaideak izanik.

**15. Taula.** Protokoloaren azalpen eskematikoa: balorazioak egin ziren egunak bi astetan banatuta.

1. astea	1go eguna	2. eguna	3. eguna		4. eguna	5. eguna
			1. Balorazio eguna*			
	<i>Interbentzio taldea</i>	<i>Kontrol taldea</i>				
	Atsedeen eguna.	Entrenamendu saioa.	Antropometria. Goniometria. Treadmill testa. Interbentzioak: - Masajea. - Ur hotzeko murgilketa. - T.E.C.A.R. terapia.	Antropometria. Goniometria. Treadmill testa. 30 minutu eserita.	Atsedeen eguna.	Goniometria. Treadmill testa.
2. astea	1go eguna	2. eguna	3. eguna		4. eguna	5. eguna
			3. Balorazioa eguna*			
	<i>Kontrol taldea</i>	<i>Interbentzio taldea</i>				
	Atsedeen eguna.	Entrenamendu saioa.	Goniometria. Treadmill testa. 30 minutu eserita.	Goniometria. Treadmill testa. Interbentzioak: - Masajea. - Ur hotzeko murgilketa. - T.E.C.A.R. terapia.	Atsedeen eguna.	Goniometria. Treadmill testa.

\* Talde bakoitzaren erdia, hau da, 8 subjektu, kontrol taldeko partaide izan ziren lehenengo astean eta interbentzio taldeko partaide bigarren astean, eta alderantziz. Taldeen eta interbentzio motaren banaketa era errandizatuaren egin zen.



#### 4.5.2 Galdeketa

Subjektu guztiek galdetegi bat bete zuten (3. Eranskina). Galdeketa 3 atalez osatuta zegoen: datu pertsonalak, aurrekari medikoak eta kirol aurrekariak.

##### **Datu orokorrak**

Korrikalariei izen-abizenak, jaiotze data, jaiotze tokoa eta telefono zenbakia galdetu zitzaien.

##### **Aurrekari medikoak**

Korrikalariei hiru arlo mediko desberdinei buruz galdetu zitzaien: gaixotasun garrantzitsuak, lesioak eta botikak.

##### **Kirol aurrekariak**

Atal honetan korrika entrenamenduei buruz eta lortutako markarik onenei buruz galdetu zitzaien.

#### 4.5.3 Miaketa fisikoa

##### **Antropometria**

Osasunaren Erakunde Mundialaren arabera (OEM) antropometria teknika ez-inbasiboa, kostu gutxikoa, aplikagarria da mundu guztiarentzat eta edozein lekutan egin daiteke. Halaber, tamaina, proportzioa eta giza gorputzaren osaketa baloratzen ditu. Egoera nutrizionala eta osasun egoera islatzen du eta errendimendua, osasuna eta biziraupena aurreikusi ditzake.

Antropometria neurketa guztiak ikertzaile berdinak egin zituen ISAK-ek (*International Society for the Advancement of Kinanthropometry*) gomendatzen duen protokoloari jarraituz (Marfell-Jones, Stewart eta de Ridder, 2012).

Balorazioen lehenengo egunean korrikalariei neurketa antropometrikoak egin zitzaizkien.

- **Pisua:** Pisua hurbileko 0.1 kg-tan neurtu zen baskula eramangarri baten bitartez. Horretarako, korrikalariak baskularen erdian jartzen ziren zutik eta aurrera begira, bi oinak elkarren parean zituztelarik eta, beti ere, pisua bi hanketan berdin banatuta.

- **Altuera:** Altuera hurbileko 0.1 cm-tan neurtu zen tallimetro eramangarri baten bitartez. Horretarako, bertex-aren (buruaren punturik altuenaren) eta euste-planoaren arteko distantzia neurtu zen.

Neurketa ondo burutzeko, korrikalariak oinak elkarren ondoan izan behar zituzten eta orpoak, ipurmasailak eta bizkarraren goiko aldea eskalarekin kontaktuan. Buruari dagokionez, aurrera begira izan behar zuten Frankfort-en plano mantenduz. Horretarako, orbitaren beheko ertzetik kanpoko entzunbidearen goialdera doan irudizko lerro bat imajinatu behar da. Lerro hau lurrarekiko paraleloa izan behar da. Bukatzeko, korrikalariak arnasketa sakon bat egiten zuten eta orduan neurtzen zen altuera.

- **Azal tolesturak:** Plikometro batekin azalaren eta larruazalpeko gantzaren lodiera mm-tan neurtu zen. Markatutako puntu bakoitzean bi edo hiru neurketa egin ziren eta batezbesteko neurria kalkulatu zen. Hasteko, larruazalpeko gantzaren tolestura bikoitz bat sortzeko ezkerreko eskuaren erpuru eta hatz-erakuslearen artean azal tolestura hartzen zen. Ondoren, eskumako eskuarekin plikometroa hartzen zen, hain zuzen ere, neurtuko zen tolesturatik 1-2 cm-tara eta tolesturarekiko 90<sup>0</sup>-tara. Neurketa plikometroa jarri eta 2 s-tara egin zen. Gorputzeko zazpi tokitan hartu ziren neurriak, denak gorputzeko eskuinaldean.
  1. Tolestura trizipitala: Akromion eta erradioaren buruaren arteko erdiko puntuan neurtzen zen, hots, besoaren atzealdean. Tolesturaren norabidea bertikala eta besoaren luzera-ardatzarekiko paraleloa zen.
  2. Tolestura subeskapularra: Tolestura hartzen zen eskapularen beheko angelutik horizontalarekiko 45<sup>0</sup>-ko angeluarekin, beherantz eta kanporantz 2 cm-tara markatutako puntuan. Norabidea oblikua zen.
  3. Tolestura supraespinala: Gandor iliakoaren gainean dagoen tuberkulu iliakoren hegaldaren puntuaren parean egindako lerro horizontala. Tolesturaren norabidea zeharria zen, hots, azalaren berezko norabidea jarraitzen zuen.
  4. Tolestura abdominala: Tolestura hau zilborraren eskuinaldean hartzen zen, 5 cm-tara. Tolestura bertikala zen, gorputzaren luzera-ardatzarekiko paraleloa.
  5. Izterreko tolestura: Izterondoko tolestura eta belaun-hezuraren goialdeko mugaren arteko erdiko puntuan neurtzen zen, izterren aurrealdean, alegia. Norabidea hankaren luzera-ardatzarekiko perpendikularra zen.

6. Zangoko tolestura: Zangoaren barrualdean, zangoak perimetririk handiena duen tokian neurtu zen. Tolesturaren norabidea bertikala zen eta zangoaren luzera-ardatzarekiko paraleloa.

Tolesturen neurketa burutzeko korrikalariak zutik egon ziren, izterreko eta zangoko tolesturak neurtzeko izan ezik; bi tolestura hauetan korrikalaria jesarrita egon ziren eta belaunak 90º-ko angeluan tolestuta izan zituzten.

Tolestura hauekin guztiekin eragiketa batzuk egin ziren konparaketa estatistikoak egiteko:

- Tolesturen batura: Sei tolesturen batuketa egin zen.
  - Gorputz-adarretako tolesturak: Tolestura trizipitala, izterrekoa eta zangokoaren batuketa.
  - Gorputz-enborreko tolesturak: Tolestura subeskapularra, suprailiakoia eta abdominalaren batuketa.
- **Perimetroak**: Perimetroak neurtzeko zinta antropometrikoa erabili zen. Zinta antropometrikoa neurtu nahi zen tokiaren inguruan jartzen zen, sakatu gabe, luzera-ardatzarekiko perpendikularrean. Perimetro guztiak neurtzeko korrikalariak zutik zeuden. Perimetro hauek neurtzeko, korrikalariak zutik eta erlaxaturik jartzen ziren, besoak gorputzarekiko paralelo zituztelarik.

Gorputzeko sei tokitan hartu ziren neurriak (cm-tan), denak gorputzaren eskuinaldean:

1. Besoko perimetroa erlaxatua: Gantz tolestura trizipitala neurtu zen toki berean neurtu zen baina, kasu honetan, atzealdean izan beharrean aurrealdean. Horretarako, besoa 90º-tan tolestuta, humeroa lurrarekiko paralelo, eta erlaxatuta zutela akromionaren eta erradioaren buruaren arteko puntua neurtzen zen.
2. Besoko perimetroa uzkuruta: Bizepsaren uzkurdura maximoa neurtu zen. Horretarako, besoa 90º-tan tolestuta eta humeroa lurrarekiko paralelo zutela ahalik eta uzkurdura handiagoa burutu zuten. Neurketa bizepsaren puntu gorenean hartu zen.
3. Izterreko perimetroa: Izterreko gantz tolestura neurtu zen toki berean hartu zen perimetroaren neurria.

4. Zangoko perimetroa: Zangoko gantz tolestura neurtu zen toki berean hartu zen perimetroaren neurria, hots, bikiaren zirkunferentziaren puntu maximoan.
- **Diametroak**: Puntu biren artean zegoen distantzia neurtzen zen cm-tan. Pakimetroaren adar biak neurtu nahi zen puntutan jartzen ziren. Gorputzeko lau tokitan neurtu ziren diametroak:
1. Humeroko diametro biepidikondileoa edo ukondoko diametroa: Ukondoan, humeroaren epikondiloa eta epitroklearn arteko distantzia neurtu zen. Horretarako jokalariek ukondoa 90° tolestu zuten.
  2. Diametro biestiloidea edo eskumuturreko diametroa: Eskumuturrean, erradioaren apofisi estiloidea eta kubituen arteko distantzia neurtu zen.
  3. Izterrezurreko diametro bikondileoa edo belauneko diametroa: Belaunean, izterrezurraren barruko kondiloaren eta kanpoko kondiloaren arteko distantzia neurtu zen. Horretarako, korrikalaria jesarrita zegoen eta belauna angelu zuzenean zeukan.
  4. Diametro bimaleolarra edo orkatilako diametroa: Orkatilan, maleolo tibiala eta peronearen arteko distantzia neurtzen zen. Hemen ere korrikalaria jesarrita zegoen.

Ikerketa honetan, ikertzailearen neurketa-errorea (TEM, ingeleratik *Technical Error of Measurement*) antropometriari hurrengoa izan zen: 1.00 eta % 0.2 altueran eta 0.99 eta % 0.1 gorputz masa indizerako.

### **Gorputzaren osagaiak**

Neurri hauek guztiak kontuan hartuta, zenbait eragiketa eta formula erabili ziren gorputz masa indizea (GMI) eta gorputzaren osagaiak (pisua eta honen portzentajeak) kalkulatzeko.

- Gorputz masa indizea (GMI) = pisua (kg) / altuera<sup>2</sup> (m).

Gantz portzentajea kalkulatzeko Faulkner-en formula erabili zen (1966):

- Gantz portzentajea (%) = 4 azal tolesturen batuketa mm-tan (trizipitala + subeskapularra + suprailiakoia + abdominala) x 0.153 + 5.783

Hezur pisua kalkulatzeko, Rocha-k aldatutako Von Döbeln-en formula erabili zen (1975):

- Hezur pisua (kg) =  $3.02 \times (\text{altuera}^2 \text{ (m)} \times \text{eskumuturreko diametroa} \times \text{belauneko diametroa (m)} \times 400)^{0.712}$ .

Hondar pisua Würch-en proposamenetik atera zen (1974):

- Hondar pisua (kg) = pisu osoa  $\times 24.1 / 100$ .

Gihar pisua Matiegkar-en formulatik dator (1921):

- Gihar pisua (kg) = pisua – (gantz pisua + hezur pisua + hondar pisua).
- Gantz pisua (kg) = gantz portzentajea  $\times$  pisua / 100.
- Hezur portzentajea (%) = hezur pisua  $\times 100 /$  pisua.
- Muskulu portzentajea (%) = gihar pisua  $\times 100 /$  pisua.

### Somatotipoa

Aurreko neurriak kontuan harturik eta Heath eta Carter-en (1967) metodoa erabiliz, korrikalarien somatotipoaren hiru osagaiak kalkulatu ziren. Osagai bakoitzak, gorputzaren proportzioak nola banatzen diren azaltzen duen tipologia eredu bati jarraitzen dio: *endomorfia* (loditasunerako joera gailentzen da eta gantz adiposoaren maila altuekin erlazionatuta dago), *mesomorfia* (irmotasunarekin eta gihar eskeletikoarekin erlazionatuta dago, hots, forma atletikoarekin) eta *ektomorfia* (gorpuzkeraren linealtasunarekin erlazionatuta dago). Hiru osagaiak kalkulatzeko ondorengo formulak erabili ziren:

- Endomorfia: Osagai hau kalkulatzeko, lehenengo X-ren balioa atera behar da. X izpiak gantz tolestura trizipitala (mm), subeskapularra (mm) eta suprailiakoaren (mm) batuketa adierazten du. X horren balioa hurrengo formulari jarri behar da:

- $E = -0.7182 + 0.1451X - 0.00068X^2 + 0.000014X^3$

Endomorfia kalkulatzeko ondorengo formula aplikatu behar da:

- Endomorfia =  $E \times (170.18 / \text{altuera})$ .

- Mesomorfia: Osagai hau kalkulatzeko ondorengo formula aplikatu behar da:

- Mesomorfia =  $0.858U + 0.601F + 0.188B + 0.161P + 0.131H + 4.5$

Non:

- U= Ukondoko diametroa (cm).
  - F= Belauneko diametroa (cm).

- $B =$  Besoko perimetro zuzendua (cm) = besoko perimetroa - gantz tolestura trizipitala.
  - $P =$  Zangoko perimetro zuzendua (cm) = zangoko perimetroa - zangoko gantz tolestura.
  - $H =$  Altuera (cm).
- Ektomorfia: Indize Ponderala (IP)-ren arabera egiten da; horretarako ekuazio desberdinak erabiltzen dira:

Non:

- $IP = \text{altuera} / \text{pisuaren } \sqrt{3}$ .
- $IP = 40.75$  baino handiagoa bada--Ektomorfia =  $(IP \times 0.732) - 28.58$
- $IP = 40.75$  eta  $38.28$  artean badago--Ektomorfia =  $(IP \times 0.463) - 17.63$
- $IP = 38.28$  baino txikiagoa bada--Ektomorfia =  $0.1$

#### 4.5.4 Malgutasuna

Goniometria hitza grekotik dator, *gonion* "angelua" esan nahi du eta *metron* "neurketa", hau da, angeluak neurtzen eta aztertzen dituen geometriaren alorra da goniometria. Osasun arloan espazioan giltzadura batek duen posizio aztertzen du. Horrela, angeluen bitartez giltzadura batek espazioan dituen mugimenduak hiru planoetan aztertzen ditu. Goniometria egiteko erabiltzen den tresna goniometroa da. Goniometroa erabiltzeko tresna erraza da, edozein lekutan erabili daiteke, ez-inbasiboa da, kostu gutxikoa eta aplikagarria da mundu guztiarentzat. Tresnak, ardatz bat eta bi beso ditu; beso bat mugikorra eta bestea finkoa (Norkin eta White, 2006).

Ikerketa honetan, goniometroa korrikalarien malgutasuna neurtzeko erabili zen. Goniometria treadmill testa hasi baino lehen egin zen balorazio egunetan.

- Ezkerreko eta eskuineko belaunen flexio maximoa (koadrizepsaren malgutasuna): Korrikalariak buruz behera zeudelarik, belauna bat luzatuta utzi behar zuten esku-ohe gainean eta beste belauna  $90^\circ$ -tan flexionatuta. Goniometroaren ardatza belaunaren kanpoko kondiloan jarri zen; goniometroaren beso finkoa izterrarekin paraleloan trokanter nagusiaren norabidean eta beso mugikorra perone hezurarekin paraleloan, alegia, kanpo maleoloaren norabidean. Aztertzaileak eskatzen zienean korrikalariak ahalik eta gehien flexionatu behar zuten belauna.

- Ezkerreko eta eskuineko belaunen luzapen maximoa (iskiotibialaren malgutasuna):  
Korrikalariak buruz gora zeudelarik, belauna bat luzatuta utzi behar zuten esku-ohet gainean eta beste hanka  $90^\circ$ -ko aldakako eta belauneko flexioarekin. Goniometroaren ardatza belaunaren kanpoko kondiloan jarri zen; goniometroaren beso finkoa izterrarekin paraleloan trokanter nagusiaren norabidean eta beso mugikorra perone hezurrarekin paraleloan, alegia, kanpo maleoloaren norabidean. Aztertzaileak eskatzen zienean korrikalariak ahalik eta gehien luzatu behar zuten belauna.
- Ezkerreko eta eskuineko flexio-dorsal maximoa (trizeps suralaren malgutasuna):  
Korrikalariak zutik zeuden bi oinak aldakarekin paraleloan jarrita. Ondoren, oin bat bestearen atzean jarri behar zuten aurrean zuten belauna flexionatuta zutelarik eta atzeko belauna luzatuta mantenduz. Goniometroaren ardatza orkatilaren kanpoko kondiloan jarri zen; goniometroaren beso finkoa zoruarekiko paraleloan eta beso mugikorra perone hezuraren ardatzean, alegia, belaunaren kanpoko kondiloaren norabidean. Aztertzaileak eskatzen zienean korrikalariak atzeko oinarekin ahalik eta flexio-dorsal maximoa egin behar zuten.

#### 4.5.5 Treadmill testaren protokoloa

Erdi distantzia eta distantzia luzeak egiten duten korrikalarien errendimendua baloratzeko eta aurreikusteko treadmill testak erabiltzen dira. Izan ere, korrikalarien sistema kardiobaskularra, arnas-sistema, erantzun metabolikoak eta datu biomekanikoak eraginkortasuna adierazten dute. Horregatik, gaur egun korrikalarien plangintza egiteko treadmill testak beharrezkoak dira.

Ikerketa honetan, korrikalariak abiadura handituz doan mailakatutako treadmill testa burutu zuten zinta gainean. Treadmill testa egiteko arnesa jarri zitzaient babes-sistema moduan eta arnas-maskara eta tutua arnas parametroen analisirako. Halaber, % 1-ko aldaparekin egin zen erresistentzia aerodinamikoaren konpentsatzeko (Jones eta Doust, 1996; Pugh, 1970) eta  $10 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran hasten zen, beroketa egiteko abiadura izanik. Abiadura  $2 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko handituz joan zen 6 minuturo  $16 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$  abiaduran bukatu arte. Bestalde, minutu bateko atsedena izan zuten abiadura fase bakoitzaren artean (Yoshida, 1984). Azkenik, 2 minutu  $5 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran korrika egin zuten atsedena egoerara bueltatzeko eta laktatoa neurtu zitzaient.

#### 4.5.6 Parametro biomekanikoak

Oinkadaren datu biomekanikoak lortzeko sistema optikoa erabili zen. Zintaren albo bakoitzean barra optiko bat jarri zen, hots, albo batean igorle barra eta bestean hartzaile barra (11.

Irudia). Barra bakoitzak 33-100 LEDs Infragorriren artean ditu (ingeleratik *Light Emitting Diodes*), hautatzen den erresoluzioaren arabera. Horrela, igorle barran dauden LED-ak hartzaile barran daudenekin komunikatzen dira eta sistemak behin-behineko etenak neurtzen ditu (denbora). Gainera, martxaren ziklo batean ematen den kontaktu denbora eta hegaldi denbora neurtzen ditu  $1 \cdot 1000^{-1}$  segundoko zehaztasunarekin.

Protokoloari dagokionez, korrikalariak treadmill testa hasi baino lehen bi barren artean jarri behar ziren eta sistemak automatikoki oinaren tamaina neurtzen zuen (11. Irudia). Neurketa hau lehenengo balorazio egunean bakarrik egin zen, ondorengo egunetan egindako neurketa hau korrikalariaren beste datuekin batera gordeta geratzen baitzen sisteman (pisua eta altuera). Parametro biomekanikoen batezbesteko neurriak lortzeko abiadura fase bakoitzaren azken 30 segundoetan egin zituzten balore egonkorrak erabili ziren.




**11. Irudia.** Zintaren albo bakoitzean barra optiko igorlea eta hartzailea.

Sistema honen bidez hurrengo parametro biomekanikoak neurtu ziren:

- Hegaldi denbora (s): Oina aireratzen den momentutik lurraren kontra egiten duen lehenengo talka arte igarotzen den denbora da.
- Kontaktu denbora (s): Oinak lurraren kontra egiten duen lehenengo talkatik aireratzen den arte igarotzen den denbora da.




- Pausoaren altuera (cm): Oinolak lortzen duen altuera hegaldi denboran zehar.
- Pausoaren maiztasuna (pausoak/segundoko): Pauso kopurua segundoko.
- Pausoaren luzera (cm): Oin baten punta eta hurrengoaren puntaren arteko distantzia edo oin baten orpoa eta hurrengoaren orpoaren arteko distantzia da (12. Irudia).



**12. Irudia.** Pausoaren luzera.

Berreskuratuta: <http://www.optojump.com/OptojumpNext/Media/Manuals/Manual-ES.pdf>


- Pausoaren angelua (graduak): Pauso baten mugimenduaren parabolaren tangentea da (13. Irudia).



**13. Irudia.** Pausoaren angelua.

Berreskuratuta: <http://www.optojump.com/OptojumpNext/Media/Manuals/Manual-ES.pdf>

- Oinkada luzera (cm): Oinkada batean oinen bi punten arteko distantzia edo oinkada batean oinen bi orpoen arteko distantzia da (14. Irudia).



14. Irudia. Oinkada luzera.

Berreskuratuta: <http://www.optojump.com/OptojumpNext/Media/Manuals/Manual-ES.pdf>

#### 4.5.7 Parametro fisiologikoak

##### **Pultsuaren oximetria**

Balorazio egunetan, treadmill testa hasi baino lehen eta bukatu ostean oxigeno asetasuna neurtu zitzaien pulsioximetroaren bidez korrikalarien oxigenazio kontrolpean egon zedin, alegia, zorabioak edota disfuntzioak ekiditzeko.

##### **Bihotz-maiztasuna**

Balorazio egunetan, treadmill testa hasi baino lehen eta bukatu ostean Bihotz-Maiztasuna (BM) neurtu zitzaien pulsioximetroaren bidez. Bestalde, pultsometroaren sentsorea zinta elastiko baten bidez plexu solarrean jarri zitzaien eta treadmill testan zehar 15 segunduro BM automatikoki erregistratu zuen softwareak. Abiadura bakoitzeko batezbesteko BM lortzeko abiadura bakoitzaren azken 30 segundotan egin zituzten balore egonkorak hartu ziren.

##### **Arnas parametroak**

Saio bakoitzean gas bolumenaren analizatzailea xiringa batekin kalibratu zen fluxu intentsitate desberdinetan, fabrikatzailearen instrukzioak jarraituz eta gas aparatua automatikoki kalibratuz.

Gasen arteko trukea etengabe neurtu zen, arnasketa bakoitzean zeharkako kalorimetria zirkuitu irekian. Arnas parametroen batezbesteko neurriak lortzeko abiadura fase bakoitzaren azken 30 segundotan egin zituzten balore egonkorak hartu ziren.

Gas analizatzailearen bidez hurrengo parametro fisiologikoak neurtu ziren:

- Oxigeno kontsumoa erlatiboa ( $VO_2/kg, ml O_2 \cdot kg^{-1} \cdot min^{-1}$ ).

- Arnas truke ratioa (RER, ingeleratik *Respiratory Exchange Ratio*;  $\text{VCO}_2/\text{VO}_2$ ).
- Bihotz-Maiztasuna (BM,  $\text{taupadak}\cdot\text{min}^{-1}$ ).
- Aireztapen bolumena ( $\text{V}_E$ ,  $\text{L}\cdot\text{min}^{-1}$ ).

### **Beste parametro fisiologikoak**

Gas analizatzailearen datuak hartuta hurrengo parametro fisiologikoak kalkulatu ziren:

- Lasterketa ekonomia (RE, ingeleratik *Running Economy*;  $\text{ml O}_2\cdot\text{kg}^{-1}\cdot\text{km}^{-1}$ ).

Lasterketa ekonomiak lasterketaren kostu energetikoa neurtzen du, hots, desplazamenduaren eraginkortasuna adierazten du (Di Prampero, Atchou, Brückner eta Moia, 1986; Helgerud, 1994; Helgerud, Engen, Wisloff eta Hoff, 2001). Lasterketa ekonomia  $\text{VO}_2$ -a egoera metaboliko submaximo egonkorrean oinarritzen da (Maldonado, Mujika eta Padilla, 2002), egoera honetan  $\text{VO}_2$ -a kostu energetikoa denbora unitateko adierazlea baita. Horrela, RE-a  $\text{VO}_2$ -ren eta abiaduraren arteko erlazioa adierazten du eta horrela kalkulatu zen (Lacour, Padilla-Magunacelaya, Barthelemy eta Dormois, 1990):

$$\text{RE (ml O}_2\cdot\text{kg}^{-1}\cdot\text{km}^{-1}) = (\text{VO}_2 - 4.98 (\text{ml O}_2\cdot\text{kg}^{-1}\cdot\text{min}^{-1})) \cdot (\text{abiadura (km}\cdot\text{min}^{-1}))^{-1}$$

4.98  $\text{ml O}_2\cdot\text{kg}^{-1}\cdot\text{min}^{-1}$ -ren balorea  $\text{VO}_2$ -ren intersekzioaren erlazioa  $\text{VO}_2 \text{ max}\cdot \text{abiadura}^{-1}$  da (Medbo eta lank., 1988).

### **Laktatoa**

Esfortzuaren intentsitate metabolikoa neurtzeko laktatoa neurtu zen *Lactate Pro 2* laktatometroarekin, fidagarritasun eta zehaztasuna egiaztatu zelarik (Bonaventura eta lank., 2015). Horrela, proba hasi baino lehen, korrikalariei zitzada bat egiten zitzairen eskuineko belarri-gingilean eta 0.3 mikrolitro odol hartzen zitzairen laktatoa neurtu ahal izateko. Era berean, abiadura fase bakoitzaren ostean korrikalariei laktatoa neurtu zitzairen, alegia, faseen arteko atsedean aldiaren eta treadmill testa osoa bukatzean.

#### 4.5.8 Esfortzuaren pertzepzioa

Korrikalarien esfortzu pertzepzioa jakitzeko Borg eskala erabili zen. Era honetan, esfortzu kardibaskularra eta esfortzu muskularra zenbatekoa zen adierazi behar zuten. Horretarako, Otik 10era bi zenbaki eskala erakusten zitzaizkien; lehenengoa sistema kardiobaskularraren argazki batekin adierazita eta, bestea, hanka baten giharren argazkiarekin (4. Eranskina).

Protokoloan azaldu bezala, Borg eskala treadmill testa egin baino lehen eta treadmill testaren atseden aldietan ( $10 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ ,  $12 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ ,  $14 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$  eta  $16 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$  abiadura bakoitzaren ostean) pasatu zitzairen.

#### 4.5.9 Interbentzioak

Hiru interbentzioa egin ziren, hots, masajea, ur hotzeko murgilketa (UHM) eta T.E.C.A.R. terapia. Interbentzio talde bakoitzean zeuden korrikalariak haien kontrolak izan ziren. Horrela, kontrol taldea eserita egon behar zen 30 minutuz.

#### **Masaje taldea**

Korrikalariak buruz gora jarri ziren esku-ohetan eta burusi termikoarekin tapatu zitzairen. Halaber, tibien aurreko partean zilindro erdia jarri zitzairen (higiene posturala mantentzeko) eta masajea egiteko erraz irristatzen den ukendua erabili zen. Hain zuzen ere, hiru ehun mota (dermisa-epidermisa, hipodermisa eta giharra) desberdindu behar dira eta era progresibo batean "Suediar masajea" osatzen duten mugimendu desberdinen bidez sakontzen joan. Korrikalariak ez zuten minik edo deserosotasunik jasan behar. Masaje baten garapena progresiboa izan behar denez, bai hasteko eta baita bakatzeko, gihar bakoitzean hurrengo mugimenduak burutu ziren:

- Hasierako kontaktua superfiziala izan zen:
  1. Effleurage superfizialak egin ziren.
  2. Petrissage superfizialak egin ziren.
- Ondoren, kontaktu sakona burutu zen eta gihar bakoitzean lotuneak eta gihar-zuntzak landu ziren:
  3. Petrissage sakonak eta igurtziak egin ziren.
- Jarraitzeko:
  4. Petrissage superfizialak egin ziren.
- Bukatzeko, beheko gorputz-adar bakoitzean zehar:
  5. Tapotement: Perkusioak egin ziren.
  6. Bibrazioak: Astinduak egin ziren.
  7. Effleurage superfizialak egin ziren.

Masajea egiteko hurrengo segida jarraitu zen largo abiadura eramanez, metronomo batekin neurtu zena:

- Minutu bat eskumako oinzolan.
- Minutu bat eskumako Aquiles tendoian.
- Minutu bat eskumako soleo giharrean.
- 3 minutu eskumako gastroknemio giharrean.
- 4 minutu eskumako iskiotibial giharrean.
- 30 segundo perkusioak eta astinduak eskumako oinzolatik iskiotibial giharreraino.
- 30 segundo effleurage superfizialak eskumako oinzolatik iskiotibial giharreraino.
- Eskumako hanka esku-oheko paperarekin estali zen beroa galdu ez zezan.
- Minutu bat ezkerreko oinzolan.
- Minutu bat ezkerreko Aquiles tendoian.
- Minutu bat ezkerreko soleo giharrean.
- 3 minutu ezkerreko gastroknemio giharrean.
- 4 minutu ezkerreko iskiotibial giharrean.
- 30 segundo perkusioak eta astinduak ezkerreko oinzolatik iskiotibial giharreraino.
- 30 segundo effleurage superfizialak ezkerreko oinzolatik iskiotibial giharreraino.
- Ezkerreko hanka esku-oheko paperarekin estali zen beroa galdu ez zezan.

Ostean, korrikalariak buruz gora jarri ziren. Goiko adarra burusi termikoarekin tapatuta zitzaien eta belauen atzeko partean kuxin bat jarrita, eskumako oinetik jarraitu zen masajea.

Hurrengo segida burutu zen:

- Minutu bat eskumako oinzolan.
- 3 minutu eskumako aurreko tibial eta peroneo lateral giharretan.
- 4 minutu eskumako koadrizeps giharrean, adduktore giharretan eta lata faszia tentsorean. Lehenengo minutua koadrizeps giharrak errotulan dituen lotuneetan masajea egin zen.
- 30 segundo perkusioak eta astinduak eskumako oinzolatik koadrizeps giharreraino.
- 30 segundo effleurage superfizialak eskumako oinzolatik koadrizeps giharreraino.

- Eskumako hanka esku-oheko paperarekin estali zen beroa galdu ez zezan.
- Minutu bat ezkerreko oinzolan.
- 3 minutu ezkerreko aurreko tibial eta peroneo lateral giharretan.
- 4 minutu eskumako koadrizeps giharrean, adduktore giharretan eta lata faszia tentsorean. Lehenengo minutua koadrizeps giharrak errotulan dituen lotuneetan masajea egin zen.
- 30 segundo perkusioak eta astinduak ezkerreko oinzolatik koadrizeps giharreraino.
- 30 segundo effleurage superfizialak ezkerreko oinzolatik koadrizeps giharreraino.

Aurreko beheko gorputz-adarreko masajea 22 minutukoa izan zen, atzeko beheko gorputz-adarreko masajea 18 minutukoa izan zen. Beraz, masaje taldeak guztira 40 minutuko masajea jaso zuen.

Masajea bukatu ostean, kirolariak zorabiatzeko arriskurik ez izateko, korrikalariak buruz gora jarri ziren (30 segundo). Ondoren, alboz jarri ziren (30 segundo) eta jarraian, esku-ohetan eseri ziren (30 segundo). Azkenik, zutitu ziren eta ibiltzen jarri ziren (30 segundo).

### **Ur hotzeko murgilketa (UHM) taldea**

Ura 10°C-tan egoteko beharrezkoak ziren izotzak 240 L urez betetako ontzi batean urtu ziren eta korrikalariak 10 minututan zehar bertan murgildu ziren. Korrikalariak aurre-goiko arantza iliakoraino heltzen zitzairen ura. Ondoren, korrikalariak ontzitik atera ostean eserleku batean eseri ziren 30 segundo. Propiozepzioa berreskuratu zezaten eta lesioak ekiditzeko, oinak mugitzeko eskatu zitzairen (oinaren flexio-dortsala, flexio plantarra eta borobilak alde bietara). Bukatzeko, zutitu egin ziren eta ibiltzen hasi ziren (30 segundo) (15. Irudia).



**15. Irudia.** Ur hotzeko murgilketa interbentzioa.

### **T.E.C.A.R. terapia taldea**

T.E.C.A.R. terapia frekuentzia altuko korrante alternoa da eta Capenergy C200 makinak 0.8 MHz, 1 MHz eta 1.2 MHz-etan lan egiten du.

Korrikalariak buruz behera jarri ziren esku-ohean eta burusi termikoarekin tapatu zitzairen. Ondoren, bi elektrodo pasiboak koadrizeps bakoitzaren azpian jarri zitzairen (ukenduarekin) eta bi plaka automatikoak (240 cm<sup>2</sup>) oinzola bakoitzean jarrita utzi ziren 10 minutuz (zinta elastiko batekin eutsi ziren). Ondoren, bi plaka automatikoak kendu ziren, elektrodo pasiboa ezkerreko koadrizepsaren azpian kendu zitzairen eta elektrodo erresistiboarekin (Ø 53mm) 10 minutuko tratamendua burutu zen beheko gorputz-adar bakoitzean (ukenduarekin). Hurrengo segida jarraitu zen largo abiadura eramanez, metronomo batekin neurtu zena:

- Minutu bat eskumako oinzolan.
- Minutu bat eskumako Aquiles tendoian.
- Minutu bat eskumako soleo giharrean.
- 3 minutu eskumako gastroknemio giharrean.
- 3 minutu eskumako peroneo lateral giharrean eta aurreko tibial giharrean (fisioterapeutak belauna 90°-tan flexionatuta mantentzen zuen).
- 4 minutu eskumako iskiotibial giharrean.
- Minutu bat eskumako adduktore giharretan.
- Minutu bat eskumako lata fasziaren tentsorean.

Plaka pasiboa eskumako koadrizepsaren azpitik kendu eta ezkerreko koadrizepsaren azpian jarri zitzairen.

- Minutu bat ezkerreko oinzolan.
- Minutu bat ezkerreko Aquiles tendoian.
- Minutu bat ezkerreko soleo giharrean.
- 3 minutu ezkerreko gastroknemio giharrean.
- 3 minutu ezkerreko peroneo lateral giharrean eta aurreko tibial giharrean (fisioterapeutak belauna 90°-tan flexionatuta mantentzen zuen).
- 4 minutu ezkerreko iskiotibial giharrean.
- Minutu bat ezkerreko adduktore giharretan.
- Minutu bat ezkerreko lata fasziaren tentsorean.

Bukatzeko, berriro bi elektrodo pasiboak koadrizeps bakoitzaren azpian jarri zitzairen (ukenduarekin) eta bi plaka automatikoak oinzola bakoitzean jarrita utzi ziren 10 minutuz.

Gutzira, 50 minutuko tratamendua burutu zen eta tratamendu osoan zehar 1 MHz-ko frekuentzia mantendu zen % 50-ko potentziarekin, prozesu ez akutua - ez kronikoa zelako.

T.E.C.A.R. terapia tratamendua bukatu ostean, zorabiorik gerta ez zedin, korrikalariak buruz gora geratu ziren (30 segundo). Ondoren, alboz jarri ziren (30 segundo) eta jarraian, esku-ohetan eseri ziren (30 segundo). Azkenik, zutitu ziren eta ibiltzen jarri ziren (30 segundo).

#### 4.6 Estatistika

Analisi estatistikoa IBM SPSS Statistics (23.0) programarekin egin zen. Kasu guztietan adierazgarritasun estatistikoa  $p < 0.05$ -ean ezarri zen.

Orokorrean, ikerketan zehar erabili ziren proba estatistikoak hauek dira:

- Estatistika deskriptiboa erabili zen batezbesteko balioak eta hauen desbiderapen estandarrak ezagutzeko.
- Aldagaien normaltasuna konprobatzeko Kolmogorov-Smirnov edo Shapiro-Wilk probak erabili ziren.
- Bi talderen arteko desberdintasuna neurtzeko, datuek normaltasuna betetzen zutenean, student-en t-test parametrikoa erabili zen (*Students t test*); aldiz, datuek normaltasuna betetzen ez zutenean, Mann Whitney proba ez parametrikoa erabili zen.
- Aldagai biren arteko erlazioak aztertzeko, aldagaien normaltasuna betetzen zen kasuetan, Pearson-en korrelazio r koefizientea erabili zen; aldiz, aldagaien normaltasuna betetzen ez zen kasuetan, Spearman-en korrelazio koefizientea erabili zen. Aldagaien arteko korrelazioak Evans-en (1996) arabera interpretatu ziren. Horrela r txikia ( $< 0.40$ ), ertaina ( $\geq 0.40$  eta  $< 0.80$ ) eta handia ( $\geq 0.80$ ) bezala interpretatu zen. Gainera, korrelazio partzialak egin ziren aldagaiak kontrolatu nahi izan zirenean.
- Bi noranzkoko errepikatutako ANOVA erabili zen (two way repeated measures analysis of variance ANOVA) kontrol eta interbentzio taldeen arteko konparaketa egiteko. Horrela, neurtu ziren desberdintasunak izan ziren alde batetik, taldeen artekoak (kontrol vs. interbentzio) eta, bestetik, momentu desberdinen arteko desberdintasunak aztertu ziren (pre vs. post).



# Emaitzak





## 5 EMAITZAK

Treadmill testan  $10 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran egindako lehenengo 6 minutuak berotzeko erabili ziren. Hori dela eta,  $10 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran jasotako datuak ez dira emaitzetan agertzen.

Erresistentzia gaitasuna eta laktato atalasea edo OBLA ezagutzeko odolean laktato kontzentrazioa neurtzen da. Izan ere, laktato atalaseak oxigeno kontsumo maximoarekin ( $\text{VO}_2 \text{ max}$ ) (Davis, Vodak, Wilmore, Vodak eta Kurtz, 1976; Weltman eta Katch, 1979; Yoshida, Nagata, Muro, Takeuchi eta Suda, 1981) eta erresistentzia errendimenduarekin (Farrell, Wilmore, Coyle, Billing eta Costill, 1979; Jacobs, Sjödin, Kaiser eta Karlsson, 1981; Jacobs, 1981; Sjödin eta Jacobs, 1981) korrelazio handia du. Bestalde,  $2 \text{ mmol}\cdot\text{l}^{-1}$ -eko laktato kontzentrazioa odolean atalase aerobikoarekin edota OPLA-rekin (ingeleratik *Onset of Plasma Lactate Accumulation*) erlazionatzen da (Farrell eta lank., 1979) eta  $4 \text{ mmol}\cdot\text{l}^{-1}$ -eko laktato kontzentrazioa odolean, aldiz, atalase anaerobikoarekin edota OBLA-rekin erlazionatzen da (Keul, Kindermann eta Simon, 1978). Halaber, korrika egiterakoan aldaketa biomekanikoak gertatzeko esfortzua suposatzen duen abiaduran korrika egin behar da (Morin, Samozino eta Peyrot, 2009). Hori dela eta, korrikalariak  $14 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiadura arte ez zuten atalase aerobikora edota esfortzua suposatzen zuen abiadurara heldu, hots, ez zuten gutxienez  $2 \text{ mmol}\cdot\text{l}^{-1}$  laktato kontzentrazioa odolean izan. Horrela,  $12 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiadurako datu deskriptiboak emaitzetan azaltzen dira, baina ez dira abiadura korrelazio emaitzetan adierazten.

### 5.1 Masaje taldea vs. kontrol taldea

#### 5.1.1 Parametro biomekanikoak

$12 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran pausoaren maiztasunean hobekuntza adierazgarriak ikusi ziren kontrol taldean ( $p<0.01$ ). Aldiz, masaje taldean, hobekuntzak pausoaren altueran ( $p<0.05$ ) eta pausoaren angeluan ( $p<0.01$ ) aurkitu ziren  $16 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran (16. Taula).

#### 5.1.2 Parametro fisiologikoak

Masaje taldean, oxigeno kontsumo erlatiboan eta RE-n ( $p<0.05$ ) hobekuntza adierazgarriak ikusi ziren  $12 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran. Aldiz, RER parametroan emaitza negatiboak aurkitu ziren, bai masaje taldean ( $p<0.01$ ) eta baita kontrol taldean ere ( $p<0.05$ ) (17. Taula).

14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiadurari dagokionez, masaje taldean hobekuntza estatistikoki adierazgarriak aurkitu ziren oxigeno kontsumo erlatiboan eta RE-n ( $p < 0.01$ ) (17. Taula).

Parametro fisiologikoekin bukatzeko, 16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran masaje taldean hobekuntza estatistikoki adierazgarriak aurkitu ziren  $V_E$ -n ( $p < 0.05$ ) eta kontrol taldean, ostera, RER emaitzak txarragotu ziren ( $p < 0.05$ ) (17. Taula).

### 5.1.3 Laktatoa eta esfortzu pertzepzioaren balorazioak

Laktatoan ez ziren emaitza adierazgarriak aurkitu. Aldiz, hobekuntza adierazgarriak ikusi ziren, alde batetik, Borg kardiobaskularrean 14 km·o<sup>-1</sup>-ko eta 16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduretan ( $p < 0.05$ ) eta, bestetik, Borg muskularrean 12 km·o<sup>-1</sup>-ko eta 14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduretan ( $p < 0.05$ ;  $p < 0.00$ , hurrenez hurren) (18. Taula).

### 5.1.4 Magutasuna

Kontrol taldeko magultasunari dagokionez, ezkerreko trizeps suralean emaitza txarragotu zen ( $p < 0.05$ ) (19. Taula).

**16. Taula.** Masaje taldearen eta kontrol taldearen parametro biomekanikoen batezbestekoak (BB) eta desbideratze estandarrak (DE) abiadura bakoitzaren arabera, bi neurketa momentuetan.

		MASAJE TALDEA			KONTROL TALDEA		
		PRE	POST	Sig.	PRE	POST	Sig.
		BB ± DE	BB ± DE		BB ± DE	BB ± DE	
<b>12 km·o<sup>-1</sup></b>	Hegaldi denbora (s)	0.06 ± 0.02	0.05 ± 0.02	EA	0.05 ± 0.02	0.05 ± 0.02	EA
	Kontaktu denbora (s)	0.29 ± 0.02	0.30 ± 0.02	EA	0.30 ± 0.03	0.30 ± 0.02	EA
	Pausoaren altura (cm)	0.45 ± 0.29	0.36 ± 0.17	EA	0.38 ± 0.21	0.34 ± 0.23	EA
	Maiztasuna (pausoak·s <sup>-1</sup> )	2.77 ± 0.16	2.79 ± 0.15	EA	2.81 ± 0.11	2.78 ± 0.11	<b>0.01**</b>
	Pausoaren luzera (cm)	118.95 ± 5.74	117.93 ± 5.24	EA	118.53 ± 5.58	119.05 ± 4.21	EA
	Pausoaren angelua (graduak)	0.75 ± 0.49	0.68 ± 0.32	EA	0.66 ± 0.37	0.69 ± 0.47	EA
	Oinkada luzera (cm)	236.81 ± 11.19	235.71 ± 11.63	EA	235.06 ± 11.33	237.03 ± 10.11	EA
<b>14 km·o<sup>-1</sup></b>	Hegaldi denbora (s)	0.08 ± 0.02	0.07 ± 0.02	EA	0.07 ± 0.02	0.07 ± 0.02	EA
	Kontaktu denbora (s)	0.27 ± 0.02	0.27 ± 0.02	EA	0.27 ± 0.02	0.27 ± 0.02	EA
	Pausoaren altura (cm)	0.75 ± 0.46	0.72 ± 0.44	EA	0.66 ± 0.31	0.69 ± 0.45	EA
	Maiztasuna (pausoak·s <sup>-1</sup> )	2.91 ± 0.12	2.92 ± 0.11	EA	2.89 ± 0.12	2.91 ± 0.12	EA
	Pausoaren luzera (cm)	132.71 ± 6.32	133.74 ± 5.98	EA	134.08 ± 6.32	134.11 ± 6.37	EA
	Pausoaren angelua (graduak)	1.02 ± 0.52	1.24 ± 0.72	EA	1.04 ± 0.52	1.13 ± 0.67	EA
	Oinkada luzera (cm)	267.10 ± 12.20	266.76 ± 13.47	EA	267.63 ± 13.77	267.74 ± 12.65	EA
<b>16 km·o<sup>-1</sup></b>	Hegaldi denbora (s)	0.09 ± 0.02	0.10 ± 0.03	EA	0.10 ± 0.03	0.10 ± 0.02	EA
	Kontaktu denbora (s)	0.24 ± 0.03	0.24 ± 0.02	EA	0.24 ± 0.03	0.24 ± 0.02	EA
	Pausoaren altura (cm)	1.03 ± 0.55	1.23 ± 0.62	<b>0.02*</b>	1.10 ± 0.48	1.20 ± 0.59	EA
	Maiztasuna (pausoak·s <sup>-1</sup> )	3.02 ± 0.14	3.00 ± 0.17	EA	3.00 ± 0.14	3.00 ± 0.14	EA
	Pausoaren luzera (cm)	147.53 ± 6.94	148.69 ± 8.31	EA	148.37 ± 7.17	148.52 ± 6.86	EA
	Pausoaren angelua (graduak)	1.40 ± 0.58	1.91 ± 0.92	<b>0.01**</b>	1.69 ± 0.72	1.71 ± 0.91	EA
	Oinkada luzera (cm)	294.64 ± 15.36	297.39 ± 16.04	EA	296.56 ± 13.88	297.18 ± 14.66	EA

PRE: 3. egunean neurtutako parametroak; POST: 5. egunean neurtutako parametroak; EA: Ez Adierazgarria.

\*p < 0.05; \*\*p < 0.01.

<b>Km/aste korrika</b>	0.00	0.00	0.04	0.09	0.09	-0.05	0.02
<b>Km/egun korrika</b>	0.06	-0.10	0.07	0.40	-0.06	-0.15	-0.14
<b>Orduak/aste korrika</b>	0.02	0.12	-0.01	0.06	0.07	-0.20	-0.03
<b>Min/egun korrika</b>	-0.04	0.18	-0.04	0.21	0.05	-0.39	-0.00
<b>Egunak/aste korrika</b>	0.02	0.14	0.01	-0.04	0.11	-0.16	0.00
<b>Adina</b>	-0.20	0.15	-0.18	0.16	0.21	-0.31	0.18
<b>Pisua</b>	0.12	0.05	0.06	-0.20	0.19	0.14	0.07
<b>Altuera</b>	0.33	-0.17	0.30	0.04	0.00	0.34	0.03
<b>GMI</b>	-0.06	0.27	-0.13	-0.38	0.33	-0.04	0.21
<b>Gantz %</b>	-0.23	-0.18	-0.24	0.12	-0.12	-0.10	-0.18
<b>Hezur %</b>	0.29	-0.18	0.35	0.10	0.00	0.25	0.07
<b>Gihar %</b>	0.22	0.17	0.21	-0.21	0.12	0.07	0.17
<b>Endormorfia</b>	-0.24	-0.19	-0.27	0.11	-0.11	-0.05	-0.15
<b>Mesomorfia</b>	0.02	0.15	-0.01	-0.29	0.44	-0.01	0.34
<b>Ektomorfia</b>	0.14	-0.26	0.19	0.32	-0.27	0.13	-0.20

P.: Pausoaren; GMI: Gorputz Masa Indizea.

\*p < 0.05.

**39. Taula.** Ur hotzeko murgilketa taldearen parametro biomekanikoen aldaketen eta parametro fisiologikoen, laktatoaren, esfortzu pertzepzioaren balorazioen eta malgutasunaren parametroen aldaketen arteko korrelazioa 16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

16 km·o <sup>-1</sup>	Hegaldi denbora	Kontaktu denbora	P. altuera	P. maiztasuna	P. luzera	P. angelua	Oinkada luzera
<b>VO<sub>2</sub>/kg</b>	0.32	-0.32	0.35	-0.11	0.12	0.33	-0.03
<b>RE</b>	0.32	-0.32	0.35	-0.11	0.12	0.33	-0.03
<b>RER</b>	0.08	-0.18	-0.16	0.40	-0.32	-0.08	-0.20
<b>BM</b>	0.22	-0.19	0.28	0.09	-0.17	0.24	-0.35
<b>V<sub>E</sub></b>	<b>0.72**</b>	-0.50	<b>0.68**</b>	-0.16	0.19	<b>0.54*</b>	0.03
<b>Laktatoa</b>	-0.07	-0.24	-0.32	<b>0.60*</b>	<b>-0.59*</b>	-0.17	<b>-0.56*</b>
<b>Borg kardiobaskularra</b>	0.17	-0.49	0.10	0.45	<b>-0.52*</b>	0.15	<b>-0.78**</b>
<b>Borg muskularra</b>	0.06	-0.16	0.08	0.16	-0.13	0.07	-0.28
<b>Eskumako koadrizepsa</b>	0.02	-0.29	-0.13	0.47	-0.40	-0.03	-0.31
<b>Ezkerreko koadrizepsa</b>	0.06	-0.26	-0.02	0.37	-0.32	0.04	-0.17
<b>Eskumako iskiotibiala</b>	-0.12	0.20	0.10	-0.14	0.25	0.05	0.47
<b>Ezkerreko iskiotibiala</b>	<b>-0.53*</b>	0.44	-0.42	-0.13	0.15	-0.45	0.10
<b>Eskumako trizeps surala</b>	0.13	-0.15	-0.04	0.00	-0.03	0.06	-0.21
<b>Ezkerreko trizeps surala</b>	-0.45	0.36	-0.29	0.08	-0.05	-0.25	0.13

P.: Pausoaren; VO<sub>2</sub>/kg: Oxigeno kontsumoa erlatiboa; RE: Lasterketa ekonomia; RER: Arnas truke ratioa; BM: Bihotz-Maiztasuna; V<sub>E</sub>: Aireztapen bolumena.

\*p< 0.05; \*\*p< 0.01.

**40. Taula.** Ur hotzeko murgilketa taldearen parametro biomekanikoen aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa 16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

16 km·o <sup>-1</sup>	Hegaldi denbora	Kontaktu denbora	P. altuera	P. maiztasuna	P. luzera	P. angelua	Oinkada luzera
<b>Urteak korrika</b>	-0.37	0.34	-0.36	0.12	-0.01	-0.30	0.15
<b>Km/aste korrika</b>	-0.28	0.09	-0.30	0.15	-0.12	-0.29	-0.14
<b>Km/egun korrika</b>	-0.19	-0.14	-0.15	0.43	-0.46	-0.15	-0.48
<b>Orduak/aste korrika</b>	0.14	0.03	0.01	-0.06	0.07	-0.09	0.02
<b>Min/egun korrika</b>	0.08	-0.08	0.08	0.09	-0.09	0.00	-0.12
<b>Egunak/aste korrika</b>	-0.17	0.15	-0.13	-0.01	0.06	-0.17	0.10
<b>Adina</b>	<b>-0.76**</b>	<b>0.57*</b>	<b>-0.62*</b>	0.20	-0.17	<b>-0.56*</b>	0.09
<b>Pisua</b>	-0.11	0.27	-0.06	-0.08	0.18	-0.08	0.26
<b>Altuera</b>	0.20	-0.22	0.23	0.01	-0.06	0.23	-0.16
<b>GMI</b>	-0.31	<b>0.55*</b>	-0.26	-0.23	0.37	-0.27	0.51
<b>Gantz %</b>	-0.30	0.22	-0.34	0.24	-0.18	-0.23	-0.08
<b>Hezur %</b>	-0.11	-0.15	0.07	0.09	-0.14	0.10	-0.14
<b>Gihar %</b>	0.32	-0.14	0.33	-0.32	0.27	0.21	0.16
<b>Endormorfia</b>	-0.28	0.19	-0.36	0.23	-0.18	-0.23	-0.11
<b>Mesomorfia</b>	-0.34	<b>0.58*</b>	-0.26	-0.20	0.33	-0.27	<b>0.54*</b>
<b>Ektomorfia</b>	0.47	<b>-0.68**</b>	0.41	0.16	-0.29	0.42	-0.45

P.: Pausoaren; GMI: Gorputz Masa Indizea.

\*p< 0.05; \*\*p< 0.01.

### 5.5.2 Ur hotzeko murgilketa taldearen parametro fisiologikoen eta beste parametroen arteko korrelazioa

14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran oxigeno kontsumo erlatiboak erlazio positiboa izan zuen korrikalarietako korrika egiten zituzten kilometroak asteko parametroarekin ( $r=0.53$ ,  $p<0.05$ ). RER-aren eta 14 km·o<sup>-1</sup>-ko laktatoaren arteko korrelazioa 0.79 izan zen ( $p<0.01$ ). Bestalde, bihotz-maiztasunak alderantzizko erlazioa izan zuen ezkerreko iskiotibialaren malgutasunarekin ( $r=-0.55$ ,  $p<0.05$ ), korrikalarietako korrika egiten zituzten kilometroak asteko parametroarekin ( $r=-0.64$ ,  $p<0.01$ ) eta korrika egiten zituzten egunak asteko parametroarekin ( $r=-0.55$ ,  $p<0.05$ ).  $V_E$  -ak erlazio positiboa izan zuen 14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduraren Borg kardiobaskularrekin, korrikalarietako korrika egiten zituzten minutuak eguneko parametroarekin eta gihar %-rekin ( $r=0.52$ ,  $p<0.05$ ;  $r=0.63$ ,  $p<0.01$ ;  $r=0.57$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren), eta alderantzizko erlazioa gantz %-rekin eta endomorfiarekin ( $r=-0.53$ ,  $p<0.05$ ;  $r=-0.60$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren) (41. Taula).

16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran oxigeno kontsumo erlatiboak erlazio positiboa izan zuen korrikalarietako korrika egiten zituzten kilometroak eta egunak asteko parametroekin ( $r=0.70$ ,  $p<0.01$ ;  $r=0.56$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren). Bestalde, RER-ak erlazio positiboa izan zuen 16 km·o<sup>-1</sup>-ko laktatoarekin ( $r=0.59$ ,  $p<0.05$ ). Bihotz-maiztasunaren kasuan, erlazio positiboa izan zuen Borg kardiobaskularrekin eta altuerarekin ( $r=0.70$ ,  $p<0.01$ ;  $r=0.58$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren), eta alderantzizko erlazioa eskumako iskiotibialaren malgutasunarekin ( $r=-0.58$ ,  $p<0.05$ ).  $V_E$ -ak alderantzizko erlazioa izan zuen adinarekin eta endomorfiarekin ( $r=-0.57$ ,  $p<0.05$ ;  $r=-0.56$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren) (42. Taula).

**41. Taula.** UHM taldearen parametro fisiologikoen aldaketen eta laktatoaren, esfortzu pertzepzioaren balorazioen eta malgutasunaren parametroen aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa 14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

14 km·o <sup>-1</sup>	VO <sub>2</sub> /kg	RER	BM	V <sub>E</sub>
<b>Laktatoa</b>	-0.19	<b>0.79**</b>	0.42	-0.06
<b>Borg kardiobaskularra</b>	0.11	0.01	0.23	<b>0.52*</b>
<b>Borg muskularra</b>	0.30	-0.16	0.22	0.33
<b>Eskumako koadrizepsa</b>	0.25	0.18	-0.22	0.11
<b>Ezkerreko koadrizepsa</b>	0.31	0.29	-0.07	0.25
<b>Eskumako iskiotibiala</b>	0.30	-0.14	-0.47	0.25
<b>Ezkerreko iskiotibiala</b>	0.00	-0.46	<b>-0.55*</b>	-0.09
<b>Eskumako trizeps surala</b>	-0.23	-0.05	-0.11	-0.34
<b>Ezkerreko trizeps surala</b>	0.12	-0.15	-0.24	0.07
<b>Urteak korrika</b>	-0.17	0.12	-0.37	-0.04
<b>Km/aste korrika</b>	<b>0.53*</b>	-0.25	<b>-0.64**</b>	0.01
<b>Km/egun korrika</b>	0.41	-0.12	-0.07	0.32
<b>Orduak/aste korrika</b>	0.06	-0.11	-0.07	0.35
<b>Min/egun korrika</b>	0.20	-0.11	0.02	<b>0.63**</b>
<b>Egunak/aste korrika</b>	0.37	-0.40	<b>-0.55*</b>	0.02
<b>Adina</b>	-0.25	0.09	-0.21	-0.12
<b>Pisua</b>	-0.31	0.09	0.10	-0.22
<b>Altuera</b>	-0.22	-0.04	0.37	-0.23
<b>GMI</b>	-0.24	0.08	-0.24	-0.16
<b>Gantz %</b>	-0.36	0.26	0.05	<b>-0.53*</b>
<b>Hezur %</b>	0.30	-0.37	-0.10	-0.14
<b>Gihar %</b>	0.21	-0.25	0.03	<b>0.57*</b>
<b>Endormorfia</b>	-0.35	0.31	0.07	<b>-0.60*</b>
<b>Mesomorfia</b>	-0.10	0.17	-0.29	-0.15
<b>Ektomorfia</b>	0.12	-0.07	0.32	0.09

VO<sub>2</sub>/kg: Oxigeno kontsumoa erlatiboa; RER: Arnas truke ratioa; BM: Bihotz-Maiztasuna; V<sub>E</sub>: Aireztapen bolumena; GMI: Gorputz Masa Indizea.

\*p< 0.05; \*\*p< 0.01.

**42. Taula.** UHM taldearen parametro fisiologikoen aldaketen eta laktatoaren, esfortzu pertzepzioaren balorazioen eta malgutasunaren parametroen aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa 16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

16 km·o <sup>-1</sup>	VO <sub>2</sub> /kg	RER	BM	V <sub>E</sub>
<b>Laktatoa</b>	-0.13	<b>0.59*</b>	0.08	-0.27
<b>Borg kardiobaskularra</b>	0.05	0.03	<b>0.70**</b>	0.26
<b>Borg muskularra</b>	0.39	-0.05	0.12	0.34
<b>Eskumako koadrizepsa</b>	0.22	0.17	-0.39	0.25
<b>Ezkerreko koadrizepsa</b>	0.03	0.42	-0.40	0.29
<b>Eskumako iskiotibiala</b>	0.37	-0.11	<b>-0.58*</b>	0.30
<b>Ezkerreko iskiotibiala</b>	0.19	-0.39	-0.16	-0.16
<b>Eskumako trizeps surala</b>	-0.19	-0.11	0.03	-0.22
<b>Ezkerreko trizeps surala</b>	-0.02	-0.42	-0.32	-0.25
<b>Urteak korrika</b>	-0.11	-0.02	-0.46	-0.19
<b>Km/aste korrika</b>	<b>0.70**</b>	-0.50	-0.53	0.14
<b>Km/egun korrika</b>	0.48	-0.36	0.11	0.29
<b>Orduak/aste korrika</b>	0.14	-0.35	-0.06	0.23
<b>Min/egun korrika</b>	0.16	-0.28	0.07	0.36
<b>Egunak/aste korrika</b>	<b>0.56*</b>	-0.52	-0.51	0.26
<b>Adina</b>	-0.12	-0.30	-0.39	<b>-0.57*</b>
<b>Pisua</b>	-0.18	0.24	0.21	-0.06
<b>Altuera</b>	-0.08	0.03	<b>0.58*</b>	0.05
<b>GMI</b>	-0.25	0.18	-0.163	-0.27
<b>Gantz %</b>	-0.27	0.15	-0.05	-0.50
<b>Hezur %</b>	0.47	-0.34	-0.06	0.16
<b>Gihar %</b>	0.04	-0.07	0.10	0.37
<b>Endormorfia</b>	-0.34	0.25	-0.03	<b>-0.56*</b>
<b>Mesomorfia</b>	-0.06	-0.05	-0.44	-0.35
<b>Ektomorfia</b>	0.21	0.00	0.37	0.39

VO<sub>2</sub>/kg: Oxigeno kontsumoa erlatiboa; RER: Arnas truke ratioa; BM: Bihotz-Maiztasuna; V<sub>E</sub>: Aireztapen bolumena; GMI: Gorputz Masa Indizea.

\*p< 0.05; \*\*p< 0.01.



---

### 5.5.3 Ur hotzeko murgilketa taldearen laktatoaren eta esfortzu pertzepzioaren balorazioen eta beste parametroen arteko korrelazioa

14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran laktatoak erlazio negatiboa izan zuen ezkerreko iskiotibialaren malgutasunarekin eta korrikalariak korrika egiten zituzten egunak asteko parametroarekin ( $r=-0.70$ ,  $p<0.01$ ;  $r=-0.57$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren). Borg kardiobaskularraren kasuan, erlazioa positiboa izan zuen 14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduraren Borg muskularrarekin eta korrikalariak korrika egiten zituzten minutuak eguneko parametroarekin ( $r=0.53$ ,  $p<0.05$ ;  $r=0.65$ ,  $p<0.01$ , hurrenez hurren) (43. Taula).

16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran Borg kardiobaskularrak erlazio positiboa izan zuen ektomorfiarekin ( $r=0.56$ ,  $p<0.05$ ) eta alderantzizko erlazioa eskumako iskiotibialaren malgutasunarekin eta mesomorfiarekin ( $r=-0.50$ ,  $p<0.05$ ;  $r=-0.63$ ,  $p<0.01$ , hurrenez hurren) (44. Taula).

**43. Taula.** UHM taldearen laktatoaren eta esfortzu pertzepzioaren balorazioen aldaketen eta malgutasun parametroen aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa 14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

14 km·o <sup>-1</sup>	Laktatoa	Borg kardiobaskularra	Borg muskularra
<b>Borg kardiobaskularra</b>	-0.11		
<b>Borg muskularra</b>	-0.11	<b>0.53*</b>	
<b>Eskumako koadrizepsa</b>	0.33	0.36	0.25
<b>Ezkerreko koadrizepsa</b>	0.30	0.22	0.17
<b>Eskumako iskiotibiala</b>	-0.17	-0.20	0.07
<b>Ezkerreko iskiotibiala</b>	<b>-0.70**</b>	0.02	-0.10
<b>Eskumako trizeps surala</b>	-0.04	0.03	-0.14
<b>Ezkerreko trizeps surala</b>	-0.27	0.01	-0.12
<b>Urteak korrika</b>	-0.06	-0.04	-0.04
<b>Km/aste korrika</b>	-0.32	0.03	-0.18
<b>Km/egun korrika</b>	-0.07	0.41	-0.01
<b>Orduak/aste korrika</b>	-0.17	0.40	0.07
<b>Min/egun korrika</b>	-0.06	<b>0.65**</b>	0.25
<b>Egunak/aste korrika</b>	<b>-0.57*</b>	0.07	-0.08
<b>Adina</b>	-0.17	-0.10	-0.27
<b>Pisua</b>	0.07	-0.05	0.18
<b>Altuera</b>	0.27	0.03	0.03
<b>GMI</b>	-0.24	-0.13	0.03
<b>Gantz %</b>	0.00	-0.06	0.00
<b>Hezur %</b>	-0.03	-0.18	0.02
<b>Gihar %</b>	-0.12	0.22	0.12
<b>Endormorfia</b>	0.03	-0.07	-0.04
<b>Mesomorfia</b>	-0.10	-0.32	-0.07
<b>Ektomorfia</b>	0.26	0.23	-0.03

GMI: Gorputz Masa Indizea.

\*p< 0.05; \*\*p< 0.01.

**44. Taula.** UHM taldearen laktatoaren eta esfortzu pertzepzioaren balorazioen aldaketen eta malgutasun parametroen aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa 16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

16 km·o <sup>-1</sup>	Laktatoa	Borg kardiobaskularra	Borg muskularra
<b>Borg kardiobaskularra</b>	0.29		
<b>Borg muskularra</b>	0.20	0.43	
<b>Eskumako koadrizepsa</b>	0.29	0.19	0.41
<b>Ezkerreko koadrizepsa</b>	0.15	0.01	0.22
<b>Eskumako iskiotibiala</b>	-0.39	<b>-0.50*</b>	0.07
<b>Ezkerreko iskiotibiala</b>	-0.39	-0.17	-0.08
<b>Eskumako trizeps surala</b>	0.06	0.19	0.05
<b>Ezkerreko trizeps surala</b>	-0.32	-0.22	-0.36
<b>Urteak korrika</b>	-0.13	-0.32	0.05
<b>Km/aste korrika</b>	-0.05	-0.02	-0.07
<b>Km/egun korrika</b>	0.05	0.44	-0.05
<b>Orduak/aste korrika</b>	-0.09	0.09	-0.02
<b>Min/egun korrika</b>	-0.04	0.38	0.14
<b>Egunak/aste korrika</b>	-0.41	-0.26	-0.16
<b>Adina</b>	-0.16	-0.37	-0.33
<b>Pisua</b>	0.11	-0.14	-0.08
<b>Altuera</b>	0.13	0.38	0.01
<b>GMI</b>	-0.04	-0.50	-0.29
<b>Gantz %</b>	0.20	-0.23	-0.08
<b>Hezur %</b>	-0.20	0.13	0.18
<b>Gihar %</b>	-0.17	0.22	0.08
<b>Endormorfia</b>	0.29	-0.21	-0.14
<b>Mesomorfia</b>	-0.01	<b>-0.63**</b>	-0.28
<b>Ektomorfia</b>	0.09	<b>0.56*</b>	0.19

GMI: Gorputz Masa Indizea.

\*p< 0.05; \*\*p< 0.01.

#### 5.5.4 Ur hotzeko murgilketa taldearen malgutasunaren eta beste parametroen arteko korrelazioa

Eskumako iskiotibialaren malgutasunak erlazio positiboa izan zuen korrikalariak korrika egiten zeramatzen urte kopuruarekin ( $r=0.52$ ,  $p<0.05$ ) eta ezkerreko iskiotibialaren malgutasunak erlazio positiboa izan zuen korrikalariak korrika egiten zituzten kilometroak asteko parametroarekin ( $r=0.53$ ,  $p<0.05$ ). Eskumako trizeps suralaren malgutasunak alderantzizko erlazioa izan zuen hezur %-rekin ( $r=-0.53$ ,  $p<0.05$ ) eta ezkerreko trizeps suralak erlazio positiboa izan zuen korrikalariak korrika egiten zeramatzen urte kopuruarekin, korrika egiten zituzten egunak asteko parametroarekin, adinarekin eta mesomorfiarekin ( $r=0.57$ ,  $p<0.05$ ;  $r=0.55$ ,  $p<0.05$ ;  $r=0.62$ ,  $p<0.05$ ;  $r=0.50$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren) (45. Taula).

**45. Taula.** Ur hotzeko murgilketa taldearen malgutasunaren aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa.

	Eskumako koadrizepsa	Ezkerreko koadrizepsa	Eskumako iskiotibiala	Ezkerreko iskiotibiala	Eskumako trizeps surala	Ezkerreko trizeps surala
<b>Urteak korrika</b>	0.49	0.47	<b>0.52*</b>	0.11	0.40	<b>0.57*</b>
<b>Km/aste korrika</b>	0.04	-0.25	0.20	<b>0.53*</b>	-0.06	0.43
<b>Km/egun korrika</b>	-0.03	-0.19	-0.01	0.26	-0.39	0.24
<b>Orduak/aste korrika</b>	0.30	-0.13	-0.19	-0.03	0.36	0.24
<b>Min/egun korrika</b>	0.45	0.13	-0.06	-0.14	0.04	0.23
<b>Egunak/aste korrika</b>	0.04	-0.10	0.37	0.49	0.11	<b>0.55*</b>
<b>Adina</b>	0.03	0.04	0.40	0.46	-0.09	<b>0.62*</b>
<b>Pisua</b>	-0.08	-0.41	-0.04	0.09	-0.07	-0.01
<b>Altuera</b>	-0.02	-0.26	-0.38	-0.22	-0.14	-0.30
<b>GMI</b>	-0.15	-0.36	0.18	0.34	0.10	0.29
<b>Gantz %</b>	0.03	-0.09	-0.06	0.13	0.43	0.21
<b>Hezur %</b>	-0.02	0.09	0.26	0.14	<b>-0.53*</b>	-0.07
<b>Gihar %</b>	-0.07	-0.08	-0.15	-0.09	-0.20	-0.20
<b>Endormorfia</b>	-0.01	-0.11	-0.18	0.10	0.48	0.17
<b>Mesomorfia</b>	-0.05	-0.21	0.39	0.19	0.06	<b>0.50*</b>
<b>Ektomorfia</b>	0.12	0.23	-0.31	-0.34	-0.20	-0.49

GMI: Gorputz Masa Indizea.

\* $p < 0.05$ ; \*\* $p < 0.01$ .

## 5.6 T.E.C.A.R. terapia taldearen parametro desberdinen arteko korrelazioa

T.E.C.A.R. terapiaren eragina neurtzeko parametro batzuen aldaketak (parametro biomekanikoak, fisiologikoak, laktatoa, esfortzu pertzepzioaren balorazioak eta malgutasuna) kalkulatu ziren post-aren eta pre-aren arteko kenketa eginez. Ondoren, aldaketa hauen korrelazioak kalkulatu ziren.

### 5.6.1 T.E.C.A.R. terapia taldearen parametro biomekanikoen eta beste parametroen arteko korrelazioa

14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran hegaldi denborak erlazio negatiboa izan zuen korrikalariak korrika egiten zeramatzen urte kopuruarekin eta kilometroak eguneko parametroarekin ( $r=-0.53$ ,  $p<0.05$ ;  $r=-0.52$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren). Ostera, kontaktu denborak erlazio positiboa izan zuen korrikalariak korrika egiten zeramatzen urte kopuruarekin ( $r=0.50$ ,  $p<0.05$ ). Bederen, pausoaren altuerak erlazio positiboa izan zuen VO<sub>2</sub>/kg-rekin ( $r=0.56$ ,  $p<0.05$ ). Pausoaren angeluaren eta kilometroak korrika eguneko parametroaren arteko korrelazioa  $-0.59$  izan zen ( $p<0.05$ ). Azkenik, oinkada luzerak alderantzizko erlazioa izan zuen korrikalariak korrika egiten zituzten kilometroak asteko eta egunak asteko parametroekin ( $r=-0.50$ ,  $p<0.05$ ;  $r=-0.52$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren) (46. eta 47. Taulak).

16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran hegaldi denborak erlazio positiboa izan zuen altuerarekin ( $r=0.57$ ,  $p<0.05$ ). Kontaktu denborari dagokionez, erlazio positiboa izan zuen korrikalariak korrika egiten zituzten orduak asteko parametroarekin eta GMI-rekin ( $r=0.57$ ,  $p<0.05$ ;  $r=0.50$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren), eta erlazio negatiboa hezur %-rekin eta ektomorfiarekin ( $r=-0.53$ ,  $p<0.01$ ;  $r=-0.61$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren). Pausoaren altuerari dagokionez, alderantzizko erlazioa izan zuen VO<sub>2</sub>/kg-rekin, RER-arekin eta BM-arekin ( $r=-0.62$ ,  $p<0.05$ ;  $r=-0.56$ ,  $p<0.05$ ;  $r=-0.51$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren). Aldiz, pausoaren luzerak erlazio positiboa izan zuen VO<sub>2</sub>/kg-rekin, RER-arekin eta BM-arekin ( $r=0.63$ ,  $p<0.05$ ;  $r=0.50$ ,  $p<0.05$ ;  $r=0.65$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren). Era berean, oinkada luzerak erlazio positiboa izan zuen VO<sub>2</sub>/kg-rekin, RER-arekin eta BM-arekin ( $r=0.51$ ,  $p<0.05$ ;  $r=0.50$ ,  $p<0.05$ ;  $r=0.64$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren). Azkenik, pausoaren angeluak erlazio positiboa izan zuen altuerarekin ( $r=0.55$ ,  $p<0.05$ ) (48. eta 49. Taulak).

**46. Taula.** T.E.C.A.R. terapia taldearen parametro biomekanikoen aldaketen eta parametro fisiologikoen, laktatoaren, esfortzu pertzepzioaren balorazioen eta malgutasunaren parametroen aldaketen arteko korrelazioa 14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

14 km·o <sup>-1</sup>	Hegaldi denbora	Kontaktu denbora	P. altuera	P. maiztasuna	P. luzera	P. angelua	Oinkada luzera
<b>VO<sub>2</sub>/kg</b>	0.66	-0.33	<b>0.56*</b>	-0.09	-0.09	0.66	0.09
<b>RE</b>	-0.17	-0.17	-0.54	0.07	0.02	-0.45	0.02
<b>RER</b>	-0.29	0.07	0.00	0.43	-0.43	0.00	-0.29
<b>BM</b>	-0.43	0.17	-0.22	0.43	-0.39	-0.28	-0.73
<b>V<sub>E</sub></b>	-0.12	-0.06	0.00	-0.04	-0.19	-0.12	-0.04
<b>Laktatoa</b>	0.31	-0.20	0.49	0.36	-0.14	0.52	-0.16
<b>Eskumako koadrizepsa</b>	0.49	-0.07	0.41	-0.36	0.31	0.36	0.16
<b>Ezkerreko koadrizepsa</b>	0.29	-0.32	0.21	0.54	-0.21	0.39	-0.07
<b>Eskumako iskiotibiala</b>	0.34	-0.34	0.49	0.13	-0.34	0.31	-0.41
<b>Ezkerreko iskiotibiala</b>	-0.02	0.02	-0.13	-0.14	0.04	-0.20	-0.20
<b>Eskumako trizeps surala</b>	0.19	0.28	0.26	-0.70	0.59	0.15	0.41
<b>Ezkerreko trizeps surala</b>	0.55	-0.59	0.72	0.51	-0.46	0.64	-0.44

P.: Pausoaren; VO<sub>2</sub>/kg: Oxigeno kontsumoa erlatiboa; RE: Lasterketa ekonomia; RER: Arnas truke ratioa; BM: Bihotz-Maiztasuna; V<sub>E</sub>: Aireztapen bolumena.

\*p < 0.05.

**47. Taula.** T.E.C.A.R. terapia taldearen parametro biomekanikoen aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa 14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

14 km·o <sup>-1</sup>	Hegaldi denbora	Kontaktu denbora	P. altuera	P. maiztasuna	P. luzera	P. angelua	Oinkada luzera
<b>Urteak korrika</b>	<b>-0.53*</b>	<b>0.50*</b>	-0.68	-0.09	-0.02	-0.74	-0.34
<b>Km/aste korrika</b>	-0.51	0.10	-0.27	0.55	-0.58	-0.36	<b>-0.50*</b>
<b>Km/egun korrika</b>	<b>-0.52*</b>	0.66	-0.60	-0.36	0.00	<b>-0.59*</b>	-0.30
<b>Orduak/aste korrika</b>	-0.15	0.19	0.17	0.22	-0.24	0.06	-0.60
<b>Min/egun korrika</b>	0.32	0.17	0.32	-0.61	0.61	0.32	0.67
<b>Egunak/aste korrika</b>	-0.37	0.10	-0.11	0.49	-0.51	-0.21	<b>-0.52*</b>
<b>Adina</b>	-0.52	0.52	-0.58	-0.63	0.40	-0.72	0.02
<b>Pisua</b>	-0.20	0.55	0.36	-0.09	-0.22	0.18	-0.38
<b>Altuera</b>	-0.41	0.19	-0.04	0.23	-0.63	-0.23	-0.63
<b>GMI</b>	0.07	0.45	0.39	-0.29	0.25	0.32	0.00
<b>Gantz %</b>	0.14	0.20	0.57	-0.07	-0.21	0.36	-0.43
<b>Hezur %</b>	-0.21	-0.27	-0.50	0.18	-0.18	-0.43	0.07
<b>Gihar %</b>	-0.18	-0.16	-0.64	0.04	0.29	-0.43	0.39
<b>Endormorfia</b>	0.29	0.20	0.64	-0.21	-0.04	0.46	-0.21
<b>Mesomorfia</b>	0.21	0.09	0.36	0.04	0.18	0.43	0.14
<b>Ektomorfia</b>	-0.07	-0.45	-0.39	0.29	-0.25	-0.32	0.00

P.: Pausoaren; GMI: Gorputz Masa Indizea.

\*p< 0.05.



**48. Taula.** T.E.C.A.R. terapia taldearen parametro biomekanikoen aldaketen eta parametro fisiologikoen, laktatoaren, esfortzu pertzepzioaren balorazioen eta malgutasunaren parametroen aldaketen arteko korrelazioa 16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

16 km·o <sup>-1</sup>	Hegaldi denbora	Kontaktu denbora	P. altuera	P. maiztasuna	P. luzera	P. angelua	Oinkada luzera
<b>VO<sub>2</sub>/kg</b>	0.42	-0.30	<b>-0.62*</b>	-0.48	<b>0.63*</b>	0.48	<b>0.51*</b>
<b>RE</b>	-0.19	0.57	0.47	0.24	-0.38	-0.09	-0.38
<b>RER</b>	0.14	0.14	<b>-0.56*</b>	0.07	<b>0.50*</b>	0.14	<b>0.50*</b>
<b>BM</b>	0.30	0.24	<b>-0.51*</b>	0.00	<b>0.65*</b>	0.18	<b>0.64*</b>
<b>VE</b>	-0.61	-0.40	-0.53	0.24	0.53	-0.13	0.53
<b>Laktatoa</b>	-0.59	0.40	-0.31	0.12	0.09	-0.70	0.09
<b>Eskumako koadrizepsa</b>	-0.13	0.40	0.40	0.43	-0.23	0.05	-0.23
<b>Ezkerreko koadrizepsa</b>	-0.61	0.21	-0.64	0.11	0.61	-0.14	0.61
<b>Eskumako iskiotibiala</b>	0.56	0.14	0.05	0.14	0.16	0.52	0.16
<b>Ezkerreko iskiotibiala</b>	-0.02	-0.04	0.18	-0.04	0.02	0.38	0.02
<b>Eskumako trizeps surala</b>	0.11	0.52	0.63	0.45	-0.70	-0.48	-0.70
<b>Ezkerreko trizeps surala</b>	0.18	0.48	-0.50	0.35	0.57	0.11	0.57

P.: Pausoaren; VO<sub>2</sub>/kg: Oxigeno kontsumoa erlatiboa; RE: Lasterketa ekonomia; RER: Arnas truke ratioa; BM: Bihotz-Maiztasuna; V<sub>E</sub>: Aireztapen bolumena.

\*p < 0.05.

49. Taula. T.E.C.A.R. terapia taldearen parametro biomekanikoen aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa 16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

16 km·o <sup>-1</sup>	Hegaldi denbora	Kontaktu denbora	P. altuera	P. maiztasuna	P. luzera	P. angelua	Oinkada luzera
Urteak korrika	0.02	0.11	-0.07	-0.71	-0.04	0.02	-0.04
Km/aste korrika	0.13	0.18	-0.65	-0.52	0.69	0.36	0.69
Km/egun korrika	0.54	-0.24	0.42	-0.63	-0.36	0.42	-0.36
Orduak/aste korrika	0.00	<b>0.57*</b>	-0.39	-0.12	0.39	0.02	0.39
Min/egun korrika	-0.04	0.33	0.57	0.50	-0.71	-0.61	-0.71
Egunak/aste korrika	0.06	0.39	-0.62	-0.40	0.65	0.28	0.65
Adina	0.20	-0.13	0.58	-0.18	-0.54	0.04	-0.54
Pisua	0.56	0.63	0.18	-0.38	-0.14	0.32	-0.14
Altuera	<b>0.57*</b>	-0.29	0.04	-0.67	0.11	<b>0.55*</b>	0.11
GMI	-0.11	<b>0.50*</b>	0.14	0.13	-0.21	-0.32	-0.21
Gantz %	0.54	0.68	0.18	-0.05	-0.04	0.39	-0.04
Hezur %	0.14	<b>-0.53**</b>	-0.04	-0.23	0.07	0.29	0.07
Gihar %	-0.68	-0.57	-0.21	0.09	0.07	-0.46	0.07
Endormorfia	0.39	0.71	0.32	0.09	-0.18	0.29	-0.18
Mesomorfia	-0.43	0.75	-0.25	0.29	0.07	-0.61	0.07
Ektomorfia	0.11	<b>-0.61*</b>	-0.14	-0.13	0.21	0.32	0.21
Adina	0.20	-0.13	0.58	-0.18	-0.54	0.04	-0.54

P.: Pausoaren; GMI: Gorputz Masa Indizea.

\*p< 0.05; \*\*p< 0.01.

### 5.6.2 T.E.C.A.R. terapia taldearen parametro fisiologikoen eta beste parametroen arteko korrelazioa

14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran oxigeno kontsumo erlatiboak korrikalariak korrika zeramatzen urteekin erlazio negatiboa izan zuen ( $r=-0.60$ ,  $p<0.05$ ). RER-ak erlazio negatiboa izan zuen eskumako koadrizepsaren malgutasunarekin eta ezkerreko iskiotibialaren malgutasunarekin ( $r=-0.87$ ,  $p<0.05$ ;  $r=-0.71$ ,  $p<0.05$ ). BM-ak erlazio positiboa izan zuen korrikalariak korrika egiten zituzten kilometroak asteko, orduak asteko eta egunak asteko parametroekin ( $r=0.54$ ,  $p<0.05$ ;  $r=0.61$ ,  $p<0.05$ ;  $r=0.60$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren). Azkenik,  $V_E$ -k alderantzizko erlazioa izan zuen ezkerreko koadrizepsaren malgutasunarekin ( $r=-0.51$ ,  $p<0.05$ ) (50. Taula).

16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran, lasterketa ekonomiak erlazio positiboa izan zuen eskumako koadrizepsaren malgutasunarekin ( $r=0.66$ ,  $p<0.05$ ). Bestalde, RER-ak eta BM-ak erlazio positiboa izan zuten ezkerreko trizeps suralaren malgutasunarekin ( $r=0.51$ ,  $p<0.05$ ,  $r=0.53$ ,  $p<0.05$ , hurrenez hurren). Azkenik,  $V_E$ -k alderantzizko erlazioa izan zuen pisuarekin ( $r=-0.63$ ,  $p<0.05$ ) (51. Taula).

**50. Taula.** T.E.C.A.R. terapia taldearen parametro fisiologikoen aldaketen eta laktatoaren, esfortzu pertzepzioaren balorazioen eta malgutasunaren parametroen aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa 14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

14 km·o <sup>-1</sup>	VO <sub>2</sub> /kg	RE	RER	BM	V <sub>E</sub>
<b>Laktatoa</b>	-0.19	-0.62	0.44	0.44	-0.31
<b>Eskumako koadrizepa</b>	0.62	0.21	<b>-0.87*</b>	-0.01	-0.49
<b>Ezkerreko koadrizepa</b>	-0.19	0.19	0.00	0.36	<b>-0.51*</b>
<b>Eskumako iskiotibiala</b>	0.72	0.02	-0.44	0.11	0.14
<b>Ezkerreko iskiotibiala</b>	0.29	0.66	<b>-0.71*</b>	0.27	-0.43
<b>Eskumako trizeps surala</b>	0.20	-0.66	0.00	-0.27	0.32
<b>Ezkerreko trizeps surala</b>	0.39	-0.32	0.00	0.38	-0.12
<b>Urteak korrika</b>	<b>-0.60*</b>	-0.12	0.44	0.51	0.00
<b>Km/aste korrika</b>	-0.43	0.12	0.15	<b>0.54*</b>	-0.26
<b>Km/egun korrika</b>	-0.16	0.09	0.00	0.09	0.45
<b>Orduak/aste korrika</b>	-0.20	-0.34	0.08	<b>0.61*</b>	-0.40
<b>Min/egun korrika</b>	0.16	-0.70	0.24	-0.59	0.36
<b>Egunak/aste korrika</b>	-0.35	0.02	0.08	<b>0.60*</b>	-0.38
<b>Adina</b>	-0.14	0.22	-0.36	0.06	0.25
<b>Pisua</b>	0.24	-0.75	0.36	0.17	0.18
<b>Altuera</b>	0.29	-0.12	0.29	0.00	0.66
<b>GMI</b>	0.00	-0.73	0.14	0.30	-0.31
<b>Gantz %</b>	0.57	-0.49	-0.14	0.26	0.00
<b>Hezur %</b>	-0.09	0.64	0.00	-0.39	0.42
<b>Gihar %</b>	-0.66	0.58	0.00	-0.07	-0.19
<b>Endormorfia</b>	0.66	-0.45	-0.29	0.11	-0.12
<b>Mesomorfia</b>	-0.28	-0.67	0.43	0.24	-0.35
<b>Ektomorfia</b>	0.00	0.73	-0.14	-0.30	0.31

VO<sub>2</sub>/kg: Oxigeno kontsumoa erlatiboa; RE: Lasterketa ekonomia; RER: Arnas truke ratioa; BM: Bihotz-Maiztasuna; V<sub>E</sub>: Aireztapen bolumena; GMI: Gorputz Masa Indizea.

\*p< 0.05.

**51. Taula.** T.E.C.A.R. terapia taldearen parametro fisiologikoen aldaketen eta laktatoaren, esfortzu pertzepzioaren balorazioen eta malgutasunaren parametroen aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa 16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

16 km·o <sup>-1</sup>	VO <sub>2</sub> /kg	RE	RER	BM	V <sub>E</sub>
<b>Laktatoa</b>	-0.09	0.05	0.15	0.18	0.06
<b>Eskumako koadrizepsa</b>	-0.66	<b>0.66*</b>	-0.22	-0.24	0.06
<b>Ezkerreko koadrizepsa</b>	0.24	-0.09	0.43	0.24	0.70
<b>Eskumako iskiotibiala</b>	-0.03	0.43	0.29	0.36	-0.15
<b>Ezkerreko iskiotibiala</b>	-0.42	0.72	-0.22	-0.24	0.24
<b>Eskumako trizeps surala</b>	-0.56	0.39	-0.30	-0.12	-0.72
<b>Ezkerreko trizeps surala</b>	0.28	0.15	<b>0.51*</b>	<b>0.53*</b>	0.08
<b>Urteak korrika</b>	0.12	-0.05	-0.22	-0.09	-0.38
<b>Km/aste korrika</b>	0.43	0.10	0.51	0.58	0.08
<b>Km/egun korrika</b>	-0.10	0.16	-0.48	-0.30	-0.58
<b>Orduak/aste korrika</b>	0.06	0.45	0.45	0.56	-0.21
<b>Min/egun korrika</b>	-0.40	0.00	-0.32	-0.23	-0.56
<b>Egunak/aste korrika</b>	0.31	0.25	0.53	0.59	0.05
<b>Adina</b>	-0.51	0.48	-0.58	-0.42	-0.43
<b>Pisua</b>	0.09	0.19	0.00	0.18	<b>-0.63*</b>
<b>Altuera</b>	0.48	-0.24	0.07	0.21	-0.51
<b>GMI</b>	-0.30	0.47	0.00	0.12	-0.55
<b>Gantz %</b>	-0.12	0.57	0.14	0.30	-0.61
<b>Hezur %</b>	0.30	-0.57	-0.14	-0.24	0.40
<b>Gihar %</b>	0.00	-0.38	-0.14	-0.30	0.68
<b>Endormorfia</b>	-0.30	0.66	0.00	0.12	-0.55
<b>Mesomorfia</b>	0.00	0.00	0.29	0.30	-0.13
<b>Ektomorfia</b>	0.30	-0.47	0.00	-0.12	0.55

VO<sub>2</sub>/kg: Oxigeno kontsumoa erlatiboa; RE: Lasterketa ekonomia; RER: Arnas truke ratioa; BM: Bihotz-Maiztasuna; V<sub>E</sub>: Aireztapen bolumena; GMI: Gorputz Masa Indizea.

\*p < 0.05.

### 5.6.3 T.E.C.A.R. terapia taldearen laktatoaren eta esfortzu pertzepzioaren balorazioen eta beste parametroen arteko korrelazioa

14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran laktatoak erlazio positiboa izan zuen mesomorfiarekin ( $r=0.70$ ,  $p<0.05$ ) (52. Taula). Aldiz, 16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran laktatoan ez ziren emaitza estatistikoki adierazgarriak aurkitu (53. Taula).

**52. Taula.** T.E.C.A.R. terapia taldearen laktatoaren aldaketen eta malgutasun parametroen aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa 14 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

14 km·o <sup>-1</sup>	Laktatoa
<b>Eskumako koadrizepsa</b>	-0.11
<b>Ezkerreko koadrizepsa</b>	0.52
<b>Eskumako iskiotibiala</b>	-0.11
<b>Ezkerreko iskiotibiala</b>	-0.45
<b>Eskumako trizeps surala</b>	0.19
<b>Ezkerreko trizeps surala</b>	0.63
<b>Urteak korrika</b>	0.04
<b>Km/aste korrika</b>	0.28
<b>Km/egun korrika</b>	-0.60
<b>Orduak/aste korrika</b>	0.66
<b>Min/egun korrika</b>	0.22
<b>Egunak/aste korrika</b>	0.42
<b>Adina</b>	-0.56
<b>Pisua</b>	0.29
<b>Altuera</b>	-0.40
<b>GMI</b>	0.67
<b>Gantz %</b>	0.23
<b>Hezur %</b>	-0.72
<b>Gihar %</b>	-0.18
<b>Endormorfia</b>	0.20
<b>Mesomorfia</b>	<b>0.70*</b>
<b>Ektomorfia</b>	-0.67

GMI: Gorputz Masa Indizea.

\*p < 0.05.

**53. Taula.** T.E.C.A.R. terapia taldearen laktatoaren aldaketen eta malgutasun parametroen aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa 16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran.

16 km·o <sup>-1</sup>	Laktatoa
<b>Eskumako koadrizepa</b>	-0.33
<b>Ezkerreko koadrizepa</b>	0.23
<b>Eskumako iskiotibiala</b>	-0.53
<b>Ezkerreko iskiotibiala</b>	-0.33
<b>Eskumako trizeps surala</b>	0.22
<b>Ezkerreko trizeps surala</b>	0.00
<b>Urteak korrika</b>	0.55
<b>Km/aste korrika</b>	0.36
<b>Km/egun korrika</b>	-0.12
<b>Orduak/aste korrika</b>	0.50
<b>Min/egun korrika</b>	0.17
<b>Egunak/aste korrika</b>	0.40
<b>Adina</b>	0.06
<b>Pisua</b>	-0.08
<b>Altuera</b>	-0.56
<b>GMI</b>	0.43
<b>Gantz %</b>	-0.25
<b>Hezur %</b>	-0.40
<b>Gihar %</b>	0.40
<b>Endormorfia</b>	-0.31
<b>Mesomorfia</b>	0.67
<b>Ektomorfia</b>	-0.43

GMI: Gorputz Masa Indizea.



#### 5.6.4 T.E.C.A.R. terapia taldearen malgutasunaren eta beste parametroen arteko korrelazioa

Ezkerreko koadrizepsaren malgutasunak erlazio negatiboa izan zuen korrikalariak egunero korrika egiten zituzten kilometroekin eta adinarekin ( $r=-0.78$ ,  $p<0.05$ ;  $r=-0.78$ ,  $p<0.05$ ). Eskumako trizeps suralak erlazio positiboa izan zuen korrikalariak egunero korrika egiten zituzten minutuekin ( $r=0.84$ ,  $p<0.05$ ) (54. Taula).

**54. Taula.** T.E.C.A.R. terapia taldearen malgutasunaren aldaketen eta korrikalarien esperientziaren eta parametro antropometrikoen arteko korrelazioa.

	Eskumako koadrizepsa	Ezkerreko koadrizepsa	Eskumako iskiotibiala	Ezkerreko iskiotibiala	Eskumako trizeps surala	Ezkerreko trizeps surala
<b>Urteak korrika</b>	-0.52	-0.16	-0.49	-0.20	0.02	-0.45
<b>Km/aste korrika</b>	-0.12	0.20	0.23	0.28	-0.36	0.38
<b>Km/egun korrika</b>	-0.15	<b>-0.78*</b>	0.12	0.24	0.19	-0.46
<b>Orduak/aste korrika</b>	0.20	0.22	0.29	0.17	0.16	0.61
<b>Min/egun korrika</b>	-0.08	-0.37	-0.27	-0.60	<b>0.84*</b>	-0.15
<b>Egunak/aste korrika</b>	0.04	0.28	0.28	0.31	-0.25	0.50
<b>Adina</b>	0.15	<b>-0.78*</b>	0.19	0.44	0.41	-0.38
<b>Pisua</b>	0.03	-0.23	0.19	-0.20	0.41	0.18
<b>Altuera</b>	-0.23	-0.56	0.44	0.05	-0.09	0.01
<b>GMI</b>	0.23	0.11	-0.04	-0.20	0.59	0.28
<b>Gantz %</b>	0.54	-0.21	0.72	0.31	0.41	0.57
<b>Hezur %</b>	-0.40	-0.21	-0.14	0.04	-0.52	-0.48
<b>Gihar %</b>	-0.41	0.29	-0.68	-0.14	-0.41	-0.51
<b>Endormorfia</b>	0.68	-0.14	0.67	0.34	0.44	0.50
<b>Mesomorfia</b>	-0.14	0.46	-0.41	-0.58	0.33	0.28
<b>Ektomorfia</b>	-0.23	-0.11	0.04	0.20	-0.59	-0.28

GMI: Gorputz Masa Indizea.

\* $p < 0.05$ .

# Eztabaida





## 6 EZTABAIDA

Ikerketa honen bidez tratamendu desberdinak (masajea, ur hotzeko murgilketa eta T.E.C.A.R. terapia) intentsitate altuko saio baten ostean aplikatzen direnean korrikalari popularretan sortzen dituzten efektuak aztertu dira. Hain zuzen ere, tratamendu desberdinek parametro biomekanikoetan, parametro fisiologikoetan, laktatoan, esfortzu pertzepzioan (kardiobaskularra eta muskularra) eta malgutasunean duten eragina aztertu da.

Intentsitate altuko entrenamendu errepikakorren edota txapelketen ostean, non gainkarga dagoen, batez ere mina eta nekea dira agertzen diren sintomarik adierazgarrienak (Nunes eta lank., 2016). Min muskularra ariketa fisikoa egin eta 12-24 orduara agertu daiteke eta 48-72 orduara arte iraun dezake (Jay eta lank., 2014; Pournot eta lank., 2011). Izan ere, muskuluan kalte estrukturalak sortzen dira eta horrek hantura erantzunak eragiten ditu (Neubauer, König eta Wagner, 2008; Peake, Nosaka, Muthalib eta Suzuki, 2006). Era berean, sakoneko nozizeptoreak kitzikatzen dira eta min sentazioa agertzen da (Wilmore eta Costill, 2007), besteen artean, bradikina eta prostaglandina jariatzen baitira (Hyldahl eta Hubal, 2014). Bestalde, energia eskaera handiak badaude ariketa fisikoa egiterakoan azidosi metabolikoa eragingo du. Katabolitoen pilaketaren ondorioz, indarra eta potentzia sortzeko gaitasuna gutxitzen da eta, horrekin batera, nerbio kinaden transmisio-abiadura (Enoka eta Duchateau, 2008). Korrikalarien kasuan, neke horrek aldaketa fisiologikoak eta biomekanikoak eragin ditzake (Giandolini eta lank., 2016; Maclaren eta lank., 1989). Are gehiago, egoera hau denbora luzez mantentzen bada eta errekupeazio prozesua egokia ez bada, kirolariek gainentrenamendua pairatu dezakete (Halson eta Jeukendrup, 2004), errendimendu baxuagoa (Robson, 2003; Robson-Ansley, Blannin eta Gleeson, 2007) eta lesionatzeko eta gaixotzeko arrisku handiagoa (Barnett, 2006). Hortaz, komenigarria da intentsitate altuko ariketa fisikoak eragiten dituen efektu negatiboari irtenbidea ematea, besteak beste, errekupeazio metodoen bidez. Horretarako, jarraian gure ikerketan erabilitako errekupeazio metodoak parametro desberdinetan eragindako efektuak aztertu eta eztabaidatuko dira.

### 6.1 Masajea

Masaje terapiari buruz Tiffany Fiel-ek (2014) burututako errebisioaren arabera, masajea hainbat patologia hobetzeko erabili izan da eta, oro har, ikerketa desberdinetan masajea jasotzen zuten taldeek kontrol taldeek baino emaitza hobekak lortu zituzten. Hain zuzen ere, neurrizko presioarekin egindako masajeak ume goiztiarrei pisua hartzen laguntzen diela ikusi

da, artritis erreumatoidean eta fibromialgian mina gutxitzen duela eta depresioa eta sistema immunologikoa hobetu ditzakeela (Field, 2014).

Horren harira, Tejero eta lankideen (2015) arabera, ariketa kardiobaskularraren ostean iraupen luzeko masajeak sistema immunologikoan efektu positiboagoak izan ditzake. Gainera, ikusi da masajea ariketa fisikoa bukatu eta 2 ordotara egiten denean baino efektu immunologiko positibo esanguratsuagoak dituela ariketa bukatu eta berehala egiten denean (Arroyo-Morales eta lank., 2009; Hilbert eta lank., 2003). Ikerketa honetan treadmill testa bukatu eta berehala 40 minutuko masajea burutu zela kontutan izanda, esan dezakegu erabilitako denbora eta prozedura egokiak izan zirela emaitza esanguratsuak lortzeko.

### 6.1.1 Parametro biomekanikoak

Gure ikerketan masajeak aldaketa positibo adierazgarriak eragin zituen parametro biomekanikoetan. Izan ere, masaje taldean, korrikalariak gero eta mesomorfoagoak izan, orduan eta hegaldi denbora luzeagoak egin zituzten  $14 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran. Are gehiago, gero eta mesomorfoagoak izan eta gorputz masa indize handiagoa izan, orduan eta hegaldi denbora luzeagoak eta kontaktu denbora laburragoak izan zituzten  $16 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran. Bestalde,  $16 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran gero eta pauso maiztasun txikiagoa eta oinkada luzera handiagoa egin, orduan eta oxigeno kontsumo erlatibo txikiagoa eta lasterketa ekonomia hobea izan zituzten. Azkenik, eguneko kilometro gehien eta astean egun gehien korrika egiten zituzten korrikalariak lasterketa ekonomia hobea izan zuten.

Santos-Concejero eta lankideen (2013b) arabera, oinkada luzeagoak, angelu handiagoak, hegaldi denbora handiagoak, maiztasun eta kontaktu denbora txikiagoak, eta propulsió subfase berantiarrak energiaren erabilera eraginkorragoa bultzatzen dute eta lasterketa ekonomia hobea izatearekin erlazionatzen dira. Era berean, lasterketa ekonomia errendimenduarekin estuki erlazionatuta dagoela ikusi da, alegia, errendimendua hobea dela lasterketa ekonomia hobea den heinean (Santos-Concejero eta lank., 2013a). Horrenbestez, gure emaitzen arabera, masajeak korrikalari popularren energiaren erabilera eraginkorragoa izatea eragin zuen oinkada luzera eta pausoaren angelu handiagoak, hegaldi denbora luzeagoak, oinkada maiztasun txikiagoak eta kontaktu fase denbora laburragoak egin baitzituzten. Horrela, emaitzen arabera korrikalari popularren lasterketa ekonomia hobetu zen, eta beraz, ondoriozta dezakegu honek errendimenduan eragin positiboa izango zuela. Beraz, laburbilduz, ikerketa honen arabera masajeak korrikalari popularren errendimendua hobetu dezakeela esan dezakegu. Dena den, aipatu beharra dago ikerketa honetan ez zela

errendimendua baloratzeko proba zehatzik egin eta, hori dela eta, beste ikerlanekin konparaketak egitea zaila da.

### 6.1.2 Parametro fisiologikoak

Parametro fisiologikoei dagokionez, masaje taldean korrikalarien oxigeno kontsumo erlatiboa eta lasterketa ekonomia hobetu ziren  $12 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko eta  $14 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduretan. Horretaz gain, masaje taldean  $14 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran korrikalariak RER txikiagoak izan zituzten, hegaldi denbora handiagoak eta kontaktu denbora txikiagoak. Bestalde,  $V_E$  txikiagoa izan zuten korrikalariak pausoaren maiztasun txikiagoa izan zuten. Era berean, masaje taldean  $16 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduran  $V_E$  txikiagoa izan zuten. Lehen ere beste autore batzuk  $V_E$  txikia lasterketa ekonomia hoberekin erlazionatzen dela ikusi dute (Pate, Macera, Bailey, Bartoli eta Powell, 1992), hots, abiadura berdinerako mugitu beharreko oxigeno kantitatea txikiagoa dela. Beraz, masajea egin ondoren treadmill testa egiteko oxigeno eskaera txikiagoa izan zen eta, ez hori bakarrik, abiadura berdinean korrika egiteko biomekanikoki energia gutxiago behar izan zuten. Ondorioz, esan dezakegu korrikalariak eraginkorragoak izan zirela eta, hori dela eta, haien errendimendua hobetu zela.

### 6.1.3 Laktatoa eta esfortzu pertzepzioaren balorazioak

Intentsitate altuko ariketa fisikoak sortutako azido laktikoa kanporatzea betidanik garrantzitsua izan da giharraren errekupeazio prozesurako, azidosi intrazelularrak giharren nekea eragiten baitu (Fitts, 2008; Westerblad, Allen eta Lannergren, 2002).

Ikerketa honetan ez zen laktato kontzentrazioan aldaketa adierazgarri ikusi. Emaitza hau bat dator bibliografian ikusitakoarekin. Izan ere, ikerketa gehien arabera masajearen bidez ez da odol-fluxua handitzen ezta azido laktikoaren kanporaketa gertatzen ere (Dolgener eta Morien, 1993; Hemmings eta lank., 2000; Monedero eta Donne, 2000; Wiltshire eta lank., 2010).

Esfortzu pertzepzioari dagokionez, masajearen bidez esfortzu pertzepzio kardiobaskularra ( $14 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko eta  $16 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduretan) eta muskularra ( $12 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko eta  $16 \text{ km}\cdot\text{o}^{-1}$ -ko abiaduretan) gutxitu egin ziren. Alegia, masajea jaso ostean esfortzuaren pertzepzioa, bai kardiobaskularra eta baita muskularra ere, txikiagoak izan ziren. Beraz, masajeari esker egiten zuten esfortzua txikiagoa zela hautematen zuten korrikalariak.

Gure ikerketan lortutako emaitzak beste hainbat ikerketekin bat datoz. Adibidez, errebisio sistematiko batean, non arazo muskuloeskeletiko ohikoetan masajeak duen eragina aztertzen den, masajeak mina gutxitu eta funtzio muskuloeskeletikoa hobetu dezakeela ikusi zen

(Bervoets, Luijsterburg, Alessie, Buijs eta Verhagen, 2015). Era berean, masajeak min muskularrean duen eragina aztertzen duen beste errebisio baten arabera, masajeak min muskularraren pertzepzioa gutxitu dezakeela ikusi zen (Nelson, 2013).

Halaber, hainbat ikerketetan ere ikusi da ariketa fisikoa egin ostean masajea jasotzen zuten kirolariek min muskularraren balorazioan (Boguszewski, Szkoda, Adamczyk eta Białoszewski, 2014; Hilbert eta lank., 2003; Willems, Hale eta Wilkinson, 2009) eta errekupeazioaren balorazioan (Hemmings, 2000; Hemmings eta lank., 2000) hobekuntzak lortu zituztela.

Korrikalariekin burututako ikerketetan ere ikusi da masajeak esfortzuaren pertzepzioan eragin positiboa duela, hain zuzen ere, ultramaratoi korrikalarietan (Visconti, Capra, Carta, Forni eta Janin, 2015), maratoni erdiko korrikalarietan (Dawson eta lank., 2004) eta Ironman triatletetan (Nunes eta lank., 2016). Are gehiago, Guo eta lankideen (2017) orain dela gutxi errebisio sistematiko eta meta-analisiaren arabera, ariketa fisiko neketsuaren ostean masajea aplikatzeak min muskularra arindu eta gihar errendimendua hobetu ditzake. Ostera, Nunes eta lankideek (2016) triatletekin egindako ikerketan, kirolariek 7 minutuko masajea aplikatu zitzaie min gehien zuten koadrizeps giharrean; masajearen ostean haien minaren pertzepzioa txikiagoa izan arren, minaren atalasea presioaren bidez neurtzerakoan ez zen aldaketa adierazgarri ikusi.

Honetaz gain, min sentazioaren gutxipenak azalpen psikologikoa ere izan dezakeela ikusi da (Hemmings, 2001). Leivadi eta lankideen (1999) ikerketan ikusi zutenaren arabera, masajea jaso zuten dantzariak kortisol kantitatea gutxitzea lortu zuten, hots, estres maila gutxitzea. Bestalde, unibertsitateko ikasle kirolariek egindako beste ikerketa batean, ikasleei 30 minutuko "Suediar masajea" eman zitzaie eta tentsioa, nahasketa mentala, nekea, antsietatea, depresioa eta haserrea gutxiagotzen zirela ikusi zen, osasun mental positiboagoa adieraziz (Weinberg eta lank., 1988).

Besteak beste, masaje bat jasotzerakoan beta endorfinak askatzen dira (minaren erregulatzaileak direnak), katabolitoak kanporatzen dira eta, hauei guztiei, fisioterapeutagatik jasotako atentzioa eta eskuzko kontaktua gehitzen bazaizkie, ongizate sentazioa eragin dezakete (Weerapong, Hume eta Kolt, 2005). Horretaz gain, masajea estimulu erritmikoen eta leunen bitartez egiten denean erlaxazio fisikoa-mentala eta logura eragiten ditu (Albornoz eta Meroño, 2012). Era berean, eragina larruazalpean ematen bada, sistema autonomo parasinpatikoaren aktibazioa eragingo du (Torres eta Salvat, 2006). Masajea gihar-ehun ildaskatuetan egiten denean, tonuan elastikotasunean eta giharraren uzkurkortasunean



aldaketak eragingo ditu (Albornoz eta Meroño, 2012). Horrenbestez, masajeak min sentrazioa gutxitu dezake, ongizate sentrazioa eta nerbio sistema parasinpatikoaren aktibazioan eraginez.

#### 6.1.4 Malgutasuna

Malgutasunari dagokionez, masajeak korrikalari popularren errekuerazio prozesuan ez zuen aldaketa esanguratsurik eragin. Dena den, masaje taldean korrelazioak aurkitu ziren malgutasuna eta eraginkortasun biomekanikoaren hainbat parametro erlazionatzerakoan. Besteak beste, masaje taldean korrikalariak 16 km·o<sup>-1</sup>-ko abiaduran eskumako trizeps suralean gero eta mugikortasun handiagoa izan, orduan eta hegaldi denbora luzeagoak, kontaktu denbora laburragoak eta pausoaren angelu handiagoak egin zituzten. Bestalde, eskumako iskiotibialean gero eta mugikortasun handiagoa izan, orduan eta hegaldi denbora luzeagoak izan zituzten. Beraz, emaitzen arabera garrantzitsua izan daiteke mugikortasun handiagoa izatea lasterketa ekonomia hobea izateko eta, beraz, errendimenduan eragina izateko. Alabaina, korrelazio hauek ikerketa honen laginaren ezaugarri partikularrak izan daitezke.

Azkenik, masajea jaso eta 48 orduara egin zen balorazio goniometrikoan ez zen malgutasunean aldaketa adierazgarri aurkitu. Aldiz, beste ikerketa batzuetan masajea eman ostean ROM-ean hobekuntzak ikusi izan dira (Leivadi eta lank., 1999; Nordschow eta Bierman, 1962; Wiktorsson-Moller, Öberg, Ekstrand eta Gillquist, 1983). Horrela, Leivadi eta lankideek (1999) unibertsitateko dantzari talde batekin burututako ikerketa batean, ikasleei 5 asteetan zehar astean bi aldiz 30 minutuko masajea eman ostean emaitza positiboak ikusi zituzten ROM-ean (ingeleratik *Range Of Motion*). Ildo bera jarraituz, beste bi ikerketetan ere (Nordschow eta Bierman, 1962; Wiktorsson-Moller eta lank., 1983) ikusi egin da masajeak ROM-ean hobekuntza adierazgarriak eragiten dituela nahiz eta ikerketa horietan ere ikusi izan den luzaketek hobekuntza adierazgarriagoak eragiten dituztela. Hortaz, masajea behin bakarrik egin beharrean, hainbat egunetan edo asteetan zehar jasotzean sortu daitezkeen aldaketak aztertzea interesgarria litzateke. Horrela, masajea pertsona berdinari momentu desberdinetan eginda korrikalari popularren ROM-ean epe luzeko emaitzak gertatzen diren edo ez aztertzea posible izango litzateke.

## 6.2 Ur hotzeko murgilketa

Material eta metodoetan aipatu den moduan, ur hotzeko murgilketa (UHM) tratamendua egiteko erabilitako prozedura hurrengoak izan zen: korrikalari bakoitzak 10 minutuko 11°C-ko UHM egin zuen treadmill testaren ostean. Machado eta lankideen (2016) errebisio eta meta-analisiaren arabera, 11-15 minutuko 11-15°C-ko UHM-k dira egokienak giharretako minaren

efektua arintzeko. Bederen, Mawhinney eta lankideen (2013) ikerketaren arabera, intentsitate altuko ariketa fisikoaren ostean 10 minutuko 8°C-ko eta 22°C-ko UHM-k, arteria femoraleko eta azaleko odol-fluxuaren gutxiagotze antzekoak eragiten dituzte, baina 8°C-ko UHM-k izterreko azaleko eta sakontasuneko giharren temperatura gehiago jaisten du. Gure ikerketan bibliografian gomendatutako denbora eta temperatura erabili ziren arren, ez zen emaitza positibo adierazgarriak aurkitu.

